

**ERRETERIAKO
EMAKUMEEN
AZTARNAK:
NARRAZIOAK**





Errenteriako
Berdintasunerako Kontseilua
Consejo de Igualdad
de Errenteria

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Errenteriako Udala

Izenburua: Errenteriako emakumeen aztarnak: narrazioak.

Lehen edizioa: Errenteria, 2018ko azaroa.



Liburu honek Creative Commons lizentzia du:

Edizio honena: Errenteriako Udala.

Testuena: Iñigo Legorburu Arregi, Arantxa Urbe Irazusta, Maite Ruiz de Azúa Lizaso, Karmele Mitxelena Etxebeste, Jone Bereziartua Salamero, Olatz Arozena Mujika, Goiatz Labandibar Arbelaitz, Julian Albistur Aranburu, Txaro Pérez del Pecho, Ainhoa Palomo Zabala, Ander OiARBIDE Ruiz de Azua, Jose Angel Prieto Giménez, Iñaki Otegi Gelbentzu, Jon Maya Sein, Miren Azkarate Badiola, Axun Ertzibengoa Aizpiolea, Eli Etxabeguren Aranzabal, Idoia Fraile Ugalde.

Irudia: Idoia Beratarbide.

Diseinua: Allende Arnaiz eta Idoia Beratarbide.

Maketazioa: Allende Arnaiz.

Euskara zuzentzailea: Amaia Apalauza.

Gaztelera zuzentzailea: Óscar Manso.

Koordinazio eta ekoizpen orokorra: Metrokoadroka.

Inprimaketa: Leitzaran Grafikak. 20140 Andoain.

ISBN: 978-84-09-06-312-3

Lege gordailua: SS-1292-2018

**ERRENTERRIAKO
EMAKUMEEN
AZTARNAK:
NARRAZIOAK**

EZ GATUZ BAIMEN ESKE

2010. urtean sortu zen Errenteriako Berdintasunerako Kontseilua. Urte horretan Mariasun Landa Sariak martxan jarri genituen, eta zortzi edizio hauetan asko izan dira ezagutu ditugun errenteriar emakumeak. Sari hauek sortzean bete nahi genuen helburuari erantzun diogu eta, horrela, emakumeek egindako ekarpena ikustarazi eta herri-kronika osatu dugu.

Lerro hauetan, alde batetik, Mariasun Landari eskerrak eman nahi dizkiogu lehia-ketari bere izena jartzeko baimena emategatik, baina, batez ere, urtez urte eta hutsik egin gabe sari-banaketa ekitaldian parte hartzeagatik. Bestetik, aipamen berezia egin nahi diegu urte hauetan guztietan epaimahaikide lanak egin dituztenei.

Urte hauetan jasotako idatziak altxor txikiak izan dira guretzako eta horiek ezagutzera emateko unea dela erabaki dugu. Bilduma honetan ezin genituen guztiak bildu eta, batzuk kanpoan utzi behar izan baldin baditugu ere, seguru gaude beraiei buruz jasotako bizipen horiek izango dutela lekua aurrerago.

Ondorengo orrietan aurkituko duzunarekin ikasi, disfrutatu, gozatu... Euren bidea egiteko baimenik eskatu ez zuten emakumeak dira guztiak. Orain, gure memorian behar duten tokia izan dezaten, Berdintasunerako Kontseiluko kideak ere ez gatz baimen eske, eta horretan jarraituko dugu, emakumeon historia letra larriz idazteko bidea egiten.

AURKIBIDEA

JOXEPA ANTONI ARANBERRI PETRIARENA	11
<i>Argi-izpi bat Xenpelarren itzalpean</i>	
Egilea: Iñigo Legorburu Arregi	
MARI ZOZAIA	21
<i>Letra txikietan idatzitako ankerkeria handiak</i>	
Egilea: Arantxa Urbe Irazusta	
JULIA IRAZU GARCÍA	29
<i>Una de aquellas maestras pioneras</i>	
Egilea: Maite Ruiz de Azúa Lizaso	
«SORKUN» SORKUNDE RUBIO ANSOTEGI	37
<i>Dena duna</i>	
Egilea: Karmele Mitxelena Etxebeste	
PETRA IGARTUA GURIDI	43
<i>«La Florista»</i>	
Egilea: Jone Bereziartua Salamero	
NERE MUJIKA CASARES	51
<i>80 Urte bizi-bizi</i>	
Egilea: Olatz Arozena Mujika	
VALVERDE AHIZPAK	57
<i>Piano partituretan idatzitako bizitzak</i>	
Egilea: Goiatz Labandibar Arbelaitz	
ARANTZA IDIAZABAL GORROTXATEGI	65
<i>Lehen andereñoa</i>	
Egilea: Julian Albistur Aranburu	
TXARO PÉREZ DEL PECHO	73
<i>Una carrera de fondo</i>	
Egilea: Txaro Pérez del Pecho	
MIREN MENDARTE CASARES	81
<i>Atzoko gerra baten gaurko ahotsa</i>	
Egilea: Iñigo Legorburu Arregi	

AGUSTINA OTAOLA ZAPIAIN	87
<i>Agustina raketista, bizitza frontoiari emana</i>	
Egilea: Ainhoa Palomo Zabala	
AVELINA JAUREGI ATONDO	95
<i>Emakumeak Errenteriako udalgintzan</i>	
Egilea: Goiatz Labandibar Arbelaitz	
IXIAR BUSSELO USABIAGA	103
<i>Txistuak emakumearen izena hartu zueneko</i>	
Egilea: Ander Oiarbide Ruiz de Azua	
MARÍA PILAR GIMÉNEZ GIMÉNEZ	111
<i>Breve reseña de una mujer errenteriarra</i>	
Egilea: Jose Angel Prieto Giménez	
XEBAS GELBENTZU OLAIZ	119
<i>Auzo baten nortasuna eraikitzen</i>	
Egilea: Iñaki Otegi Gelbentzu	
RUFINA MIKELARENA AYOROA	127
<i>Muga ondoko aterpe</i>	
Egilea: Jon Maya Sein	
RITA AZKARATE JIMENEZ	135
<i>Zu zarelako gara gu</i>	
Egilea: Miren Azkarate Badiola	
ARANTXA ERRIONDO ERTZIBENGOA	143
<i>Euskararen hauspo</i>	
Egilea: Axun Ertzibengoa Aizpiolea	
KONTXI URKIJO Y ANDUAGA	151
<i>Esperantzaren mezularia</i>	
Egilea: Iñigo Legorburu Arregi	
KONTXI RUIZ ROYO	159
<i>La guerra vista desde los ojos de una niña</i>	
Egilea: Iñigo Legorburu Arregi	
MARITXU ETA JOSEBE ETXABEGUREN URDAMPILLETA	167
<i>Oreretako alabak ihesean</i>	
Egilea: Eli Etxabeguren Aranzabal	
FERMINA ARREGI LIZARAZU	175
<i>Injustiziak indartsu bihurtu zuen emakumea</i>	
Egilea: Iñigo Legorburu Arregi	
PILAR FRAILE SARASOLA	183
<i>Leihotik erbesteari begira</i>	
Egilea: Idoia Fraile Ugalde	



ERRENTERRIAKO EMAKUMEEN AZTARNAK: NARRAZIOAK

Testu hauek 2011 eta 2018 urteen artean idatziak dira. Testuak bere egunean idatziak izan ziren moduan publikatu dira, beraz, gerta daiteke daturen bat eguneratu gabe egotea.

JOXEPAANTTONIARANBERRIPETRIARENAJ
XEPAANTTONIARANBERRIPETRIARENAJ
PAANTTONIARANBERRIPETRIARENAJ
ANTTONIARANBERRIPETRIARENAJ
TTONIARANBERRIPETRIARENAJ
ONIARANBERRIPETRIARENAJ
IARANBERRIPETRIARENAJ
ANBERRIPETRIARENAJ
BERRIPETRIARENAJ
RRIPETRIARENAJ
IPETRIARENAJ
TRIARENAJ
ARENAJ
ENAJ
AJ
OXEPAANTTONIARANBERRIPETRIARENAJ
EPAANTTONIARANBERRIPETRIARENAJ
AANTTONIARANBERRIPETRIARENAJ
NTTONIARANBERRIPETRIARENAJ
TONIARANBERRIPETRIARENAJ
NIARANBERRIPETRIARENAJ
ARANBERRIPETRIARENAJ
ANBERRIPETRIARENAJ
BERRIPETRIARENAJ
RRIPETRIARENAJ
IPETRIARENAJ
TRIARENAJ
IARENAJ

OXEPAANTTONIARANBERRIPETRIARENAJO
EPAANTTONIARANBERRIPETRIARENAJOXE
AANTTONIARANBERRIPETRIARENAJOXEPA
NTTONIARANBERRIPETRIARENAJOXEPAAN
TONIARANBERRIPETRIARENAJOXEPAANTT
NIARANBERRIPETRIARENAJOXEPAANTTON
ARANBERRIPETRIARENAJOXEPAANTTONIAR
NBERRIPETRIARENAJOXEPAANTTONIARAN
ERRIPETRIARENAJOXEPAANTTONIARANBE
RIPETRIARENAJOXEPAANTTONIARANBERR
PETRIARENAJOXEPAANTTONIARANBERRIPE
RIARENAJOXEPAANTTONIARANBERRIPETRI
RENAJOXEPAANTTONIARANBERRIPETRIAR
NAJOX
JOXEP
XEPAANTTONIARANBERRIPETRIARENAJOX
PAANTTONIARANBERRIPETRIARENAJOXEP
ANTTONIARANBERRIPETRIARENAJOXEP
TTONIARANBERRIPETRIARENAJOXEPAANT
ONIARANBERRIPETRIARENAJOXEPAANTTO
IARANBERRIPETRIARENAJOXEPAANTTONI
RANBERRIPETRIARENAJOXEPAANTTONI
NBERRIPETRIARENAJOXEPAANTTONIARAN
ERRIPETRIARENAJOXEPAANTTONIARAN
RIPETRIARENAJOXEPAANTTONIARANBERR
PETRIARENAJOXEPAANTTONIARANBERRIPE
RIARENAJOXEPAANTTONIARANBERRIPETR
ARENAJOXEPAANTTONIARANBERRIPETRIA

JOXEPA ANTTONI

ARANBERRI PETRIARENA

11

*Argi-izpi bat
Xenpelarren itzalpean*

Joxepa Anttoni Aranberri Petriarena

Egilea: Iñigo Legorburu Arregi

Saria: Emakumezkoei begirada onenari saria

Urtea: 2011

2009. urteko abenduaren 13an, Maialen Lujanbio bertsolari hernaniarra izendatu zuten Euskal Herriko bertsolari txapeldun, Andoni Egañari erreleboa hartuta. Entzuleek txaloz eta gustura hartu zuten erabakia; izan ere, inork irudika al dezake gaur egun emakumerik gabeko bertso-laritzarik? Dena den, ofizialki, 1986. urtean parte hartu zuen lehen aldiz emakumezko batek Euskal Herriko Txapelketa Nagusian.

Baina nola da posible hainbeste mendetako tradizioa duen ahozketasun ariketa honek lehenagotik emakumerik ezagutu ez izana? Egia esan, *ofizial* hitzak zerikusia du horretan. Argi dago mendeetan zehar izan direla emakumezko bertsolariak, baina euren presentziaren berri bide ez-ofizialetatik iritsi da guregana. Euren garai-ko gizarteak, eta gerora historiak, ez die protagonismorik aitortu, eta gehienontzat oharkabean pasatu dira.

Lerro hauetan, emakumeak bertsolaritzan izan duen garrantzia islatzen saiatuko gara, hainbat zertzeladatan, eta, adibide praktiko gisa, Errenteriako Joxepa Anttoni Aranberri «Xenpelar» (Xenpelarren iloba) emakumezko bertsolariaren biografia azaleratuko dugu.

Lehenengo emakumezko bertsolarien zantzuak XV. mendean topatzen ditugu. Hiletetan, *eresiac* izeneko piezak abesten zituzten, karga dramatiko handiko bertsoak. Bertsook antzerki eta karakterizazio dramatiko lagunduta zihoazen. Emakumezkoak protagonista ziren ekitaldior amaiera emateko, 1452. Urtean, Bizkaiko foru zaharrek lege bat adostu zuten halako abesti motak debekatzeko:

Título 35, ley VI: ... de aquí en adelante cuando quier que alguno muere en Vizcaya o fuera de ella, por mar o por tierra persona alguna de toda Vizcaya... Tierra llana, Villas y Ciudad, no sea osado de hacer llanto alguno mesándose los cabellos, ni rasgando la cara... ni haga llanto cantando..., so pena de mil maravedís a cada uno que lo contrario hiciere por cada vez.

Ikusten denez, ukapenetik abiatuta, frogatu liteke emakumeen presentzia argia zela. Ondoren, Antonio Zavalaren eskutik, 1818. urtera egingo dugu salto. Zavalak uste du urte hartakoa dela «Gaboneco cantac vizcaitarrentzat» obra, erlijio kutsuko bertso jarri batzuk. Ordurako, gauza ziurra da sukalde txoko, komentu eta etxeetan emakumezkoen bertso jarduna handia zela.

Orokorrean, uste da emakumeak gehienbat bertso jarrien alorrean aritu zirela mendeetan, emakumeek jendaurrean jardutea gaizki ikusia zegoelako.

XIX. mendean, Bilintxen (1831-1876) bertso batzuetan idatzita gelditu zen Hondarribi aldean bazela Joxepa izeneko bertsolari bat bat-batean aritzen zena. Bertso hauetan, Bilintxek aitortzen digu Joxepa maila handiko bertsolaria zela, eta erronka botatzen dio. Historian, ordea, ozta-ozta gogoratu da pasarte hori; Bilintxen bertso haietan aipatua izan zelako soilik.

- 1 **Aspaldian, Joxepa,**
famatua zeunden,
gu berriz ikusteko
desiotan geunden;
Hondarrabi aldian
aditzen genduen
dama bertsolari bat
nola bazegoen,
zeiñak Euskalerrian
parerik etzuen.
- 2 **Egiak ote ziran**
famaren hots haiek,
bixitatu zindugun
zenbait jakinzalek
hamar edo hamabi
donostiarrek;
haiekin batian zan
bizar haundi harek,
izkribatzen dizkitzu
zuri bertso hauek.
- 3 **Ni bertsolaria naiz**
bainan det aditu
ez nitzaizula zuri
hala iruditu;
zuk horla pentsatzia
ez da zer harritu:
nere jakinduririk
ez nuen argitu,
zergatikan ez nitzan
premian arkitu.
- 4 **Baliteke irixtia**
premia horretara,
agindu zenidala,
goguan det bada,
prestaturikan nere
desiuetara,
baldin dibertsio bat
nahi banuen para,
etorriko ziñala
Errenteriara.

Bestalde, Ezpeletako 1895. urteko lore-jokoetan emakumezko bertsolariek jardun zutela iritsi zaigu. Gizonekin lehiatu omen ziren, eta Kanboko Marie Argain aterra omen zen txapeldun. Hazparneko Marie Etchegarayk ere maila bikaina erakutsi omen zuen.

XX. mendean jada, Justina Aldalur (Aia, 1922) eta Sebastiana Gesalaga (Zarautz, 1924) dira emakumezko bertsolaritzaren argia bizirik mantendu zuten izen esanguratsuenak. Toki faltagatik, soilik aipatuko dugu biak ala biak ukitu erlijiosoko bertso-paper mordo baten egile direla eta Basarrik bere artikuluetan goraiatu izan dituela.

Mende honetako 80ko hamarkadan, Xabier Amurizak bultzatuta bertso-eskolak sortzarekin, emakumeen presentzia erabat bermatua gelditu da plazetan.

Esan bezala, biografia bat aukeratzeko garaian, Joxepa Anttoni Aranberri «Xenpelar»rena aukeratu dugu, gertukoa izan eta bere gizartearekiko erakutsi zuen erre-beldia deigarria egin zaigulako.

Joxepa Anttoni Aranberri Petriarena «Xenpelar» 1865eko urriaren 7an jaio zen, Erreterian. Gurasoak Maria Luisa (Xenpelar bertsolariaren arreba) eta Javier Ignacio izan zituen. Maria Luisak bertsoan egiten zuela badakigu, nahiz eta haren bertso-rik ez den iritsi gure egunerata.

Joxepa Anttonik ama galdu zuen lau urterekin, baztanga gaitzarekin hil baitzen. Mationia ostatuko emakumezko jabea egin zen Joxepa haurraren kargu. Eskolan hasi zenean, gauza ugari ikasteko grina berezia azaldu zuen Joxepak (lehenago haren ama Maria Luisak bezala), baina Javier Ignacio aita ez omen zen horren aldekoa, libururik ez baitzion erosten. Antza denez, Javier Ignaciorentzat nahikoa zen erlijioa eta katekesia ikastea, haren ustez horretara mugatzen baitzen beharrezko jakintza guztia. Dena den, Joxepa Anttonik, aitarekin bat etorri ez, eta erlijio kutsurik ez zuten liburuak lortu zituen hainbat tokitan. Ez dakigu ikasteko indar horrek zenbateraino eragin zuen berarengan, baina dakiguna da 12 urterekin ikasteari utzi eta lanean hasi zela, beraren osaba bertsolaria eta ama jardundako ehun fabrika berean.

Joxepa lanean hasi zenean, ordea, ume aurpegia zuen, eta, lantokitik bota ez zezaten, liburuak utzi zizkion lagun batek takoidun zapatak oparitu omen zizkion, hala garaieran hazi eta emakume heldu baten itxura handiagoa izan zezan. Beste estrategia bat buruan zapia jartzea izan zen, adina disimulatu eta besteekiko errespetuz jokatzeko zuten seinale baitzen.

Bitartean, seguruenik, bertso jardunarekin jarraituko zuen, ahal bezala; izan ere, Erreterian bertso giro ederra bizi zen urte haietan (ikus Bilintxen laugarren bertsoa). Azkeneko urratsa aita hil eta berehala egin zuen, Matilderaren eta Florentinaren joskintza-tailerrean hartu baitzuen aterpe. Han, jostun lanetan zebilela, badakigu kantu zaharrak, bertso zaharrak eta bat-bateko bertsoak egin zituela. Handik aurrera, haren bertso-jardunak etenik ez zuen ezagutu. Hona hemen Altzako neska bati bere ezkontzan eskaini zion bertsoa:

Gure aldetik zorion asko
Mendarte' tar familiya,
pozkidaz gaude ikusitzeko
matrimonio berriya;
dantzatu dezu kafe-zartana
erabillyaz begiya,
zure onduan pasatzen baitzan
damatxo umil argiya
eta polliki-polliki biyok
egin dezute kabiya.


Edo Altzako Mirazun baserriko andreak oparitu zion botila sagardoari esker onez
eginiko bertsoa:

Alabak zintzo egin
ziran enkargua,
bertso batez eskerrak
ematera nua;
asko gustatzen baitzait
niri sagardua,
eskerrik asko, nere
andre ondradua.

Ez dakigu zehazki noizkoak diren aurreko bertso horiek. Baina haren lehenengo bertsoak 1902. urtekoak dira, eta haien atzean badago istorio bat. Errenteriako Enrike Elizegik neskazarrei buruzko bertso-sorta batekin Bilbon saria lortu zuenean hasi zen dena. Bilboko *Ibaizabal* egunkariak bertso-jarrien lehiaketa bat antolatu zuen, bertsolaritza eta oro har euskara sustatzeko asmoz, eta Elizegi atera zen garaile. Neskazarren topiko eta garaian garaiko usteak erabiliz, neskazaharrak mespretxatu zituen.

1 Enpleatzen ez bada
gazte dala neska,
pasa bearko ditu
makiña bat kezka,
burutik zoraturi
senargairik ez ta...
orra azkenerako
neskazarren festa!

2 Bat bakarrikan ez det bereitzen
berdiñak dirade denak,
nai duten ura ez egitean
biurtzen dira zitalak;
ondo bizitzen ez diote uzten
beren ernegazio txarrak,
olakuakin ezkondu ezker
zer inpernua senarrak!



a

b

c

d

e

STRAS
RICHTEL

TRAVEL
DURCH
MILITÄR
ORDNUNG
GROSSE
WILDE
GROSSE
WILDE
GROSSE
WILDE

ELF 2
GOLDF
SILBER
S ZUSCHN

3 Astean iru edo lau aldiz
geinak dira konfesatzen,
nere artean amaika bider
egoten naiz ni pensatzen
zer esatera apaizagana
orren maiz diraden joaten;
ta bereala zait gogoratzen:
mingaiña dute dantzatzen!

4 Neskazarretan badirade, bai
ondi bizi direnak,
baña oso gaizki oraiñ artean
bizitzen dira geienak;
jende guztia ikaratzen du
neskazarren izenak,
erne, mutillak, ez bada ezkondu
maiz izan zerbait dutena.

Joxeparen lagunek, bertso haien berri izan zutenean, Joxeparengana joan, eta Elizegiri erantzuteko eskatu zioten. Honela erantzun zuen Joxepak:

1 Ez nuben bada pentsamendurik
zuri bertsuak jartzeko,
bañan lagunak esan dirate
isillik ez egoteko;
motiborikan ez degu eman
zu orrela mintzatzeko,
ez diran gauzak esan dituzu,
miña da minberatzeko.

2 Ibaizabal'en sari txiki bat
irabazteagatikan,
gogora etorri zaizun guztiya
esan dezu gugatikan;
nik esan bear banu, munduban
zaude gaur guregatikan,
zu sendatzeko sendagarririk
etzan iñungo botikan.

3 Gu ernegatzen bizi gerala
senargairikanen ez ta,
nere lagunen artean beintzat
orrelakorikan ezta;
neri sinisten ez badirazu
etxian asi galdezka,
nik baño obeto emango dizu
Bizentak errespuesta.

4 Zure amigo batek esan du
neskazar onik eztela,
orren ederki gure gañean
egin dezute pastela;
pruebarik asko berak baditu
ori egiña eztela,
gure moduko persona ez da,
esango nuke bestela.

Joxepa Anttoni eta Enrike adiskide izanak ziren, baina euren adiskidetasuna kokolan jarri zen. Segituan jaso zuen Elizegiren aldetik erantzuna Joxepak, esanez «ofentsarik ez zen lekuan, ofentsa bat ikusi duzue». Orduan, beste hirugarren bat sartu zen jokoa: Ibaizabal bertsolaria, lehen aipaturiko Bilboko egunkariko editorea. Elizegiren alde mintzatu zen.

Denborarekin, gauzak baretu eta bere onera etorri ziren. Esan beharrik ez dago Joxepak bere burua eta lagunena defendatu besterik ez zuela egin; baina, beraren ikuspuntua hain aurrerakoia izanik garai haietarako, zenbait sektoretan ez zuten onartu.

Joxepa Anttonik bertsoan jarraitu zuen, Europa, bere fabrika, Magdalenako ermita edo Ama Birjina gaitzat hartuta. Minbiziak jota hil aurretik, hilabete batzuk lehenago komentuan sartzeraz zihoan Juliana bizilagunari egin zizkion bertsoak. Haiek bidalita hil zen Joxepa Anttoni, azkeneko xenpelartar bertsolaria.

MARI ZOZAIA

21

*Letra txikietan idatzitako
anckereria handiak*

Mari Zozia

Egilea: Arantxa Urbe Irazusta

Urtea: 2012

Ba omen da liburukote bat azalean HISTORIA izenburua daramana. Mundua mundu denetik, orriz orri, gertatutakoak jasotzen ditu: lurraldeen, herrien, pertsonen, asmakizunen, eta abarren berri daude han izkiriaturik. Ez denak letra-neurri eta lodiera beraz, ordea. Historiako liburuan idazteko ardura izan dutenek ahaztu egin dituzte, zenbaitetan, txikiak; batzuetan, zapaldutakoak; askotan, bidegabekeriak; eta, gehienetan, emakumeak.

Horregatik, liburukote horretako orri gehienak gerra handiz, konkistaz, gizon ospetsuz, erresuma aberats eta ahaltsuz eta garaitu ezinezko armadaz beteak daude, batez ere. Agintzen dutenek kontu handia izan dute, denboren hasieretatik, liburu horren idazkeraren nolakotasunean eta intentzioan.

Liburu horretan, euskaldunak ez gara existitzen ia. Are gutxiago euskaldunak eta emakumeak garenok. Gutxi dira, liburuak orri asko dituen arren, bertan agertzen diren emakumeak: emakumea izan eta Historiaren liburuan botereak lerro bat idatzi izateko, emakumeak egin beharreko txarra ikaragarria baita eta ñimiñoa ona.

Historiaren liburuan Errenteria-Oreretako Erdi Aroa bilatzen baduzu, itsasoari begira bizi zen herri harresitu bat topatuko duzu. Gure garaian ezagutu dugun Foru plazak bazuen kai garrantzitsu bat, eta herriko etxe askotako ateburuetako armarrietan itsasontziak eta itsasoa gogorarazten zuten irudiak zeuden zizelkatuta.

Garai hartako gure herrikideei buruz irakurriko duzu itsasgizon trebeak zirela eta ontzigile oparoak. Ikasiak eta kultura zutenak, berriz, elizgizon mordoska bat ziren. Eta non zeuden emakumeak? Bakar bat ere ez ote zen aipatzeko modukoa?





Garai hura garai ilun gisa gorde du historiak. Garaiko gertaera ilunenen artean, sorginak eta sorgin-ehiza aurkituko dituzu. Ehunka pertsona, haien artean emakumeak gehienak, sorgin izateaz akusatu zituzten, eta tratu beldurgarria pairatu zuten.

MARI ZOZAIA, HISTORIAK SORGINDUA

Sorgin gehienak Zugarramurdi aldekoak baziren ere, gure herriko lau emakume akusatu zituzten sorgin izateaz: Katalina Idiazabal, haren alaba Magdalena Aranederra, Magdalena Larreaigñiz eta Mari Zozaia. Lehen hirurentzat, atxilotzea eta komunikaziorik gabeko kartzela agindu zuen Inkisizioak.

Mari Zozaia 1530ean jaio zen. Hainbatekin egin zuten gisara –1.000 inguru–, sorgina zela esan zuten. Beste 52 lagunekin epaitu zuten, Valle Alvarado inkisidorearen aginduz, 1610ean, funtsik eta frogarik gabe. Haien kontrako argudioetan, gertaera fantastikoak, gertaezinak deskribatu zituzten. Marik, hain zuzen, deklarazio hau egin zuen tormentu ugari jasan ostean:

«Maria de Çocaya, de hedad de 80 años, dize que daua de comer a seis sapos suyos y de sus ahijados, y les açotaua y sacaua agua (...) Y dize que lleuaua el agua a los aque-larres para la echar de la olla comun».

«Dize que ultra de los aquelarres hordinarios, que se hazian de noche, tambien se hazian algunos de dia y solian ser una bez cada semana, cuando el demonio lo auisaua. Y entonces lleuaua consigo algunas bruxas y esta yba algunas bezes por el ayre, y otras bezes, despues de untada, se salia por la puerta principal de su casa a pie y la çerraua con llabe por fuera, y se yba con su rrueca, hilando, por disimular con las bezinas, hasta salir de la villa. Y quando se hallaua en parte que no le biese ninguno, se yba a los campos de Çamalbide que estan apartados grande rato de los caminos y sendas y mançanales (...) Y aunque algunas beçes acahesçia que pasaban por cerca de dicho prado algunas personas a sus labores y granjerias, esta y las demas bruxas las behian muy bien, aunque las que pasauan no las beyian a ellas. Y las bezes que auia lleuado rrueca por disimular, boluia algunas dellas por el ayre hasta junto la villa, y de alli se entrau a ella a pie y se yba hilando a su casa, como auia salido».

«Dize que siempre que yba al aquelarre, quedaua en su lugar un demonio en figura y cuerpo como el suyo en la cama, y estaua alli hasta que boluia (...) Y por esta rrazon no la an echado menos quando esta, en los aqularres, yba y benia dellos».

Inkisizioaren aurrean, Marik behin eta berriro ukatu zituen leporatutakoak. Logroñoeko kartzelan hil zen, eragindako torturengatik, 1610eko azaroko fede-aitortzaren aurretik. Hala ere, beraren hezurrez osatutako panpina bat erre zuten, beste 11 lagunekin batera, 30.000 lagun aurrean.

Bi urte geroago, Ofizio Santuaren Kontseilu Nagusiak epai haiek berraztertzea eskatu zuen: bazekiten sorginkeriaz akusatutako kasu gehienak –edo denak hobeto esanda– berritsukeria besterik ez zirela. Hauxe izan zen ebazpena: «*Considerando*

todo lo anterior con toda la atención cristiana que estuvo en mi poder, no hallé las menores indicaciones por las que inferir que se hubiera cometido un solo acto verdadero de brujería». Beranduegi.

Batez ere emakumeen aurkako bortizkeria izan zen sorgin-ehiza. Garai hartan, herriko gizon asko arrantzan, garraioan eta erregeren armadetan marinel ibiltzen ziren denbora luzean. Emakumeek bete zuten, ondorioz, haiek utzitako hutsunea. Sorginen kontu horren arrimuan, herri sinesmenetik eta errituetatik ezabatu zuten emakumeen egitekoa; elkarbizitzako antzinako sareak deuseztatu zituzten, bide batez. Boterea prestatzen ari zen ordena berrirako, Historiaren kontakizunaren jarraipenerako bidea garbitu zuten era horretara: batik bat emakumeek eutsitako gure imajinarioa eta jakinduria desagerrarazi zituzten, modernitatearen izenean.

Denok ez dugu berdin kontaktzen historia, ia kondaira bihurtu baita izatea nahi zuten baina izan ez zena, izan zena baina izatea nahi ez zutena, gertaerak osatuz edo ezabatuz. Historiaren liburukotearen orrien ertzean, Mari Zozaiarenak bezalako istorioak idazteko ardura hartu beharko dugu, ahantz ez dezagun botere harremanek sortu zituztela ankerkeria horiek: garaiak eta mendeak gainditu eta oraindik ere gure egunetan errepikatzen jarraitzen duten handien eta txikien, gizonen eta emakumeen, justizia interesatuaren eta benetako gertaeren arteko botere harremanek.

JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JU
IAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIA
AZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRA
GARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUG
CÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARC
JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JU
IAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIA
AZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRA
GARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGA
CÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARC
JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JU
IAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIA
AZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRA
GARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUG
CÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARC
JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JU
IAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIA
AZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRA
GARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUG
RCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGAR
AJULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA
LIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULI
IRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIR
ZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZU
ARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGAR
ÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA
ULIAIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JU
AIRAZUGARCÍA JULIAIRAZUGARCÍA JULIA

JULIA
IRAZU GARCÍA

29

*Una de aquellas
maestras pioneras*

Julia Irazu García


Egilea: Maite Ruiz de Azúa Lizaso

Saria: Emakumezkoei begirada onerari saria

Urtea: 2012

El presente escrito quiere reflejar las condiciones en que las mujeres de principios del siglo XX accedían a la educación, así como las escasas salidas profesionales y las dificultades que encontraron para poder ejercerlas. Para ello me he centrado en la persona de Julia Irazu García, que trabajó como maestra en las Escuelas de Viteri de Errenteria durante casi dos décadas, entre 1943 y 1962, año en el que se jubiló. La educación, la formación académica y el desempeño de las más variadas profesiones, todo eso que hoy en día nos parece tan accesible, tan normal y que tan por derecho nos corresponde, es algo que en gran parte le debemos a aquellas mujeres que años atrás dieron los pasos, a veces lentos pero firmes, para conseguir que así fuera. Mujeres que, hace alrededor de siglo y cuarto, gracias a un ambiente familiar propicio, a unas posibilidades económicas favorables e incluso gracias a las desfavorables, o tal vez solo por causa del azar, pudieron realizar estudios e iniciar un camino que llega hasta nuestros días: las maestras. La protagonista de este trabajo podría haber sido cualquiera de las docentes que impartieron clase en nuestra villa, pero a mí el destino me ha llevado a hablar de Julia Irazu. Que su reconocimiento sea el de todas esas maestras que fueron, son y serán.

Julia Irazu nació el 12 de abril del año 1892 en Elvillar, un pequeño pueblo de la Rioja alavesa, cuyos habitantes se dedicaban al cultivo de la vid, trigo, olivo y un poco a la ganadería. Fue la cuarta de los cinco hijos que tuvo el matrimonio formado por Norberto y Quirina. En un entorno rural y pobre, el trabajo doméstico y en el





campo eran en principio las perspectivas de futuro de esta niña; sin embargo, quiso la mala suerte (o buena, según se mire) que un carro la atropellara cuando aún no contaba dos años. A consecuencia de este accidente perdió casi toda la mano izquierda, de la que no le quedó sino el pulgar y un muñón. Los padres, preocupados entonces por el futuro incierto de Julia, decidieron proporcionarle los medios para ganarse la vida, de ahí que la enviaran a Viana, en régimen de internado, al centro de las Hijas de la Caridad, donde las monjas, además de un noviciado, en el que se encontraba su hermana Blasa, tres años mayor que ella, dirigían una escuela para hijas de campesinos y obreros humildes. Terminados los estudios iniciales, partió a Logroño, tan solo a 16 kilómetros de su pueblo natal. En esta ciudad vivió de pupila en casa de un maestro, a quien además del hospedaje, le abonaba las clases particulares que él impartía. Durante este período fue grande el sacrificio económico de sus padres. Aprobó el examen de acceso a la Escuela Normal de Magisterio, casi los únicos estudios que podía emprender una mujer de principios del XX, y de esta manera llegar a profesionalizarse y ganarse el sustento. Hay que señalar que las Escuelas Normales atraeron por este motivo a muchas hijas de las clases populares.

Al cabo de dos años concluyó los estudios y con dieciocho años se encontró con un título y un primer destino donde ejercer: la escuela rural de Aramaio. Asimismo, con este cargo se vio en la obligación de mantener la imagen que las rígidas normas morales de la época dictaban, según las cuales en una buena maestra se valoraba la conducta moral, el honor, la obediencia, el pudor, la discreción y el decoro, que exigía, entre otras cosas, que vistieran faldas largas (a cinco centímetros de los tobillos), y el pelo convenientemente recogido. Muchas fueron sus protestas y sus negativas a verse con ese aspecto que le robaba la juventud y le hacía parecer una mujer madura; mucho tuvo que insistir su hermana Gerarda para que dejara de lado esa actitud rebelde y asumiera su nueva condición. A esto añadiremos que las maestras estaban muy vigiladas por las autoridades, ya que fueron el primer grupo con una identidad femenina diferente, eran mujeres autónomas que viajaban a otros pueblos; si bien, a menudo, para evitar la censura social muchas lo hacían acompañadas. Esta fue la razón por la cual Quirina, para entonces ya viuda, acompañó a su hija a Aramaio y luego a su siguiente plaza en Mendijur; en este pueblo falleció la madre y conoció al que sería su marido, Francisco Ruiz de Azúa. Una nueva adjudicación de destino, aún soltera, la llevó a Ocón de Villafranca, en Burgos, y de aquí a Oiartzun, en 1925, en donde permaneció hasta 1943 a cargo de la escuela mixta del barrio de Ergoien.

Tal como ella, muchas fueron las maestras que llevaron su saber a las áreas rurales o a las zonas urbanas más humildes. Enseñaron a leer, escribir, doctrina cristiana, impartieron conocimientos de materias elementales, y a coser y bordar a las niñas, así como contenidos morales e ideológicos, contribuyeron al descenso del analfabetismo (concretamente, la población femenina a principios del XX presentaba un

índice de analfabetismo del 71%) y al aumento de escolarización de niños y niñas; además, como profesionales impulsaron a las mujeres al acceso a otros estudios y profesiones.

En el año 1943, por causas familiares, solicitó el traslado a Erreterria, se le concedió plaza en las Escuelas de Viteri, las únicas de carácter público que había en la villa. Es de imaginar que para ella el cambio sería notable. Acostumbrada como estaba a ámbitos rurales, escuelas mixtas, alumnos de edades diferentes, se encontró con un centro con una asistencia cercana a los 500 alumnos, divididos por sexo y edad, y un equipo de 7 maestras y 6 maestros. Desde un principio y hasta su jubilación, en 1962, se encargó de las alumnas de Primer Grado, dedicando las clases de la mañana a las diversas materias de la Enciclopedia, y la tarde a la enseñanza de labores.

Resulta curioso que todas las alumnas que pasaron por su aula indican que la recuerdan por su especial habilidad para ejecutar este tipo de actividad manual, y alaban sus magníficos trabajos de bordado, costura, punto... y lo remarco porque Julia, no solo tuvo que luchar para salir adelante en una etapa en la que las mujeres apenas accedían a la educación y tenían escasa presencia profesional, sino también porque tuvo que superar la pérdida de su mano izquierda para poder desenvolverse. Solo quiero añadir mi recuerdo y mi agradecimiento, pues ella, además de ser mi abuela, es una de las mujeres que hicieron posible que cien años después también yo me dedique a la docencia.

SORKUNDERUBIOANSOTEGISORKKUNSOR
ERUBIOANSOTEGISORKKUNSORKUNDE
SOTEGISORKKUNSORKUNDEUBIOANSOTE
RKUNSORKUNDEUBIOANSOTEGISORKKUN
KUNDEUBIOANSOTEGISORKKUNSORKUN
BIOANSOTEGISORKKUNSORKUNDEUBIOA
EGISORKKUNSORKUNDEUBIOANSOTEGIS
NSORKUNDEUBIOANSOTEGISORKKUNSO
DEUBIOANSOTEGISORKKUNSORKUNDE
NSOTEGISORKKUNSORKUNDEUBIOANSOT
ORKKUNSORKUNDEUBIOANSOTEGISORKK
RKUNDEUBIOANSOTEGISORKKUNSORKUN
UBIOANSOTEGISORKKUNSORKUNDEUBIO
OTEGISORKKUNSORKUNDEUBIOANSOTEC
KUNSORKUNDEUBIOANSOTEGISORKKUN
UNDEUBIOANSOTEGISORKKUNSORKUN
IOANSOTEGISORKKUNSORKUNDEUBIOAN
GISORKKUNSORKUNDEUBIOANSOTEGIS
NSORKUNDEUBIOANSOTEGISORKKUNSO
DEUBIOANSOTEGISORKKUNSORKUNDE
NSOTEGISORKKUNSORKUNDEUBIOANSOT
ORKKUNSORKUNDEUBIOANSOTEGISORKK
RKUNDEUBIOANSOTEGISORKKUNSORKUN
UBIOANSOTEGISORKKUNSORKUNDEUBIO
TEGISORKKUNSORKUNDEUBIOANSOTEGIS
UNSORKUNDEUBIOANSOTEGISORKKUNSO
NDEUBIOANSOTEGISORKKUNSORKUNDE
ANSOTEGISORKKUNSORKUNDEUBIOANSO

«**SORKUN**»

37

SORKUNDE RUBIO ANSOTEGI

Dena duna

Sorkunde Rubio Ansotegi «Sorkun»

Egilea: **Karmele Mitxelena Etxebeste**

Saria: Emakumezkoen begirada onenari saria

Urtea: 2012

Urtarrileko hotzarekin batera iritsi zen mundura, egutegiaren lehen-dabiziko orrialdeak 29a borobiltzen zuenean. Orduan egin zuen bere lehen kantua, bere lehen negar melodikoa. Izena ipini zionak nonbait antzeman zion jaioberri hari sortzaile handia izango zela, Sorkunde ipini baitzion, Sorkunde Rubio Ansotegi. Eta hala izan zen: gutxitan utzi dio sortzeari ordutik; ez zen isilik egoteko sortutako ahotsa izan. Etxekoentzat, Sorkun; lagunentzat, Sorkun; herrikoentzat, Sorkun; ezezagunentzat, Sorkun; eta munduarentzat, Sorkun.

Erreterian hazi zen, eta kalean hezi. Etxean ez zuen euskara ikasteko aukerarik izan, baina, nerabegarora iritsi orduko, euskaltegian izena eman zuen, kaleak ostu ziona AEKn berreskuratu nahian. Hala sortu zituen euskararekiko lehen lazoak, geroztik, estuago batzuetan, lasaiago besteetan, baina inoiz askatu ez dituenak.


1995. urtea zen agertoki gainera lehenengoz igo zenean. 17 urteko neskatila bat baino ez zen orduan, eta jada Kashbad taldeko abeslaria zen. Beraren ibilbide musikalaren hasiera izan zen, hasiera arrakastatsua, taldekideak ez ezik entzuleak ere liluraturik uzten baitzituen haren eztarritik irteten zen nota bakoitzak. Pixkanaka, herrian nahiz herritik kanpo, taldea ezagun egiten hasi zen; horren adibide garbia da denbora tarte laburrean hiru disko grabatu zituela. 1996an ikusi zuen argia lehenengoak, *Kashbad*, taldearen izen bera zeramanak. Berehala, urtebetera, bigarren diskoa kaleratu zuten, *Distantzia*, 1997a bikain amaituz. Eta, 1999an, *Hesiak* iritsi zen, hirugarren eta azken diskoa izango zena.

Fermin Muguruza Kashbad taldearen maketa entzun orduko maitemindu omen zen abeslariaren ahotsarekin. Negu Gorriak-en «Nire baitan daude biak» katurako ahotsak egiteko eskatu zion, baita hark enkargua bete ere. Beste askoren artean, Joxe Ripiau eta Flitter talde ezagunekin kolaborazio lan ugari eginez aritu zen. Fermin Muguruzak Kontrabandan koruak egiteko proposamena egin zionean ere ezin izan zion ezetzik eman, eta kontzertu eta disko askotan parte hartu zuen. Kontrabandarekin egindako birak berebiziko garrantzia izan zuen, orduan abiatu baitzuen bere bakarkako ibilbidearen prestakuntza. Ordura arte ahotsaz soilik arduratzen zen arren, bira hartan egindako bidaietan zehar bere lehen diskoa izango zenaren zenbait letra idazten hasi zen.

Zerbait benetan desio duenak lortzen duela diote, eta berak desiratu eta lortu egin zuen. 2002. urtea urte handia izan zen. Gizonezkoz betetako mundu batean, bere bakarkako lehen lana kaleratu zuen, *Onna* izenburupean. Japonieraz, emakume esan nahi omen du. *Onna* diskoa, eta ona diskoa. Gogorra, benetako rockaren sinonimoa, baina onna. Hiru urte geroago, 2005. urtean iritsi zen *Duna*, haren bakarkako bigarren lana. Haren hitzetan, basamortuko dunari ez ezik, *duena* hitzari egiten dio erreferentzia izenburuak. Musika elektronikoagoaren alde egin zuen apustu disko hartan. Betiko estilotik pixka bat urrundu zen arren, entzuleak gustora hartu zuen aldaketa. Azkenik, 2008an, *Sorkun & Vicepresidentes* kaleratu zuen, taldeko gidari bera zela. Kantu horietan, bere jarraitzaileei rock ohikoago bat eskaini zien, garai zaharrei men eginez.

Sei, sei dira guztira grabatutako diskoak; bada gutxiago egin duenik. Azkenaldian, bere abestirik ezagunenekin ari da lanean, abesti zaharrekin erreperitorio akustiko berri bat osatu nahian. Oraingo honetan, laguntzaile bat baino ez da izango musika, eta ahotsa bihurtuko da kantuen benetako protagonista nagusia. Soinu intimistago bat lortu nahi du, rock goxoago bat, baina rocka beti.

Sorkun ahots bat baino gehiago da: errenteriarren urguilua da, belaunaldi zahar nahiz berrien urguilua, etorkizunerako urguilua; *hi haizela heu* herriaren urguilua. Rocka, euskara, onna, ausardia, indarra; dena duna bakarra da munduan, eta Sorkun da hori, rock emakumetaren sortzailea. «Sortu, sortu, sortu» dio bere abesti batean; eta guk, «sortu, sortu, sortu» eskatzen diogu, entzuten jarraitu nahi duten belarrien gozamenerako.



PETRAIGARTUAGURIDIPETRAIGARTUAGUR
GURIDIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIGAR
GARTUAGURIDIPETRAIGARTUAGURIDIPET
IPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIGARTUAGU
AGURIDIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIGA
IGARTUAGURIDIPETRAIGARTUAGURIDIPE
DIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIGARTUAG
UAGURIDIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIG
AIGARTUAGURIDIPETRAIGARTUAGURIDIP
DIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIGARTUAG
UAGURIDIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIG
AIGARTUAGURIDIPETRAIGARTUAGURIDIP
DIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIGARTUAG
UAGURIDIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIG
AIGARTUAGURIDIPETRAIGARTUAGURIDIP
DIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIGARTUAG
UAGURIDIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIG
AIGARTUAGURIDIPETRAIGARTUAGURIDIP
DIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIGARTUAG
UAGURIDIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIG
AIGARTUAGURIDIPETRAIGARTUAGURIDIP
IDIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIGARTUA
TUAGURIDIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIG
RAIGARTUAGURIDIPETRAIGARTUAGURIDI
RIDIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIGARTU
RTUAGURIDIPETRAIGARTUAGURIDIPETRA
TRAIGARTUAGURIDIPETRAIGARTUAGURII
URIDIPETRAIGARTUAGURIDIPETRAIGART

PETRA

43

IGARTUA GURIDI

«*La Florista*»

Petra Igartua Guridi

Egilea: Jone Bereziartua Salamero

Urtea: 2012

Petra Igartua Guridi, Sebastian eta Juliaren alaba, Oñatin jaio zen, 1896ko urtarrilaren 30ean. Bizitza ia osoa Oreretan eman ondoren, 1979ko azaroaren 11n zendu zen, gure herrian.

Dagokigun txantxikua Berotegi baserrian bizi zen, Oñatin. Gazterik galdu zuen ama, eta aitta bigarren aldiz ezkondu zen. Aittak maiorazko batekin ezkondu nahi zuen alaba, eta Petrak, horretaz libratzeko, eskutitz faltsu bat idatzi zuen, Donostian zuen izeba batek idatzi izan balio bezala, Donostian lan egiteko kontaktua zuela esaten zuena. Aitak, sinestuta, izebarekin bizitzeko baimena eman zion. Izebak gaur egun Donostiako Udala den Kasinoan egiten zuen lan, eta erraztu egin zuen Petra etorri ahal izatea. Donostian bizi izan zen hasieran, harik eta kalean topatu zuen beste txantxikuar batek aipatu zion arte Errenteriako Biteri kaleko familia bat neskame bila zebilela. Horrela zapaldu zuen Petrak gure herri maitea.

Oreretan, Jose Eceizarekin ezkondu zen. Jose lantegira joaten zen bitartean, Petrak apopiloak hartzen zituen etxean, baita eskualdeko garai hartako jatetxeetan zerbitzari lanetan ibili ere, bankete handietan laguntzen. Baina Petra indarra galtzen ari zen gerritik behera, txikitan animalia batek jotako ostikoaren ondorioz aldaka mugitua zuelako, eta, gaizki sendatutako kolpe horren minbera, oztopo bihurtzen ari zen berarentzat. Ezkondu eta geroko lehen urteetan, bi ume ekarri zituen mundura. Lehena, neska, jaioberritan hil zitzaion, koitadua. Bigarrena mutila etorri zen. Harrezkero, behera egin zuen Petrak bere oinazean, eta, hogeita bost urteetatik

aurrera, ohetik altxatu gabe eman zuen bere denbora gehiena. Beheko kaleko hogeigarrenean bizi ziren.

«LA FLORISTA»REN HASTAPENAK

Beheko kaleko 20. zenbakiko logela izan zen bere tailerra hogeita hemeretzi urtean. 1934. urte aldera hasi zen artisau lanetan. Ogi mamiz egindako loretxoak egiten zituen, baita belarritakoak ere. Oreretako parrokiarako izan ziren haren lehendabiziko lanak.

Ogi mamia hartuta, eskuz lantzen zuen, buztina balitz bezala, eta lore orrien forma atera. Lore-buruak muntatu, eta lore orriak banan-banan margotzen zituen gero, hainbat tindagai mota erabiliz. Bere semeak inguruetako soroetatik jasotako adarrekin bukatzen zuen multzoa. Hala egiten zituen loreak eta sortak.

1936ko Gerra Zibila piztu zenean, Petraren artisau jarduera izugarri murriztu zen. Ogirik ez zegoen aldi hartan, ezin horrelako lorerik sortu. Ogi gutxi eta gose asko. Ogi mamia alde batera utzita, oihalak erabiltzeari ekin zion.

Imitazio ona lortzea helburu, egiazko loreak eman ziezazkiotela eskatzen zuen. Ebakidura zehatzen bitartez, lore-buruak mozten zituen, barrenak ezagutzeko, koloreak, lore orrien kopurua, lorezilak, zurtoinak eta abarren ñabardura oro ikusteko eta ikasteko.

Bitxilore, lili, txilin lore, kamelia, hortentsia, arrosa, krabelin, kala eta beste hainbat loreri begiratzetik ikasi zituen haien formak. Han eta hemen galdetuz, buruari emanez, berezko tonuak lortzeko margoak nahastuaz, loreen kolore bereko oihalak aukeratzuz eta goitizena «Tripatxiki» zuen lantegi mekaniko bateko langileak egindako altzairuzko erremintari esker ekin zion Petrak «naturalak oso» ziren lore hilezkorrak sortzeari.

LANTEGI BITXI HARTAKO PRODUKZIOA

Petrak ez zuen dendarik. Etxetik egiten zuen lana. Jakarako lorea edo *kanpestre* motako edo bestelako belarritakoak erostera hurbiltzen zitzaizkion herritarrez gain, jende diruduna ere joaten zitzaion. Donostiara uda ematera joaten zirenak Oreretara etortzen ziren lore bat erosteko aitzakian, Muranoko herrira kristal ona erostera joaten dena bezala. Gipuzkoako hiriburuko dendarik onenetan zeuden salgai haren produktuak.

Aipamen modura, Donostiako Elkano kaleko Mase Moda dendan, Beheko kaleko *faktorian* egindako jaunartze koroak saltzen zituzten. Mujika Ahizpak kapelategiko andreak Petrari eskatzen zizkion kapeletan itsasteko loreak. Parisetik ere jasotzen zituzten eskaerak, eta Balentziaga jostun handia ere bazen haren ohiko bezeroa.

Lantegi hartan, jaunartzerako diademak dozenaka egiten zituzten; bala-bala ateratzen ziren: alanbrezko egitura borobil bat hartuta, paper fin bat ezarri bueltan-bueltan, eta, gainera, gauza bera zetazko kordel batekin. Laranja arbolaren lorea



egiteko, lore orriak kontu handiz mozten zituzten, eta gelatinatan sartu, gogortu zitezten. Lore orriei forma emateko, Tripatxikik egindako altzairuzko bolak soplete batekin berotu, eta oihala lantzen zuten, lore orriak egiazkoen gorputza eta planta hartu arte. Lorea bere osotasunean muntatzen zuten gero, eta, amaitzeko, zetazko euskarriaren gainean itsasten zituzten, goma berezi batez. Horrela egiten ziren koroak.

Negozioaren nondik norakoetan Petra buru izan arren, langileak behar zituen lan eskerga aurrera eramateko. Langile finak eta trebeak, Petrak agintzen zuen maila betetzeko adina balio zutenak. Maritxu Beasain, Conchita Iburguren, Pilar Etxebeste eta aldizkako langileak urtetan aritu ziren soldatapeko. Carmen Trojaola Aramendi errainaren laguntza ere berebizikoa izan zuen, loregintzatik haratago. Izan ere, ezinbesteko makulua izan zen etxeko kontuetan eta etxekoen zaintzan.

Petraren izaerara bueltatuz, eskolan euskaraz hitz egiteagatik zigor eraztuna eta paretaren kontra begira askotan jarria izanagatik, eskola gutxi baina negoziota-rako begi fina zuen. Berak errealak, zentimoak, pezetak eta ogerlekoak zenbatzen zituen. Kapelak alokatzetik irabaziak ateratzerik bazegoela jabetu zenean, denetariako mota, oihal, kolore eta loredun kapelez betetako bitrina-armairu bat jarri zuen etxean. Aipat u beharra dago, nola behin, bere senide bati ezkontzeko kapela musu-truk egin, eta, ezkontza eguna pasatuta, berreskuratu zuen, kapelen bitrinan alokairuan jartzeko. Izaera praktikokoa omen...

Oso perfekzionista genuen Petra. Egiazko haziak ere erabiltzen zituen loreari benekotasun-itxura emateko. Bere buruan asmatutako loreak ere egin zituen, eta, lore bat egiterakoan, emaitza beraren gustukoa ez bazen, enpatxurik gabe bazter-tzen zuen.

PETRAREN OSPEA

—Horren ezaguna al zen Petra, Carmen? —nik.

—Bai, bai, *famosa* zen oso —dio gaurko egunean laurogeita lau urte dauzkan bere erraina Carmenek—. Nire etxetik gertu bizi zen, eta beti ezagutu izan genuen «La Florista» izenez, txikitatik —gaineratu du.

—Bai, bai, oso ezaguna zen —baieztatu du Bittorik, Carmen eta biok elkartu gaituen zubiak—. Ni akordatzen naiz, txikia nintzen hartan, nola nire izebekin pisura joaten nintzen belarritako *kanpestreak* erostera.

—To.

(Gaur egun seguruenik copyrighta izango luketen horiek lau lore txikiez osatuta-ko bitxia ziren: margarita, arrosa, «hori bat» eta *blue*. Klikarekin.)

—Blue?

—Bai blu-e.

—Ze graziosoa —pentsatu dut.

—*Las mustias* ere baziren. Arrosa ilunak, *tristiak*... —Bittorik.

—Eta uretan hazten diren beste horiek, nola dira... —Carmenek.

Krepe-satina, organdia, zeta eta halako oihalekin eraikitako erreinu horretan aritu zen Petra, ohean, hogeita hemeretzi urte luze. Bere eskuek buruak exijitzen zion goxotasuna galdu zuten arte.

—Gure erramintek ez dute gaur egungo oihaletarako balio —esan du Carmenek—. Akrilikoa ezin da berotu —gaineratu du, irribarre batez.

NEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACASAR
ARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACA
CASARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJII
JIKACASARESNEREMUJIKACASARESNEREM
EMUJIKACASARESNEREMUJIKACASARESNI
NEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACASAR
ARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACA
CASARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJII
JIKACASARESNEREMUJIKACASARESNEREM
EMUJIKACASARESNEREMUJIKACASARESNI
NEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACASAR
ARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIKAC
ACASARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJ
UJIKACASARESNEREMUJIKACASARESNERI
REMUJIKACASARESNEREMUJIKACASARES
ESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACAS
ASARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIK
IKACASARESNEREMUJIKACASARESNEREM
MUJIKACASARESNEREMUJIKACASARESNE

NEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACASAI
ARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACA
CASARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJII
JIKACASARESNEREMUJIKACASARESNEREM
EMUJIKACASARESNEREMUJIKACASARESNI
NEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACASAR
ARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACA
CASARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJII
JIKACASARESNEREMUJIKACASARESNEREM

ESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACAS
ASARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIK
KACASARESNEREMUJIKACASARESNEREMU
MUJIKACASARESNEREMUJIKACASARESNER
EREMUJIKACASARESNEREMUJIKACASARES
ESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACAS
ASARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIK
KACASARESNEREMUJIKACASARESNEREMU
MUJIKACASARESNEREMUJIKACASARESNER
EREMUJIKACASARESNEREMUJIKACASARES
ESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACAS
ASARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIK
IKACASARESNEREMUJIKACASARESNEREM
EMUJIKACASARESNEREMUJIKACASARES
NEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACAS
ARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIKAC
ACASARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJ
UJIKACASARESNEREMUJIKACASARESNER
REMUJIKACASARESNEREMUJIKACASARES
ESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACAS
ASARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIK
KACASARESNEREMUJIKACASARESNEREMU
MUJIKACASARESNEREMUJIKACASARESNER
EREMUJIKACASARESNEREMUJIKACASARES
ESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIKACAS
ASARESNEREMUJIKACASARESNEREMUJIK
KACASARESNEREMUJIKACASARESNEREMU
MUJIKACASARESNEREMUJIKACASARESNER

NERE

MUJIKACASARES

80 Urte bizi-bizi

Nere Mujika Casares

Egilea: Olatz Arozena Mujika

Saria: Emakumezkoei begirada onenari saria

Urtea: 2013

1933an jaio zen, Herrera-Altzan. Haurtzaroan, 1936ko Gerra Zibila eta 1939ko Mundu Gerra ezagutu zituen: gogoan ditu xomorrodun babak, eta ohe azpian ezkutatzen zirela hegazkinak pasatzen zirenean. Gaztetan, ikasle onazenez, eskolako maistrak gurasoei gomendioa emanik, Irakasle Ikasketak egin zituen. Ikasketak amaituta, moja eskola batean egin zituen lehen urratsak maistra edo *señorita* bezala. Bitartean, oposizioak prestatu zituen.

Oposizioak gainditu ondoren, Hernaniko Pagoaga auzoko eskola publikoan lanean jardun zuen. Eskola *unitaria* zen hura, auzoko haur guztiak gela batean biltzen dituen horietakoa. Hiru urte eman zituen han, larunbatetan ere lan eginez, orduan egin ohi zen bezala. Arratsaldeetan, eskola ondoren, dantza erakusten zien ikasleei, ordurako gustukoa baitzuen dantza. Nafarroako muga ondoan den Naparralde baserrian eman zioten aterpe hiru urte horietan.

Jaiotzez altzatarra bada ere, bizitzaz errenteriarra dela esan daiteke, hemen bizi izan baita ezkonduz geroztik; maiatzaren 12an, 54 urte izango dira errenteriaru zela. Hasieran Arozenaren emaztea bezala ezaguna bazen ere, gaur egun aski ezaguna da Nere Mujika Casares, bere izaera, lana eta konpromisoagatik.

Aurtengo maiatzean bete behar dituen 80 urteak ez ditu alferrik galdu. Euskarren eta euskal kulturaren bultzatzaile agertu izan da beti, zeren nork ez du *Hitzako* argazkietan ikusi euskal dantzak dantzatzen?, edo kantu jiran?, edo aurkezpenak egiten?, edota bertso batzuk kantatzen? Eskolan eman zituen urteetan ere, euskara, euskal kultura eta bertsolaritza sustatzen aritu zen etengabe. Gogoan izango

dute haren ikasle izandakoek. Txertatuko ahal zitzaien haiei ere zaletasun horretatik zerbait! Euskara izan du Nerek bere lanaren zutabe, eta euskaraz bizi izan da. Eta ilusio handiz eta burua harro duelarik eraman izan du bitan lekukoa Korrikan.

Baina bada Nereren bizitzan beste alderdi bat nabarmendu behar dena: emakume izaera eta berdintasunerako grina.

Ez ditu alferrik bost seme-alaba hazi eta, etxeko lanak egitetik aparte, senarraren altzari-dendan kontabilitate lanak egin. Ez dio alferrik andereño lanari berriz heldu, hogeitaz urteren ondoren, egoera zailen aurrean makurtu gabe. Nork ez du ezagun Biteri eskolatik, alde batetik bestera, puntako orduetan korrika egunero pasatzen zen emakume txiki eta arin hori? Nork ez du ikusi enkarguak eginik karga-karga eginda etxerako bidean?

Gure etxean, gure amak norberaren gaitasuna izan du irizpide nagusia, gure sexua kontuan izan gabe, berarentzat sexua ez baita muga bat izan; guztiek izan dugu gidabaimena ateratzeko aukera, karrera bat estudiatzeko edo etxe bat erosteko diru sarrera. Batzuetan, berdintasun hori muturreraino eraman izana ere izan du bekatu, anaia zaharrenak txistua gustukoa zuelako nik neuk ere ikasi behar izan bainuen.

Emakumearen eskubideak aldarrikatu ditu beti, eta 1980ko hamarkadan jaiotz gero beraren bizitza nola aldatuko zen amestu izan du behin baino gehiagotan. Ez du inoiz sinetsi pertsonen sexuan, aukeran baizik, eta hori zabaltzen jardun du etxean eta eskolan. Ez zion gaztetan alferrik bota ikaskide mutil bati 100 metroen desafioa, ez behintzat atzean geratzeko. Bortizkeria gogaikarri egiten zaio; ez du ulertzen gizakiaren zabarkeria, eta horregatik plazaratzen da bortxaketak edo esku-bideen urratzeak salatzen diren leku orotan.

Patxiku Zelaia emakume elkartean parte hartzen du, emakumeei dantza, pilatesa edo beste ekintza batzuk antolatzen lagunduz.

Beti Prest dantza taldeko kide izanik, biziki gozatzen du dantzan Erretereriako erromeria egunean. Imuntzio eta Belokitik hasita, Tapia eta Leturia, Kaxiano, Gozategi, Maider eta Itziar arte, trikitilari guztien doinuekin dantzatu da, zahar eta gazteekin. Dantzatu bakarrik ez; erretiroa hartu zuenetik, gogotsu ekin zion trikitia ikasteari, horixe izan baitu bere bizi osoan gustuko —inoiz ez da berandu!—. Eta kantu jiran noiznahi ateratzen da trikitia joaz.

Ez da adinaren beldur, eta gustura ibiltzen da zahar edo gazteen artean. Umorea du maite, eta ez da erraza hari ziria sartzea. Haren bizipozak ez du gutxi balio. Zerbait lortu nahi duenean, ahalegin guztia egiten du; lortuz gero, primeran, eta, lortzen ez badu, behintzat bere eskuan dagoen guztia egin duelako harro egongo da. Biziari mamia ateratzeko beti prest.

Erretereriara etorri zenean Arozenaren emazte bezala ezaguna bazen ere, orain, Arozena da Nere Mujikaren senarra, batzuentzat behintzat.

Emakume txiki handia gure Nere!



CARMENVALVERDECASASMARIAJOSEFAV
MARIAJOSEFAVALVERDECASASCARMENVA
ASASCARMENVALVERDECASASMARIAJOS
ASASMARIAJOSEFAVALVERDECASASCARM
DECASASCARMENVALVERDECASASMARIA
DECASASMARIAJOSEFAVALVERDECASASC
LVERDECASASCARMENVALVERDECASASM
VERDECASASMARIAJOSEFAVALVERDECASA
VALVERDECASASCARMENVALVERDECASAS
ALVERDECASASMARIAJOSEFAVALVERDEC
EFAVALVERDECASASCARMENVALVERDEC
ENVALVERDECASASMARIAJOSEFAVALVER
JOSEFAVALVERDECASASCARMENVALVERD
RMENVALVERDECASASMARIAJOSEFAVAL
RIAJOSEFAVALVERDECASASCARMENVALV
SCARMENVALVERDECASASMARIAJOSEFAV
MARIAJOSEFAVALVERDECASASCARMENVA
ASASCARMENVALVERDECASASMARIAJOSE
SASMARIAJOSEFAVALVERDECASASCARME
ECASASCARMENVALVERDECASASMARIAJ
CASASMARIAJOSEFAVALVERDECASASCAR
RDECASASCARMENVALVERDECASASMARI
DECASASMARIAJOSEFAVALVERDECASASC
VERDECASASCARMENVALVERDECASASMA
ERDECASASMARIAJOSEFAVALVERDECASA
ALVERDECASASCARMENVALVERDECASASI
LVERDECASASMARIAJOSEFAVALVERDECA
AVALVERDECASASCARMENVALVERDECASA

VALVERDE

57

AHIZPAK

*Piano partituretan
idatzitako bizitzak*

Carmen Valverde Casas eta Maria Josefa Valverde Casas «Pispo»

Egilea: **Goiatz Labandibar Arbelaitz**

Saria: Emakumezkoen begirada onenari saria

Urtea: 2013

CARMEN ETA PISPO VALVERDE AHIZPEK MUSIKAREN MUNDUAN IBILBIDE PROFESIONALA HASI ZUTEN XX. MENDE HASIERAN

X X. mendearen hasierako Erretereriako goi burgesiako familia batean jaio ziren Carmen (1905) eta Maria Josefa (1907) Valverde Casas. Gervasio Valverde eta Lola Casas irundarren alabak ziren. Bikoteak sei seme-alaba izan zituen, baina horietatik lau atera ziren aurrera: Carmen, Maria Josefa («Pispo», etxekoentzat), Santiago eta Antonio («Aialde» margolaria).

Inprentagile familia bateko seme, ezkondua Erretererian bizitzen jarri, eta Kapitaneena kaleko 8. zenbakian Valverde inprenta jarri zuten Gervasiok eta Lolak (1941 arte egon zen han, Donostiara aldatu arte). Inprenta-litografia eta paper-denda zeuden lokalaren gaineko bizitzan bizi zen familia.

Emakume jaio izanak ez zien aterik itxi Valverde ahizpei, ezta musikan karrera profesionalak egitea eragotzi ere. Ama, Lola, izaera handiko emakumea zen, eta alabentzako onena nahi zuen. «Hobetzeko eta bere burua gainditzeko grina zuen Lola Casasek», dakar gogora Lola Valverde historialariak. Lola Casasen biloba, eta Carmen eta Pispo Valverderen iloba da.





Lola Casas, 1920ko hamarkadaren hasieran alargunduta, senarraren inprentaren kargu egin zen, eta berak gidatu zuen Valverde inprenta. «Lola Casas oso klasikoa zen gure ikuspuntutik, baina bere garairako gauza aurrerakoiak egin zituen. Alabak nola hezi zituen ikustea besterik ez dago».

BIZITZA PARALELOAK

Erreterian alabek merezi zuten kalitatezko hezkuntzarik ez zegoela iritzita, Zumaiako mojen barnetegi batean ikasi zuten Carmenek eta Pispok. Udan itzultzen ziren Erreteriarra. Bi ahizpen bizimoduak oso paraleloak izan ziren lehendabiziko 25 bat urteetan.

Han izan zuten lehenengo kontaktua pianoarekin. Aitaren aldeko familian, musikarako zaletasun handia zegoen. Kide gehienek jotzen zuten tresnaren bat.

Erreteriarra itzulita hasi ziren serioski pianoa ikasten, Jose Maria Iraola bandako zuzendariarekin. Gero, Donostiako Kontserbatorioan egin zuten piano karrera. Segituan gailendu eta nabarmendu ziren biak. Pispok sari gehiago jaso arren, Carmen ere pianista fina zen.

PARISERA ETA MADRILERA, IKASKETAK OSATZEKO

1925ean, Donostiako Kontserbatorioan karrera bukatuta, bi ahizpak Parisera abiatu ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako beka banarekin, pianoko «birtuosismo» ikasketak egitera.

Handik, Madrilera joan ziren, ikasten jarraitzeko. Ikasle pentsio batean bizi ziren Espainiako hiriburuan, eta amak, Lolak, maiz egiten zien bisita. Alabek kanpoan ikasteko hautua hasieratik babestu zuen.

Pentsio hartan ezagutu zituzten gerora euren senarrak izango zirenak: Alejandro Miró katalana eta Alfonso Mantecón aragoiarra. Biak bide ingeniariaritzako ikasketak egiten ari ziren.

BIZIMODU HIRITAR ETA MODERNOA

Carmen eta Pispo Valverde ahizpen bizimodua, mende hasierako langileen Erreterian, erabat hiritarra zen. Herriko bizitzan ez zeuden batere integratuak.

Garai hartarako, oso bizimodu modernoak zuten. «Parisen eta Madrilan, emakume burujabeak ezagutu zituzten», dio Lola Valverde historialariak, «zentzu askotan, oso pentsamendu tradizionala zuten, baina euren bizimodua ez zen hala: erre egiten zuten, autoak gidatu, ilea *garçon* erara moztuta zeramaten...».

Euren lagunartea herriko goi mailako burgesiako alabek osatzen zuten: Hernandez ahizpek, Miguel Aranguren Papelera Españolako zuzendariaren alabak... Neska gazte haiek dantzara, ligatzera... Donostiara joaten ziren. Erraz topatuko zituzten Kurasaaleko Thé Dansanten, te bat hartuz eta dantzarako gonbitak onartuz.

NOR BERE BIDEA HARTZEN

Ezkondu zirenean hartu zuten bi ahizpen bizitzek norabide ezberdina. Carmen Mirórekin ezkondu zen 1920ko hamarkadaren bukaeran, eta bost seme-alaba izan zituen. Ezkondutakoan, pianoa jotzeari utzi zion, profesionalki bederen. «Bide klasikoagoa hartu zuen. Orduan, hala izaten zen: ezkondu eta lana utzi», dio ilobak.

Pispok, aldiz, piano karrerarekin jarraitu zuen. 1931n ezkondu zen, Manteconekin, eta seme bakarra izan zuen, Antonio. «Haren senarra irekiagoa zen. Emazteari utzi zion gustuko zuena egiten».

1936ko gerra ere oso modu ezberdinean bizi izan zuten bi ahizpek. Pisporen senarraren familia errepublikazalea zen, eta errepresio handia jasan zuten: senarra Argèles-sur-Mèrreko kontzentrazio esparrura eraman zuten. Emaztea haren bila joan, eta handik ateratzea lortu zuen («ziurrenik zaindariren bati ordainduta», dio Lola Valverdekin).

Carmenen senarra, berriz, falangista zen. «Carmeni berdin zitzaion. Ez zuen politikaz deus ulertzen».

PISPO ORGANISTA

1950eko hamarkadaren hasieran, Madrilen kokatuta, organoa jotzen ikasten hasi zen Pispo. Karrera osatu zuen, Jesus Guridi irakaslearekin. Haren ikasle kutuna eta laguntzailea zen. Denek uste zuten Madrilgo Kontserbatorioko katedradunaren postua berak hartuko zuela hura erretiratzean.

Katedra ateratzeko azterketak primeran egin zituen, baina, azkeneko momentuan, Carmen Polo Francisco Franco diktadorearen emaztearen laguna zen Jose Maria Mancha elizgizonari eman zioten postua. «Pispo asko haserretu zen, baina gaitasun handia zuen egoerei aurre egiteko». Kontzertuak ematen jarraitu zuen, Escuela Superior de Música Sagradan irakasle...

Ferraz kaleko pisu batean bizi zen Pispo, eta organoa jarri zuten jangela izanda-koan. Senarraren oparia izan zen. «Oso senar berezia zuen. Ziur nago erruz gustatzen zitzaiola emaztearen bizimodua», dio ilobak.

Lola Valverdekin iritiz, «seme bakarra izateak aukera eman zion musikara dedikatzeko. Maila ona mantentzeko, egunero sei-zazpi ordu eskaini behar dizkiozu pianoari. Hori bateraezina da etxeoandre bizimoduarekin, neskameak izan arren».

Zahartu zenean, organoa jotzeari utzi zion Pispok. Pianoa jotzen, baina, 93 urterekin hil zen arte jarraitu zuen. Carmen lehentxeago hil zen, 86 urterekin.

ARANTZAIDIAZABALGORROTXATEGIARANT
AZABALGORROTXATEGIARANTZAIDIAZABA
ROTXATEGIARANTZAIDIAZABALGORROTX
ARANTZAIDIAZABALGORROTXATEGIARANT
AZABALGORROTXATEGIARANTZAIDIAZABA
ROTXATEGIARANTZAIDIAZABALGORROTX
ARANTZAIDIAZABALGORROTXATEGIARANT
AZABALGORROTXATEGIARANTZAIDIAZABA
ROTXATEGIARANTZAIDIAZABALGORROTX
ARANTZAIDIAZABALGORROTXATEGIARANT
AZABALGORROTXATEGIARANTZAIDIAZABA
ROTXATEGIARANTZAIDIAZABALGORROTX
ARANTZAIDIAZABALGORROTXATEGIARANT
AZABALGORROTXATEGIARANTZAIDIAZABA
ROTXATEGIARANTZAIDIAZABALGORROTX
ARANTZAIDIAZABALGORROTXATEGIARANT

AZABALGORROTXATEGIARANTZAIDIAZABA
ROTXATEGIARANTZAIDIAZABALGORROTX
ARANTZAIDIAZABALGORROTXATEGIARANT
AZABALGORROTXATEGIARANTZAIDIAZABA
ROTXATEGIARANTZAIDIAZABALGORROTX
ARANTZAIDIAZABALGORROTXATEGIARANT

AZABALGORROTXATEGIARANTZAIDIAZABA
ROTXATEGIARANTZAIDIAZABALGORROTX
ARANTZAIDIAZABALGORROTXATEGIARANT

ARANTZA

65

IDIAZABAL GORROTXATEGI

Lehen andereñoa

Arantza Idiazabal Gorrotxategi

Egilea: Julian Albistur Aranburu

Urtea: 2013

Lehenengo ikastolak 1924an sortu eta 1936 arte Euskal Herrian zehar zabaltzen joan ziren; 1936an piztu eta 1939an amaitu zen Gerra Zibilak, ordea, etenaldi bat sortu zuen; baita errepresio bortitza ekarri ere ikastolen, euskararen eta euskal kulturaren aurka. Urte ilunak izan ziren gerraosteko haiek eta hurrengo hamarkadak, euskaldunontzat bereziki, Francok ezarritako diktadurapean.

Gure hizkuntzak eta kulturak, antzinakoak izan arren, ahozko transmisioaren bidez belaunaldiz belaunaldi iraun dute, Europako beste herrialdeetan ez bezala, baina bost axola zien Espainiako agintariei, amildegira eramatea baitzen euren helburua. Ezarritako diktadura zorrotzaren agindupean bizi beharra zegoen. Ikastolak, *sistemaren* aurkakoak zirenez, debekatuak zeuden, baita eskolan euskaraz hitz egitea ere, baserrietan jaiotako umeek gaztelaniaz jakin ez arren. Bazuten eredu azkar irakasteko, gaur egungo ikuspegitik oso *pedagogikoa* ez bada ere: makila dantzatzea.

Diktaturak, kalte handia eragin eta atzerapena ekarri bazuen ere, euskal konzientzia pizteko balio izan zuen, errepresioak erreakzioa sortzen baitu. Garai

hartan, 1947an hain zuzen, Elbira Zipitria kementsuak ikastola bat sortu zuen, Donostian. 1951tik, aurrera beste batzuk ere sortu ziren, emakume batzuen eraginez: Maria Dolores Goia, Jone Forkada, Karmele Esnal... Geroago, 1960ko hamarkadan hasi ziren herriz herri zabaltzen.

ORERETA IKASTOLAREN SORRERA

Errenterian (Xenpelarren herrian) ere baziren guraso euskaldun ausartak, gure hizkuntzarekin eta kulturarekin konprometituak, umeen ama hizkuntzan heztearen alde egin zutenak, hau da, Francok *ezarritako sistemaren* aurkako apustua, euren seme-alabek *betiko eskolara* eramatea errazago zen garai hartan. Guraso haiek eredu berri baten bila zebiltzan, ordea: euskalduna eta kalitatezkoa.

Euskaltzaletasuna, frankismoari aurre egiteko gogoa, gure kulturarekiko sentsibilitatea eta abar uztartu ziren proiektua gauzatzeko. Elizaren babesari, diktaduraren zirrikituak aprobetxatuz, ezinbesteko bihurtu zen. Horrela, talde txiki bat sortu, eta 1962an hasi ziren bilerak egiten, harik eta 1963an ikastola sortu zuten arte. Talde haren izugarritzko balentria izan zela esango genuke, frankismoa puri-purian zegoen garai hartan.

Arrisku handiko apustua zen ez bairik gabe, ez baitzegoen eredurik euskarazko heziketan. Egia da, arestian aipatu bezala, gerra aurretik ikastola batzuk abian jarri zirela, baina salbuespenak baino ez ziren. Bestalde, egoera politikoa aurkakoa izanda, guraso gehienentzat errazena euren haurrak espainiar ereduko eskoletara eramatea zen, ezarritakora.

Hasieran, *Errenderiko Ikastola* izendatu zuten; gero, **Orereta Ikastola**, herriaren antzinako sustraietara jo ondoren. Ikasle talde txikia bazen ere, irakasle baten beharra azkar ikusi zuten. Garai hartan, ikasketak gaztelania hutsean egiten ziren, maila guztietan, unibertsitatekoak barne. Beraz, haurrei ama hizkuntzan irakastea, ez zen nahikoa erdarazko irakasle tituluaren jabe izatea, euskalduna izatea ere derrigorrezkoa baitzen.

LEHEN ANDEREÑO

Arantza Idiazabal Gorrotxategi irakasle karrera bukatzen ari zen gaztearengana jo zuten, Bittor Idiazabal sortzaile taldeko alabarengana. Arantza Gaintzan jaio zen, 1945ean, ama irakaslea zuenez hara joan beharra izan baitzuen lanera, bere familiarekin. Ikasketak gaztelaniaz egin bazituen ere, etxean euskaraz bizi zen gaztea. Arantzak hitza eman zuen, eta, hasieran, Pio Etxeberria-enean, Santa Klaran, gaur egun Eguzki jatetxea dagoen eraikinean, borondatez utzitako gela antzeko batean, eskolak ematen hasi zen, hamalau bat haurrekin: Orereta Ikastolako **lehen andereño** bihurtu zen Arantza, 1963an.



ARANTZAREN IBILBIDEA ORERETA IKASTOLAN

Ikasketak bukatu zituenean, Karmele Esnalekin egin zituen praktikak. Karmelek ordurako eskarmentua bazuen ikastolaren munduan, eta Arantzak eskola emateko eredu berritzailea ezagutu zuen, eraginkorragoa, garai hartako sistema tradizionala baino aurrerakoiagoa.

Hasierak ia beti gogorrak izaten direnez, Orereta Ikastolarena ere hala izan zen. Beharrak eraginda, leku batetik bestera aldatzen ibili zen: Pionetik Madalen kaleko etxebizitza batera, gero Galtzarabordara, handik Aita Kaputxinoen komentura, ondoren Iztietako elizara. Leku horietatik pasatu eta gero iritsi zen Juan de Olazabaleko egoitzara, eta Orereta Ikastolak urte asko eman zituen han.

Ikastola handitzen eta indartzen zihoan heinean, herriko beste ikastetxeetan ere euskara sartzten hasi ziren pixkanaka, eta A ereduko talde batzuk B eredura pasatu zituzten. Geroago, D eredua sartu zuten.

Ikastolak Añabitartera salto egin zuen. Baserria erosi, eta 95.000 metro karratu inguruko eremuaren jabe egin ziren, hazkundeak ekarritako eskakizunei erantzuna emateko asmoz. Bazkideek euren poltsikoak xahutu beharra izan zuten, erakundeen laguntzarik gabeko inbertsio eta mailegu handitan sartuz.

Arantzak Orereta Ikastolan jarraitu zuen eskolak ematen, proiektuan buru-belarri murgilduta. Irakasle, zuzendari, Gida Batzordeko partaide eta beste mila lanetan.

Itzal handiko emakumea bihurtu zen: jantzia, langilea, zuzena, zorrotza, errespetatua, maitatua; miresmena sortzen duten horietakoa.

1999ko Kilometroak ekitaldian, Arantzak, Orereta Ikastolako lehen andereño bezala, zinta moztu zuen, ibilaldiari hasiera emanez. Ekitaldi hartan, bere lehenengo ikasleekin batera omendua izan zen.

MEREZITAKO JUBILAZIOA

Arantzak, aspalditik Oiartzunen bizi bada ere, Orereta Ikastolan izan du bere lantokia; beraz, Erreterian eman du bere bizitzaren zati handi bat, profesionalki irakaskuntzari lotuta. Belaunaldi asko pasatu dira haren eskuetatik, 42 urte Oreretan igaro ondoren 2005ean jubilatuta arte. Ondo merezitako erretiroa, lan bikaina egin baitzuen; mila esker, Arantza! Zorionak!

ORERETA IKASTOLAREN 50. URTEURRENA

Sortzaile talde txiki hartako partaideek 1963an hazia erein zutenean, ez zuten pentsatuko Orereta Ikastolak horrelako ibilbide oparoa egingo zuenik. Herritarrei kalitatezko irakaskuntza euskaraz eskaintzeko sortu zutenez, esan genezake bete-betean asmatu zutela, euren helburuak bete baitira. Herri honen euskalduntze prozesuan ere lan bikaina egin du, egiten dihardu oraindik ere, eta ildo beretik jarrai dezala urte askoan.

Berrogeita hamar urte igaro dira sorreratik, mende erdia, urteak oso azkar joan badira ere, ziztu bizian. Bi aldiz antolatu da Kilometroak, 1984an eta 1999an. Kalitateari dagokion Zilarrezko Q Saria jaso zuen 2003an, eta, gaur egun, Orereta Ikastola errealitate sendoa da, 1.400 ikasle eta 100 irakaslerekin, hartzaindegitik hasi eta 18 urte arte kalitatezko irakaskuntza eskaintzen duena, ondo kudeatuta eta ekonomia aldetik saneatuta. Herriko haurren matrikulazio-tasari begiratu besterik ez dago hori frogatzeko. Zorionak, Orereta Ikastola!

TXARO

73

PÉREZ DEL PECHO

Una carrera de fondo

Txaro Pérez del Pecho

Egilea: Txaro Pérez del Pecho

Saria: Emakumezkoen Begirada onenari Saria

Urtea: 2014

LA INSCRIPCIÓN Y ESTUDIOS EN UNA PROFESIÓN NADA CORRIENTE PARA LA ÉPOCA.

75

¿PREPARAD@S?

Me llamo Miren, estudié EGB en el colegio La Anunciata, y fue una sorpresa enorme cuando en el último día yo manifesté que quería estudiar Electrónica Industrial.

Vas a estar sola y si quieres estudiar eso tienes que hacerte amiga del chico «más duro», me decían algunas.

¿LIST@S?

Había que hacer un examen para entrar en el centro.


La administrativa me dijo: que tengas suerte, que yo sepa solo dos chicas lo han intentado y no lo han conseguido.

El caso es que hice el examen y me admitieron en el centro. Estaba en una nube, y me dijeron que era la primera mujer que entraba en la especialidad.

Ser la primera en realidad no significaba nada, tan solo había entrado, y ahora tocaba estudiar y aprobar, tenía por delante cinco años para terminar los estudios.

Cinco largos años...





¡YA!!

Primer día de clase

Miraba a mi alrededor buscando alguna chica que en el último momento se hubiera incorporado. No vi ninguna. Los demás chicos me miraban con curiosidad, sentía su rechazo. Probablemente esto se producía porque muchos creían hacerse más hombres con esos estudios, tal vez por el rechazo social que sin motivo nos hace emitir juicios. Frente a esos juicios estamos todos expuestos y nos corresponde a todos demostrar que no solo carecen de fundamento, sino que además, superarlos supone mejorar nuestra calidad de vida.

Cuando empecé a escuchar comentarios sexistas comprendí que me había tocado a mí demostrar que no tienen ningún fundamento.

Me tocó demostrarlo, como quien debe demostrar su inocencia, teniendo una sentencia de culpabilidad predeterminada.

En el Antiguo Oeste a eso se le llamaba «linchamiento». Muchos sacaban su lado más salvaje, desquitándose y humillando a su víctima. Sí, eso que hemos visto en las pelis. Como se suele decir: la realidad supera la ficción.

En gimnasia, no había vestuario femenino, yo utilizaba el vestuario del árbitro.

En esta asignatura es donde más sentí la diferencia. Evidentemente, no tenía la misma fuerza física que ellos, y algunos aprovechaban estos momentos para desquitarse aún más.

Como quien golpea por la espalda, o como quien te dispara por detrás. Incluso en el salvaje Oeste había reglas de honor, y a los que cometían ese tipo de agresiones se les llamaba COBARDES.

No me perdonaron una en esta asignatura, ni siquiera el profe, que me obligó a repetir todas las pruebas. Al parecer no superaba mis marcas y él no disculpaba a nadie.

Después, con el paso de los años, descubrí que el entrenador bajó la prueba de los 5000m a los 3000m para las chicas, viendo que exigía demasiado, pero esto ocurrió cuando yo ya había terminado todo y habían pasado al menos cinco años.

Pasados los dos primeros cursos fue mejor. En tercero se había renovado el alumnado en un cincuenta por ciento. En cuarto hubo quienes se marcharon a trabajar, otros también se retiraron, vinieron otros con estudios de bachillerato, por aquello de la convalidación. Finalmente llegamos a quinto treinta y cinco. No sé cuántos éramos de los originales que empezamos desde primero. Tiene importancia solo en cuanto al relato. Puede ser que fuésemos diez los que inicialmente entramos. Éramos los que realmente queríamos estudiar.

Y en junio del último curso, nuestro tutor entró en clase y dijo que solo seis personas habían aprobado todas las asignaturas. Dio la enhorabuena a los seis y nos dijo que iría leyendo los nombres y que desde ya podían salir de clase los afortunados. No tenían por qué escuchar lo que tenía que decir al resto.

Yo fui una de los seis, o, cinco más una. El caso es que salimos del aula, con la alegría de haberlo conseguido.

Antes de esa fecha, en privado, los profesores de las asignaturas de Tecnología me habían dado la enhorabuena, diciendo que había sido un ejemplo. Sí, esto me lo decían, incluso algunos varias veces. Lo que no había imaginado era que yo iba a ser una de las/los que aprobaron todo en junio.

Me fui de allí con la pena de no haber tenido una relación normal con mis compañeros. Confieso que algunos de ellos lo intentaron, incluso quisieron nombrarme delegada en el curso cuarto, algunos me propusieron un viaje de fin de estudios, pero aun cuando la relación era mucho más fluida que al principio, aún tenía restos de marcas en mis recuerdos que me impedían relajarme con ellos, al menos con todos.

Sé que algunas propuestas que recibí eran honestas e incluso de admiración por un puñado de mis compañeros, pero también sé que seguía sin poder fiarme de la mayoría.

Voy a terminar diciendo que todo aquello que pasó fue más en beneficio de ellos que de ellas, si queremos dar a alguien por vencedor. Porque no se trata de una competición de sexos, sino de encontrar una forma de relación equilibrada. La historia tampoco tiene un final feliz, ya que solo es un punto y seguido de todo lo que nos queda a todos por recorrer.

Creo que aporté mi granito de arena y lo hice lo mejor que supe, y lo sigo haciendo. Evidentemente cometería fallos, como no dar una oportunidad a aquellos de mis compañeros que sí se lo merecían. Entonces, no podía, lo siento.

Si me leen, sabrán quiénes son y, desde aquí, quiero decirles que nunca me olvidaré de sus palabras cariñosas e incluso de su admiración escondida. Hoy en día, después de veinticinco años, los recuerdo uno por uno.

Gracias.

MIRENMENDARTECASARESMIRENMENDA
IRENMENDARTECASARESMIRENMENDART
ENMENDARTECASARESMIRENMENDARTE
NMENDARTECASARESMIRENMENDARTECA
MENDARTECASARESMIRENMENDARTECA
ENDARTECASARESMIRENMENDARTECASAR
NDARTECASARESMIRENMENDARTECASAR
DARTECASARESMIRENMENDARTECASARE
ARTECASARESMIRENMENDARTECASARE
RTECASARESMIRENMENDARTECASARESM
ECASARESMIRENMENDARTECASARESMIR
ASARESMIRENMENDARTECASARESMIREN
SARESMIRENMENDARTECASARESMIRENM
RESMIRENMENDARTECASARESMIRENMEN
ESMIRENMENDARTECASARESMIRENMEN
MIRENMENDARTECASARESMIRENMENDA
IRENMENDARTECASARESMIRENMENDART
ENMENDARTECASARESMIRENMENDARTE
NMENDARTECASARESMIRENMENDARTECA
MENDARTECASARESMIRENMENDARTECA
ENDARTECASARESMIRENMENDARTECASAR
NDARTECASARESMIRENMENDARTECASAR
DARTECASARESMIRENMENDARTECASARE
ARTECASARESMIRENMENDARTECASARE
RTECASARESMIRENMENDARTECASARESM
ECASARESMIRENMENDARTECASARESMIR
ASARESMIRENMENDARTECASARESMIREN
ARESMIRENMENDARTECASARESMIRENME

MIREN

81

MENDARTE CASARES

*Atzoko gerra baten
gaurko ahotsa*

Miren Mendarte Casares

Egilea: Iñigo Legorburu Arregi

Urtea: 2014

Xenpelar bertsolari ezagunak gerrari jarri zizkion bertsoetatik hartu dugun esaldi famatua arestiko hori. Hark ere bizi izan zuelako gerra bat eta bazekielako gerrak soilik etsipena eta miseria ekar zezakeela.

Behin hori esanda, gerra batean herriak eta oro har gizarteak galtzen duela argi edukita, biktima guztiak berdinak al dira? Eta zer gertatzen da emakumeekin? Gizonezkoei historikoki frontera borrokatzera joateko «ausardia» eta «ohorea» onartu izan zaien bezala, emakumeak ahaztuta gelditu izan dira gehienetan.

Baina gizonik gabeko herri batek bere martxa eta bizimoduan aurrera egin behar du, eta lan neketsu horretaz arduratu ziren emakumeak. Tartean, etxeko haurrak, euskara, transmisioa... Horiek guztiak eta gehiago aurrera ateratzeko ardura izan dute emakumeek, baina ez zaie aitortua izan.

Horregatik, gerra bizi izan zuten emakumeen bizitzari buruz galdezka, Gerra Zibila pairatu behar izan zuen Miren Mendarterena jo dugu; izan ere, hark oraindik frexko-frexko gordetzen ditu garai hartako oroitzapenak.

Miren Mendarte Casares (1929) 7 urterekin harrapatu zuen Gerra Zibilak. 1936an egin zuen eztanda gerrak, baina ordurako giroa nola berotzen hasia zen gogoan dauka Mirenek. Etxeko balkoitik ikusten zituen Acción Nacionalista Vasca, sozialistak, CNT, PNV... eta beste hainbat ideologiatako jendea euren egunkariak saldu nahian. Erreterria ordurako eskualdeko erdigunea zen, eta Lezo, Pasaia, Gaintxurizketa edo Altzako jendea herrira etortzen zen erosketak egitera; jende nahasketa horrek giroa pil-pilean jartzea zekarren.

Gerra hasi zenean, karlistak eta falangistak talde berean bat eginik egon arren, Mirenen esanetan «karlistak izan ziren bidea ireki eta herria hartu zutenak». Hori gertatu aurretik, ordea, Agustinetan ezkertiarren tiroketa bati esker karlisten lehenengo saiakera zapuztu, eta atzera bota zuten. Mirenen hitzetan «horri eskerrak, herriko gizonezko askok ihes egiteko denbora irabazi zuten... bestela, auskalo zenbat eroriko ote ziren haien eskuetan!».

Mirenen aita, Serapio Mendarte, PNVko zinegotzia izan zen, eta, tropak herrian sartu zirenean, Mirenek eta haren familiak Bergarako hotel batera joan behar izan zuten ihesi, aita abertzalea izateak zekarren zigorra ekiditeko. Mirenek ondo gogoan du egun haiek «negar eta negar eginez» pasatu zituela. Oroimena oroimin bihurtzen da halakoetan, eta gizarte hura «goxotasunik gabeko garai bat bezala oroitzen dut; gizartea zatitua zegoen, eta, izan nintzen haurraren begietatik, gaiztakeria eta krudelkeria besterik ez nuen ikusi». Bergarako hotelaren ondoan ezteandarik egin ez zuen bonba bat gertu-gertutik ikusia da Miren bera.

Noizbait, ordea, iritsi zen arpilatzeetatik babestu eta haren bi izeba eta neska-meak zaintzen gelditu ziren etxera bueltatzeko garaia. Eta bizitza berri bati ekin zioten mendartetarren dendan, guztiek berriro lanari gogor ekinez, batez ere euren aitari afiliazio politikoarengatik jarri zioten 100.000 pezetako isuna ordaintzeko.

Kalean, berriz, Mirenek astakeria galantak ikusten jarraitu zuen: faxistek ilea moztan zieten emakumeei, umiliazioa bilatu nahian. Mirenen izeba bati purga bat jarri zioten, herriak barre egin zezan beraren lepotik.

Luze jo zuten gerrak eta ondorengo urteetako miseriak, pobreziak, ezinikusiek... Baina, hainbeste nahigaberen artean, Mirenek bere amaren hitzak dakartza gogora: «Senarra fusilatu zioten, izugarrizkoak pasarazi, isun ikaragarria jarri... Baina amak esaten zuen, kristau ikuspuntu batetik, kontrako aldean borrokatu ziren gazte haiek guztiak ez zirela gorrotatu behar, haiek ere euren modura mundu hobeago baten aldeko ameslariak zirelako».

Orain, emakume horiek guztiek euren aitortza izan dezaten soilik falta da.



AGUSTINA

87

OTAOLA ZAPIAIN

*Agustina raketista,
bizitza frontoiari emana*

Agustina Otaola Zapiain

Egilea: Ainhoa Palomo Zabala


Saria: Emakumezkoei begirada onenari saria

Urtea: 2015

Duela ez asko, lagun batek galdetu zidan ea banekien Euskal Herrian emakume raketistak izan zirela. Sekula halakorik entzun gabea nintzen. Ezagutzera eman gabeko altxor baten aurrean ba-geunde bezala ekin diogu biok gure eskualdeko berri jasotzeari, eta, ahoz ahokoa lagun, Errenteriako Agustina Otaola Zapiainen-gana iritsi gara.

Emakume raketisten kontua ezezaguna da gehienontzat, eta, libururen batean, pasarteren batean edo bideo txikiren batean jasota dagoen arren, ez dago islatuta, inondik inora, benetan izandako mugimendua. Pilota gorenean zegoen garaian, gizonetzko puntisten eskutik sartu ziren emakumeak pilota joko molde berrira. Errebotean erantzuteko frontoi moldatuetan, erraketa indartuak eta larruzko pilotak zituzten lanabes raketistek eguneroko partidetan. Ehunka emakume munduko hainbat txokotan aritzen ziren, batez ere gizonetzkoak begira zituztela; hasieran, euskal herritarrak ziren gehienak. Egoera horretan jokatu zuen Agustinak hama-bost urte zituenetik, Madrilen profesional egin zenetik.

Emakumeak etxean behar zuen garaian kokatu behar dugu. Familia zaintzea eta kasurik onenean etxetik gertu lan egitea zuten eginkizun derrigorrezkoa. Gizartean erabat finkatuta zeuden sexuaren araberako zereginak, eta gutxi ziren patuari ihes egiteko modua zuten emakumeak. Gutxi izan arren, emakume batzuek lortu zuten egoera iraultzea, eta halaxe izan zen Agustinaren kasua, aurretik sendian pilotariak izateak asko erraztu baitzion bidea; lau izeba raketista profesional zituen.





4



Errenteriako Beheko kaleko 3. zenbakian bizi zen Otaola Zapiain sendia, Batzoki frontoiaren alboan. Etxe azpiko sagardotegian sagardoa saltzen zuen amak, eta arrain postua zuten merkatuan. Zazpi senide ziren, eta anaia Txixorekin aritu zen hasiera hartan herriko frontoian; berehala, Madrila joan zen. Profesional orok goitizena behar zuen jokatzeko, eta Errenteriako orduko alkateak, Jose Imazek, eskatua zion herriarekin oroitzeko. Baina Frontón Madridedeko *intendentearen* aurrean ezin izan zuen hautatu, ez Txikita de Renteria ez eta Otaola ere; Agustina beharko zuen betiko. Izengoiti horrekin gazterik hasi, eta 41 urte bete arte jardun zuen raketista Madrilen, Bartzelonan eta Kuban, herritik kanpora beti. Mexikora joateko eskaintza ere birritan jaso zuen, baita kontratu onak sinatu ere, baina atzera egin zuen, ama ez kezkatzearren. Amaren esanak pisu handia izan du Otaolaren bizitzan. Gerora, urteak pilatu zitzaizkiola ikusita, pilotari izateari utzi zion. Bulegari izateaz gain, Karmelo Balda frontoian ere aritu zen, leihatilan.

Ehunka emakume pilotarik osatu zuten raketisten mugimendua. Estatistika batek dio 1943an 1.432 pilotari profesionaletik 734 raketistak zirela; erdiak baino gehiago emakumeak, hortaz. Esanguratsua da isilean geratu dela 1917-1980 urte bitartean emakumeak pilotan aritu izana. Gure artean bizirik daude batzuk; gehienak hil dira. Haietako asko euskal herritarrak izan arren, kanpoan jaso dute onespena eta mirresmena; hemen, berriz, isiltasuna eta bazterketa. Gurean, pilota munduko aginte makila gizonezkoen esku zegoen, eta kabaretaritzat hartzen zituzten. Hau da, pilota joko *noblean* ez zuten lekurik. Besteak beste, horregatik zaigu arrotz Otaolaren eta gainerako emakumeen kasua. Kanpoko egunkarietan ospea eta izena zuen Otaola aurrelari handiak. Horrela jasota geratu da betiko Madril aldeko egunkari zaharretan. Haren sake gogorak min handia egiten zuen, eta raketista onenen artean sailkatua izan zen, bere buruari garrantzia kendu nahi dion arren. Baina izango zen zerbait, sakearen muga atzeratzen ziotenerako, behin eta berriz, gero eta atzerago. Herrian eta Euskal Herrian, berririk ez, ia. Olatz Gonzalez Abrisketa antropologo eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak eginak ditu isiltasun gidatu orokor horren inguruko hausnarketak, zer pentsatua ematen dutenak.

Gipuzkoako raketisten eskoletan hasi, eta kanpora joan behar izaten zuten emakumeok. Batzuek kontratu onak lortzen zituzten. Otaolak 1960an Mexikon jokatzeke sinatutako kontratua 3.600 peso mexikarrekoa (17.280 pezeta) zen hilean; Errenteriako erdi mailako soldata halako lau. Aurretik, 1957an, Kuban jasotzen zuen soldata 30.000 pezetakoa zen. Kontuok ikusita, etxe batzuetan, raketista eskoletan ordaindu beharreko gastua inbertsioztat hartu zuten, etorkizunean alabak etxera diru sarrera oparoa ekarriko zuelakoan. Raketista askok oinarrizko soldata etxera bidaltzen zuten, eta kiniela jokoetan irabazitakoarekin bizirauten zuten. Halaxe egiten zuen Agustinak ere, ahal zuen gutzia amari bidaltzen baitzion. Otaolak ospea ez zuen bere mesederako soilik baliatu; frontoi bereko lagun raketisten alde egin izan zuen maiz. Behin, kide bati laguntzeko, nahikoa izan zuen greba mehatxua egitea.

Bazekien emakume raketisten borroka kantxaz gain ere egiten zela, eta horretan ahalegindu zen Agustina.

Otaola ez zen ezkondu, eta ez du seme-alabarik izan. Donostian bizi da, ahizparekin, eta iloba mordoa bueltaka duela. Irribarretsu dio elkar zaintzen dutela. Baina pena handi batekin bizi da, saiatu arren euskara bereganatu ez duelako. Nork daki 88 urteko emakume hau gure artean noiz arte izango dugun... Ehunka raketista izan ditugu Euskal Herrian, eta ezer gutxi dakigu haien bizipenez, ezerezaren pare ia. Gogorra da gurean gertatutakoa, hau da, Euskal Herrian pilotari sortu kanpoan jokatu behar izatea. Emakume horiek, momentu jakin batean Donostian eta Bilbon jokatu bazuten ere, ezin izan zuten hemen profesional gisa iraun; Otaolak ere ez.

Agustinari buruzko idatzi xume hau izan ote daiteke etorkizunean edozein etxetako liburutegian galdutako artikulu anekdotiko bat baino gehiago? Berreskuratzeko gai izango ote gara galtzear dugun emakume ausart haien historia etorkizun batean?

AVELINAJAUREGIATONDOAVELINAJAUREG
INAJAUREGIATONDOAVELINAJAUREGIAT
AUREGIATONDOAVELINAJAUREGIATOND
EGGIATONDOAVELINAJAUREGIATONDOAVI
TONDOAVELINAJAUREGIATONDOAVELIN
DOAVELINAJAUREGIATONDOAVELINAJAU
VELINAJAUREGIATONDOAVELINAJAUREG
INAJAUREGIATONDOAVELINAJAUREGIAT
AUREGIATONDOAVELINAJAUREGIATOND
EGGIATONDOAVELINAJAUREGIATONDOAVI
TONDOAVELINAJAUREGIATONDOAVELIN
DOAVELINAJAUREGIATONDOAVELINAJAU
VELINAJAUREGIATONDOAVELINAJAUREG
INAJAUREGIATONDOAVELINAJAUREGIAT
AUREGIATONDOAVELINAJAUREGIATOND
EGGIATONDOAVELINAJAUREGIATONDOAV
ATONDOAVELINAJAUREGIATONDOAVELIN
NDOAVELINAJAUREGIATONDOAVELINAJA
AVELINAJAUREGIATONDOAVELINAJAURE
LINAJAUREGIATONDOAVELINAJAUREGIA
AJAUREGIATONDOAVELINAJAUREGIATON
UREGIATONDOAVELINAJAUREGIATONDO
GIATONDOAVELINAJAUREGIATONDOAVE
TONDOAVELINAJAUREGIATONDOAVELIN
DOAVELINAJAUREGIATONDOAVELINAJAU
VELINAJAUREGIATONDOAVELINAJAUREG
INAJAUREGIATONDOAVELINAJAUREGIAT
AUREGIATONDOAVELINAJAUREGIATOND

AVELINA

95

JAUREGI ATONDO

*Emakumeak
Errenteriako udalgintzan*

Avelina Jauregi Atondo

Egilea: Goiatz Labandibar Arbelaitz

Urtea: 2015

1 979tik gaur egun arte, 49¹ aldiz bete du emakume batek zinegotzi kargua Errenteriako Udalean; zinegotzi guztien % 25 izan dira.

1979ko apirilaren 3an, Francisco Franco diktadorea hil ondorengo lehenengo udal hauteskundeak izan ziren. 36 urteko diktaturaren ondoren, lehenengo aldiz bozkatu ahal izan zuten errenteriarrek, eta, 18 egun geroago (apirilaren 20an), Udalbatza osatu zen: PSE-PSOeko sei zinegotzik, Herri Batasunako beste seik, EAJko bostek, Euskadiko Ezkerrako bik, ESEIko batek eta PCEko beste batek osatu zuten udalbatza.

21 zinegotzi horien artean, bakarra izan zen emakumezkoa: Avelina Jauregi Atondo sozialista. Hauteskunde zerrendei erreparatuz gero, emakume gutxi batzuk gehiago agertu ziren hautagai (PSE-PSOEn hiru, HBn bi, EAJn beste bi, ESEIn bi, PCEn bost, Euskadiko Ezkerran bost), baina guztiek zituzten oso aukera gutxi hautatuak izateko. Jauregik bakarrik zuen aukeratua izateko aukeraren bat, PSEko zerrendan bosgarren postuan baitzihoan.

Guztira, bederatzi legegintzaldi pasatu dira ordutik. 189 zinegotzi kargu (legegintzaldi bakoitzean, 21). Horien artean, 49 postu bete dituzte 34 emakumek (zinegotzi karguen % 25,9).

1 Datu hauek 2015 urte hasierakoak dira.

AVELINA JAUREGI, LEHENENGOA ETA URTE GEHIEN EGIN DITUENA

Avelina Jauregi Errenteriako Udaleko zinegotzi izan zen lau legegintzaldiz segidan (1979tik 1995era, 16 urtez). Gizarte Zerbitzuen eta Osasun arloaren arduradun izan zen, eta Gobernu Taldeko kide izan zen lehenengo emakumezkoa ere bai (1983-1987 legegintzaldian).

Oraingoz, beste emakumezko batek berdin du Jauregik Udalean zinegotzi gisa pasatutako urte kopurua: PPko Maria Angeles Bastosek, 1999az geroztik zinegotzi baita.

1983AN, BIGARRENA ETA HIRUGARRENA

Bigarren udal hauteskundeak 1983ko maiatzean izan ziren. Hil horren 23an osatu zen udalbatza berria, «demokrazia» garaiko bigarrena.

Avelina Jauregirekin batera, beste bi emakumek hartu zuten zinegotzi kargua: PSE-PSOeko Mari Carmen Ruiz Antonek eta Herri Batasunako Mertxe Usabiaga Ugaldek. Eurak izan ziren errenteriarrek euren ordezkari gisa aukeratutako bigarren eta hirugarren emakumeak.

ZERRENDABURU, GUTXITAN

Urte horietan guztietan, oso emakume gutxi izan dira zerrendaburu. Lehenengo Lorea Egaña izan zen, 1987-1991 legegintzaldian HBren zerrenda gidatu zuena. Geroztik, PPK, IUk eta EAJk izan dituzte emakumezkoak zerrendaburu (Lucía Peralta, Isabel Lopez Aulestia eta Maite Peña, hurrenez hurren).

Bitxikeria gisa, EAJko lehenengo emakume zinegotziak 2003an hartu zuen kargua: udal hauteskundeak egiten hasi eta 24 urtera.

Hasiera batean, emakumeari edo berdintasunari dagozkion gaiak Gizarte-Ongizate bideratu izan dira. Tratu txarrak jasaten dituzten emakumezkoek egindako erreferentzia zuzenak aurki daitezke legegintzaldi guztietan, Gizarte-Ongizate sailaren barruan. Azken legegintzaldian, pauso bat gehiago eman eta Berdintasun zinegotzia izendatu du Udalak: Garazi Lopez Etxezarretak du ardura hori.

AZKEN LEGEGINTZALDIA, EMAKUME GEHIEN DITUENA

2007tik (martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Berdintasun Legea deitua), gizon-emakumeen arteko parekidetasuna bermatzeko asmoz, Espainiako estatuko Berdintasun Legeak dio hauteskundeetara aurkezten diren zerrenda guztiek parekideak izan behar dutela: gutxienez zerrendaren % 40k emakumezkoek osatua izan behar du.

Azken legegintzaldia da orain arteko guztien artean emakume zinegotzi gehien izan dituen: 9. Lehenago, Errenteriako Udalak inoiz ez ditu zazpi zinegotzi emakume baino gehiago izan (1995-1999, 1999-2003 eta 2007-2011 legegintzaldietan).



Hala ere, Errenteriak oraindik ez du emakumezko alkaterik izan. 2015eko maiaztaren 24ean, udal hauteskundeak izango dira berriro. 2015-2019 legegintzaldian izango al da?

ERRENTERIAKO UDALEAN ZINEGOTZI IZAN DIREN EMAKUMEAK:

1979-1983 legegintzaldia:

- 1) Avelina Jauregi Atondo (PSE-EE)

1983-1987 legegintzaldia:

- 1) Avelina Jauregi Atondo (PSE-EE)
- 2) Mari Carmen Ruiz Anton (PSE-EE)
- 3) Mertxe Usabiaga Ugalde (HB)

1987-1991 legegintzaldia:

- 1) Avelina Jauregi Atondo (PSE-EE)
- 2) Lorea Egaña Haranburu (HB)
- 3) Arantxa Urbietta Erkizia (EA)

Legegintzaldian zehar, PSE-EEko Begoña Nietok kargua hartu zuen.

1991-1995 legegintzaldia:

- 1) Avelina Jauregi Atondo (PSE-EE)
- 2) Ana Isabel Oyarzabal Uriarte (PSE-EE)
- 3) Magdalena Martinez Martinez (HB)
- 4) Aurkene Astibia Legorburu (HB)
- 5) Rosario Alza Emeterreaga (EE)

1995-1999 legegintzaldia:

- 1) Ana Isabel Oyarzabal Uriarte (PSE-EE)
- 2) Gema Artola Olaziregi (PSE-EE)
- 3) M^a Angeles Machin Rodriguez (PSE-EE)
- 4) Aurkene Astibia Legorburu (HB)
- 5) Idoia Arbelaitz Villaquiran (HB)
- 6) Concepción Gironza Olaguibel (PP)
- 7) Isabel Lopez Aulestia (IU)

1999-2003 legegintzaldia:

- 1) Gema Artola Olaziregi (PSE-EE)
- 2) M^a Angeles Machin Rodriguez (PSE-EE)
- 3) Mar Martinez Fernandez (PSE-EE)

- 4) Ainara Lasa Perez (EH)
- 5) Leire Pikabea Almandoz (EH)
- 6) Lucia Peralta Rodriguez (PP)
- 7) Maria Angeles Bastos Fernandez (PP)

Legegintzaldi honetan, PSE-EEko Gema Insaustik Artolaren toki hartu zuen, eta EHko Begoña Garcia Garciak eta M^a Pilar Urkia Ezeizak Leire Pikabearen eta Gerardo Carrereren tokiak.

2003-2007 legegintzaldia:

- 1) Julia Hernandez Valles (PSE-EE)
- 2) M^a Mar Martinez Fernandez (PSE-EE)
- 3) Gema Insausti Marin (PSE-EE)
- 4) Maite Peña Lopez (EA)
- 5) Lucia Peralta Rodriguez (PP)
- 6) Maria Angeles Bastos Fernandez (PP)

Legegintzaldi honetan, Aukera plataforma legez kanporatu zuten. Jaso zituen botoen arabera, 3 zinegotzi izango zituzkeen. Horien artean, Ainara Lasa Perez.

2007-2011 legegintzaldia:

- 1) Maria del Mar Carrillo Gascon (PSE-EE)
- 2) Silvia Astorga Martinez (PSE-EE)
- 3) Itsasne Alvarez de Eulate Lasa (EAE-ANV)
- 4) Agus Cano Cereijo (EAE-ANV)
- 5) Maite Peña Lopez (EA)
- 6) Lucia Peralta Rodriguez (PP)
- 7) Maria Angeles Bastos Fernandez (PP)

2011-2015 legegintzaldia:

- 1) Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi (EH Bildu)
- 2) Alazne Korta Zulaika (EH Bildu)
- 3) Iruna Balenziaga Arrese (EH Bildu)
- 4) Maria Rodriguez Rodriguez (PSE-EE)
- 5) Maria Angeles Machin Rodriguez (PSE-EE)
- 6) Maria del Mar Carrillo Gascon (PSE-EE)
- 7) Maite Peña Lopez (EA)
- 8) Marta Barea Juaristi (EA)
- 9) Maria Angeles Bastos Fernandez (PP)

IXIARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUS
SELOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAGAI
BIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBUSSE
ARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSAB
LOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXIA
GAIIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBUSSELO
USSELOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAG
SABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBU
XIARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSA
ELOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXI
AGAIIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBUSSEL
BUSSELOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAG
USABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXIARB
AIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBUSSELOU
SSELOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAGAI
ABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBUS
IARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSAF
LOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXIA
GAIIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBUSSELO
USSELOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAG
ABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBUS
IARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSAF
LOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXIA
GAIIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBUSSELO
USSELOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAG
SABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBU
XIARBUSSELOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSA
ELOUSABIAGAIIXIARBUSSELOUSABIAGAIIXI

IXIAR

103

BUSSELO USABIAGA

*Txistuak emakumearen
izena hartu zuenekoa*

Ixiar Busselo Usabiaga

Egilea: **Ander Oiarbide Ruiz de Azua**

Saria: Emakumezkoen begirada onenari saria


Urtea: 2015

Azken urteotan, Erreterria herri aitzindari bihurtu da kultura bultzatzaile gisa. Igandero, txistulariak ikus ditzakegu kaleetan barrena, edota dantzariak hankak astintzen. Jada ohitu gara urtero-urtero muxikoez gozatzera, inauterietan Azeri Dantza ikustera, San Juan gauean suaren inguruan dantzariak eta txistulariak ikusi eta entzuztera, baina ekimen kultural horien atzetik urteak eta urteak lanean gogor aritu den jende asko dago, hots, Erreterriako txistulariak.

Ukaezina da Erreterrian txistularien tradizio luzea eta emankorra izan dela, eta herri honetatik txistulari asko atera direla, ateratzen ari direla, eta, nola ez, aterako direla. Denbora luze daramate gure herriko txistulariek jaiak alaitzen, dantzarietoi doinuak jartzen edota igande goizetan herria modu atseginean iratzartzen.

Erreterriako lehen txistularien aipamenak XIV. eta XV. mendeetakoak dira, gure herrira festa garaia zenean etortzen baitziren. XVI. mendetik aurrera, Udala txistulariak kontratatzen hasi zen, xede militarretarako eta festetarako. Baina lehen txistulari banda ofiziala 1926-1927 urteetan sortu zen, Alejandro Lizaso, Pedro Lizardi, Guillermo Lizaso eta Martin Goñi partaide zirela. Taldeak 1936 arte jardun zuen, Gerra Zibilarekin txistu talde gehienak (tartean gurea) desagertu egin baitziren.

1940an, txistularien banda birsortu zen, Ignacio Ubiria, Martin Rodriguez, Jose Calafel eta Luis Gabarainen eskutik. 1966an, Ereintzako txistu akademia sortu zuten Olegario eta Joxe Miguel Izagirrek, eta, 1980ko hamarkadan, Erreterria Musikal sortu zen. Aipatutako talde guztietan, eta Ereintzako txistularien akademiara iritsi





arte ez ditugu gizonaen izenak baino aurkituko. Ereintzarekin hasi omen ziren neskak txistua jotzen ikasten, ordura arte ez baitzen ohikoa. Taldetxo horretan, poliki-poliki izen bat nabarmentzen hasi zen. Musika munduan gero eta konpromiso handiagoak hartu zituen, eta, beste txistulari batzuekin batera, txistua bultzatu zuen, gogor lan eginez, Ixiar Busselo gure protagonistak.

Ixiar Busseloren izena aipatu bezain pronto, erreteriar gehienoi txistuaren hotsa datorkigu burura, ezen Ixiar instrumentu horrekin lotzea saihestezina da. Busselok Erreteriar txistularien harrobia bultzatu du, bereziki Erreteriar Musikaletik, hango irakaslea baita. Horrez gain, Ereintzako txistulari taldearen zuzendaria da 1985az geroztik, eta talde horretan berak inauguratu zuen emakumearen parte-hartzea areagotu egin da gaur egun. Gainera, berari esker finkatu da Erreteriar txistu tradizioa.

Ixiar Madalena kalean jaiotakoa da, eta txiki-txikitik txistuarekiko joera erakutsi zuen. Haurra zenean, etxeko balkoitik txaloak jotzen zizkien txistulariei, eta, koxkor-tu zenean, bere lehen melodiak jotzen hasi zen. Madalena kalea tabernaz josia zegoen, eta, Perico Lizardi han ibiltzen zenez, Ixiar txistua jotzen entzun zuen batean berekin jotzera eta ikastera gonbidatu zuen.

Beraren adineko jende asko hasi zen garai hartan txistuarekin, nahiz eta gehienak bidean geratu ziren. Artean ez zegoen emakume asko. Ereintzarekin kontaktua galdu gabe, Jose Inazio Ansorenaren ikaslea izan zen; Ixiarren hitzetan, asko ikasi zuen Ansorenarekin, bere partitura gehienak partekatzen baitzituen ikasleekin, eta horrela beren jotzeko gaitasuna handitu.

1980ko hamarkadaren hasieran, txistuko lehiaketetan parte hartu zuen, Izagirre anaiekin eta Joxe Usabiagarekin; esan daiteke erreteriarren jarduerak sekulako arrakasta lortu zuela. Lehiaketa gehienak irabazi zituztenez, Olegario Izagirrerren eta Ebaristo Goñiren laguntza azpimarragarriaz, oso esperientzia errentagarria izan zen hura, asko ikasi zutelako.

Garai berean, Ereintzako txistularien bandaren lana aipatu behar da, zeren aste-bururo boluntarioki ateratzen baitziren txistua jotzera. Txistuaren kultura bultzatzeko lan asko egiten zuten, bilera ugari eta sosik kobratu gabe. Erreteriarren lehen kontserbatorioa ere lortu zuten, beste musika taldeekin batera; Ixiar ere bazen talde horren partaide.

Herri lanak formazio musikalerako egoitza lortu zuenean, kontserbatorioan txistu irakasle postua atera zuen Ixiarrek. Berak dioenez, gustatu egiten zaio irakasle ari dela bere ikasleek txistua jotzen duten bitartean txistuaz gozatzea, instrumentu berezia baita, eta dibertitzeko aukera aparta.

1985ean, Ereintzako txistulari taldearen lehen zuzendari emakumea izan zen, eta beharbada horregatik hasi ziren neska gehiago sartzen Ereintzan. Horrez gain, Ixiarrek lan handia egin zuen garai batean galdutako edo jada jotzen ez ziren melodiak berreskuratzeko, eta, horrela, taldea aireberritu zuen. Hamarkada horretan bertan,

Pedro Lizardi hil zen. Heriotza hark Ereintza taldearen gainbehera eragin zuen arren, Ixiarrek taldea bere gain hartu eta gorenera eramatea lortu zuen. Ordutik hona, bai Erreterriako txistularien bandak eta baita Ereintzak ere eragin handia izan dute herriko historia kulturallean, eta Busselo da horren sustatzaile handienetakoa bat.

Gure protagonistak Erreterriako eta Ereintzako txistularien etorkizuna oparoa ikusten du, berak eta beste jende askok egindako lanaren fruituak biltzen ari baitira orain, hots, ikasle asko ditu txistua ikasi nahi dutenak. Hain zuzen ere, bere etorkizunerako proiektuetako bat (agian garrantzitsuena) txistularien bandak berriro jende gaztea prestatzea da, herri honetako txistu tradizioak, hainbeste lanekin sortu denak, iraun dezan.

Txistuaz gain, Ixiar Busselo Andra Mari abesbatzako partaide ere bada, eta, gainera, arduradun postuetako bat du abesbatzaren barruan. Beraz, txistuaren aitzindari izan den eta Erreterriako kulturaren bultzatzaile garrantzitsuenetakoa den emakume honi eskerrik beroena ematea besterik ez dago, Erreterria kulturala Ixiar Busseloren eta bera bezalako beste pertsona askoren fruitu gozoa da-eta, nahiz eta badakigun berari ez zaiola nabarmentzea gustatzen. Protagonismoa txistuari utzi, eta jendearen begiradak txistuaren hots gozoan geratzea nahiago du Ixiarrek, hots gozo hori sortzen duena bigarren planoan utzita.

MARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILA
ZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZ
ARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNE
MARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILA
ZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZ
ARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNE
MARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILA
ZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZ
ARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNE
MARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILA
GIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZM
GIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZC
ARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILAR
IMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMA
IMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGI
RÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARG
MÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMA
MÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIM
ÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGI
ÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍ
ÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉ
PILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIM
NEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍA
NEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉN
ILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉ

ARGIMÉNEZ GIMÉNEZ MARÍA PILARGIMÉNEZ
ZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPIL
ZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZ
ARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNE
ZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPIL
ZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZ
ARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNE
ZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPIL
ZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZ
ARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNE
ZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPIL
ZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZ
RGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZ
ARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARG
IMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZ
GIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZG
RÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARG
MÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZ
IMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGI
RÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGI
MÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMAR
MÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZMAR
APILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIM
NEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAP
ÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉ
PILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉ
NEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉNEZMARÍAP
NEZGIMÉNEZMARÍAPILARGIMÉNEZGIMÉN

MARÍA PILAR

GIMÉNEZ GIMÉNEZ

111

*Breve reseña de una
mujer errenteriarra*

María Pilar Giménez Giménez

Egilea: Jose Angel Prieto Giménez

Urtea: 2015

Esta es, o pretende ser, una breve historia de una mujer nacida en nuestra villa en 1928 y que, como tantas, ha pasado desapercibida para la gran Historia.

M^a Pilar, o Pili, como le llama la mayoría de las personas que la conocen, nació el 15 de mayo de 1928 en el tercer piso del número 7 de la calle Santa María, en pleno centro de Errenteria.


Hija de Matías y de Cipriana, ambos emigrantes venidos a Errenteria el año 1910, concretamente de la ciudad salmantina de Peñaranda de Bracamonte.

Este matrimonio, además de a M^a Pilar, tuvo dos hijas más, Laura y Leonor, siendo nuestra protagonista la más joven de las tres.

Hay que reseñar que sus padres se integraron rápidamente en Errenteria y en su vida social. No en vano, su padre fue concejal en el año 1924, representando a la Sociedad de Oficios Varios (dependiente de la Federación Local de Sociedades Obreras) y también fue dos años antes miembro de la Junta Directiva de la Liga de Inquilinos de Rentería.

M^a Pilar tuvo una infancia apacible, acudiendo a las escuelas públicas y jugando como otras tantas niñas y niños de su época.

Recuerda cómo su madre la reñía por ir a jugar fuera del Consejo (como le llamaban a la actual Herriko Plaza) y cómo se iban a lugares para ellas muy lejanos como podían ser la entonces Gabierrota o hasta la iglesia de las Agustinas.





Recuerda también ir hasta Olibet a por galletas, donde su padre trabajó hasta terminada la Guerra Civil (ya que no fue readmitido y tuvo que ganarse la vida como zapatero en la calle Medio).

También rememora aquellos días de su infancia y a los amigos de su padre. Entre los pocos nombres que todavía recuerda está el del profesor Miguel Irastorza, fusilado en el año 1936.

Llegada la Guerra Civil, ella y su hermana Leonor fueron evacuadas a Bilbao y de ahí embarcaron en un buque (cuyo nombre no recuerda) con una leyenda colgada al cuello donde se leía «Rusia». Pero este país no fue su destino, sino Bélgica.

En aquel momento contaba con ocho años. Hay que ponerse en la piel de aquellas niñas, con aquella edad, solas, sin conocer el idioma...

Concretamente, estuvo acogida en la localidad de Braine-Le-Comte, en casa del matrimonio formado por Joseph Martel y Gabrielle Locq. Joseph Martel era diputado en el Parlamento belga por el Partido Socialista.

De aquellos tiempos tiene unos buenísimos recuerdos y afirma que fue una de sus mejores épocas. Dejar una Erreterria en guerra, después de un viaje en barco a tierras desconocidas, encontrarse en una gran casa, con un gran jardín, era todo un lujo para aquella niña erreterriarra. Siempre cuenta la anécdota de aquel perro (Ricky) que tenían en casa, que la seguía a todas partes y que la cuidaba día y noche, y que durante una contienda electoral fue envenenado.

Su hermana Leonor estuvo acogida en la localidad de Soignies, y habitualmente se reunían, no perdiendo así el contacto entre ambas hermanas.

Tras la entrada de las tropas nazis en Bélgica fue repatriada a Erreterria. Pero, cuando vuelve a su pueblo, el panorama no podía ser más desolador. Su madre, Cipriana, se encontraba en la cárcel de Ondarreta, condenada a doce años y seis meses por rebelión contra las denominadas «tropas nacionales», y su padre no había sido readmitido en la fábrica galletera. Pero ante la adversidad hay que salir adelante. Su padre comenzó a trabajar como zapatero y las hijas ayudaban en casa, haciendo alpargatas para Casa Boni, justamente debajo de la casa donde nació.

Una vez excarcelada su madre y con un padre deseoso de que sus hijas «cogieran» cultura, comienza a estudiar en la Academia Mercantil Urtasun (en Pasaia). Como dice ella misma (y podemos corroborarlo) las matemáticas siempre le fueron bien.

Comienza a trabajar en la fábrica pasaitarra de Bianchi & Ibarrondo, primero en los talleres y finalmente en la oficina.

Deja el trabajo, por imperativo legal, al contraer matrimonio con su novio de siempre, el pasaitarra (de San Juan) Ambrosio, teniendo dos hijos (y ahora dos nietos).

Ella siempre ha llevado la batuta de la casa, organizándolo todo y para todos.

Mujer siempre inquieta y con ganas de hacer cosas, la casa no es suficiente para ella. Comienza a recibir clases de todo tipo en el antiguo centro social de Nazaret ubicado en Galtzaraborda. Ahí empieza a conocer a más gente y se despierta su interés por organizaciones de todo tipo.

Fue secretaria durante muchos años del Centro de Actividades Sociales de Alaberga (hoy Asociación de Vecinos), colaborando activamente en la organización de la tamborrada que durante todos estos años ha sido y es un referente en nuestras fiestas de Magdalenas.

Fue miembro del Consejo Escolar y de la Asociación de Padres de Alumnos del colegio público Cristóbal de Gamón, y después del instituto Koldo Mitxelena.

Como los años pasan, se vuelca en la consecución de mejoras para su barrio y entre ellas está la construcción de un club de jubilados. Fue secretaria y tesorera del club de jubilados de Alaberga, y finalmente presidenta.

Fue una gran organizadora de comidas de hermandad y de numerosas excursiones y viajes. Esta era otra de sus aficiones: viajar. Así conoce casi toda España, Roma, París, Lisboa, etc. Y en verano, primero a Santo Domingo de la Calzada, luego a la localidad valenciana de Cullera, hasta que finalmente optó por Benidorm.

Ahora, ya con 87 años y fallecido su marido, se dedica a pasear, ver la televisión, leer diariamente el periódico (nunca puede faltar en su casa) y disfrutar de sus nietos.

Antes de finalizar, no puedo olvidarme de una cosa que siempre dice. Para ella las Magdalenas tienen dos grandes e importantes momentos: la interpretación de «El Centenario» y la Salve en la ermita de la Magdalena.

Esta ha sido la breve historia de una pequeña mujer en estatura, pero de una gran mujer en hechos y acciones durante una vida plena e intensa.

XEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZU
BENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXE
LAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBE
SGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLA
TZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASG
XEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZU
BENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXE
LAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBE
SGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLA
TZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASG
ZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENT
ELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZ
UOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGE
EBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZU
ENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEB
AIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBEN
GELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAI
ZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASG
XEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZ
LBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZX
OLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELE
ASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOI
NTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEB
AIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENT
ELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZ
UOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGE
EBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZU
ENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEB

JOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGEL
BASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUO
NTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBA
AIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBEN
GELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZ
JOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGEL
BASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUO
NTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBA
AIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBEN
GELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZ
ZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASG
XEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZ
LBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZX
OLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGEL
ASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLA
NTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBA
ZXEBA
ELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZ
UOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGE

XEBAS

GELBENTZU OLAIZ

*Auzo baten nortasuna
eraikitzen*

EBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZU
BENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEB
LAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELB
SGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLA
ZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBAS
XEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZ
LBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZX
OLAIZXEBASGELBENTZUOLAIZXEBASGELB
ASGELBENTZUOLAIZXEBASGELBENTZUOL

Xebas Gelbentzu Olaiz

Egilea: **Iñaki Otegi Gelbentzu**

Saria: Emakumezkoei begirada onenari saria

Urtea: 2016

Xebasen istorioak Iztietia auzoarenarekin bat egiten du, eta Errenteriako azken 50 urteotako gizartearen bilakaeraren ispilu gisa agertzen zaigu.

Xebas gerra ondorenean jaioa da, Oiartzungo Gurutze auzoko baserri xume bateko maizter familia batean, Txipi-Berrin. Garai hartan, baserriko neska baten etorkizuna etxeko lan gogorretik ezkontzara zeraman bide estu bat besterik ez zen; bidean gal ez zitezen, hor zeuden frankismo garaiko *Escuela Nacional* delakoak, kristau dotrinak, bekatua, beldurra eta zigorrak.

1965. urtean iritsi zen Xebas Iztietia auzora, ezkonberritan, 22 urterekin. Egun pentsaezina zaigun arrazoinamenduari jarraituz jarri ziren bizitzen Irun kaleko etxean: «Etxeak lantokitik gertu behar du», esaten zuen haren senarra zenak. Ez zetozen urrundik, Oiartzundik, baina Errenteriako auzo berri hartara etortzea mundu berri batera sartzea izan zen berarentzat.

Auzoa eraikitzen ari ziren oraindik, eta berak bezalako bikote gaztez betetzen ari ziren hango etxeak. Langile auzoa zen. Guztiak ziren nonbaitetik etorriak; inguruko herrietako euskaldunak gutxi batzuk, eta gehiengoa Espainiako estatutik etorria.

Auzoa parrokiaren inguruan hasi zen egituratzen, eta San Jose eliza eraikitzeko dirua biltzea izan zen lehen erronka. Xebas ere parrokiako beharretan hasi zen laguntzen: katekesia, elizako jaiak... Ez zuen kontzientzia politiko handirik, baina gauza bat argi zuen: euskalduna zen, eta parrokia berrian euskaraz nahi zuen meza, baita katekesia eta jaunartzeak ere. Orduan bizi izan zituen Xebasek bere lehen gatazkak.





Frankismo garaia zen; erdal giroa zen nagusi, eta auzoko euskaldunak erdal uholdearen azpian itotzeko zorian zeuden.

Berehala jabetu zen egoeraz: katekesia euskaraz nahi bazuen, berak antolatu beharko zuen. Haur euskaldunak aurkitu, eta taldeak osatzeari ekin zion. Intuizio hutsez, soziolinguistikaren maisuek zenbait urte geroago formulatu zutena egiteari ekin zion: auzoko euskaldunen komunitatea egituratu, trinkotu eta eguneroko bizitzan ikusgarri egin.

Urte haietan antolatu zituen Iztieta Olentzero eta Santa Agedako koruak, eta bereziki mobilizatzen zen jende kopuruagatik garrantzitsuak izan ziren urtero presatzen zituen Haur Jaiak, karroza desfile eta guzti.

Urteen joanean, baserritik etorritako emakume gazte hura hiritartzen joan zen; mundu ikuskera aldatzen ari zitzaion, kezkak ugaritzen, eta kontzientzia pizten: emakumea zen, eta euskalduna. *Fomento Cultural*ean eta Igantzi kaleko emakumeen zentroan parte hartzen hasi zen. Alfabetatzeari ekin zion, Donostiako EUTGn, Euskaltzaindiaren D titulua lortzeko asmoz.

1980ko hamarkadaren bukaeran, droga-menpekotasunari eta urbanismoari lotutako arazoei aurre egiteko asmoa indartzen hasi zen Iztieta auzoko bizilagunen artean. Horrela sortu zen Gurekin auzo elkarte. Han zegoen Xebas; bera izendatu zuten lehendakari. Garai gatazkatsua izan zen. Beste auzoetako elkarteekin eta Askagintzarekin batera, narkotrafikoaren aurkako kanpainak eta egoera urbanistikoa hobetzeko saiakerak antolatu ziren.

Xebasek ez du sekula ahaztuko Diputazio Plazako *Hormaren* kontura bizi izan zituenak. Auzoa *Horma* egitearen aurka azaldu zen, eta, elkarretaratze ugari egin ondoren, *Hormaren* eraikuntza geldirik zegoen. Halako batean, lanegun batez, goizeko hamarrak aldera, langileak azaldu ziren, *Horma* bukatzeko asmoarekin. Xebasek, etxetik jaitsi, eta, lanak eragozteko asmoz, *Hormaren* zutabeei heldu zien. Ertzainak etorri ziren, ugari, baita bizilagunak bildu ere. Langileek alde egin, eta bat-bateko manifestazio bat antolatuta alkatearengana jo zuten bizilagunek. *Hormarik* ez zen sekula egin: garaipen txiki bat izan zen.

Auzo elkartearen gerizpean, San Tomas feria antolatzen aritu da orduz geroztik. Horren harira bururatu zitzaion, orain 25 urte, elkartearentzat dirua biltzeko taloak egiten hastea. Taloak egiteko abildaderik ez daukan arren, baditu beste dohain batzuk; beraren inguruan lanerako jendea biltzea, adibidez. Horrela osatu zuen auzoko emakumeekin talogile taldea, eta, geroztik, Oreretako hainbat jaitan taloak egiten eta ikastaroak ematen aritu da.

Emakumeentzako ekintza eta ikastaro ugari antolatu izan ditu auzoan; ikastaroak ematen ez bada, jantziak josten edo elkarte garbitzen, baina beti lanean.

Izaera bizikoa da Xebas, langilea eta alaia, beti katurako eta dantzarako prest. Berezkoa du nortasun indartsu hori; etxetik dator. Txipi-Berriko amona ere, Maria Pagola, horrelakoa zen, antzinatik datorren emakumeen arteko jakintzaren jabe

eta transmisioaren azken katebegia. XX. mendearen erdialdea arte, Gurutzeko haur guztiak haren eskutik jaiotzen ziren, emakumeengan konfiantza gehiago sortzen baitzuen Mariak herriko medikuak baino. Amonari laguntzen ibilitakoa da Xebas haurra zelarik.

Nortasun indartsu horrek berea –eta guztiona– defendatzera eraman du beti; berdin ertzain, alkate zein inspektoreen aurrean, gazte zelarik Irungo kaleetan esne partitzen ari zela marmita lurrera bota eta «*analízalo ahora*» esan zuenean egin zuen bezala.

Iztietara etorri zenetik, 60 urte baino gehiago pasatu dira. Gauzak asko aldatu dira: haren baserria zen Txipi-Berri bota dute, mundu baten amaieraren seinale, baina aldi berean Iztietara ere jada ez da berdina, euskaltasuna ez baitzaio arrotza. Bizilagun berriak iritsi dira, eta beste arazo batzuk suertatu dira auzoan. Urteetan Xebasek etorri berrien integrazioaren alde egindako lana eredutzat hartu beharko dugu etorkizunak ekarriko dizkigun erronkei aurre egiteko.

RUFINAMIKELARENAAYOROARUFINAMIKE
ROARUFINAMIKELARENAAYOROARUFINAM
AYOROARUFINAMIKELARENAAYOROARUF
ENAAYOROARUFINAMIKELARENAAYORO
LARENAAYOROARUFINAMIKELARENAAYO
IKELARENAAYOROARUFINAMIKELARENA
AMIKELARENAAYOROARUFINAMIKELAREN
FINAMIKELARENAAYOROARUFINAMIKELAI
RUFINAMIKELARENAAYOROARUFINAMIKE
OARUFINAMIKELARENAAYOROARUFINAMI
OROARUFINAMIKELARENAAYOROARUFINA
AAYOROARUFINAMIKELARENAAYOROARU
RENAAYOROARUFINAMIKELARENAAYORO
ELARENAAYOROARUFINAMIKELARENAAYO
MIKELARENAAYOROARUFINAMIKELARENA
INAMIKELARENAAYOROARUFINAMIKELAR
RUFINAMIKELARENAAYOROARUFINAMIKE
OARUFINAMIKELARENAAYOROARUFINAMI
OROARUFINAMIKELARENAAYOROARUFINA
AAYOROARUFINAMIKELARENAAYOROARU
RENAAYOROARUFINAMIKELARENAAYORO
ELARENAAYOROARUFINAMIKELARENAAYO
MIKELARENAAYOROARUFINAMIKELARENA
INAMIKELARENAAYOROARUFINAMIKELAR
RUFINAMIKELARENAAYOROARUFINAMIKE
OARUFINAMIKELARENAAYOROARUFINAMI
OROARUFINAMIKELARENAAYOROARUFINA
AAYOROARUFINAMIKELARENAAYOROARU

RUFINA

127

MIKELARENA AYOROA

Muga ondoko aterpe

Rufina Mikelarena Ayoroa

Egilea: Jon Maya Sein

Urtea: 2016


Rufina Mikelarena Ayoroa (1912-1958) gerra osteko miseriak ekarri zuen Erreteriarra. Nafarroako iparraldean bizi izan zen ordura arte. Lehenengo, Elgorriagako sortetxean; Iruritan ondoren; Iruñera nes-kame joan, eta, Felipe Maya ezagututakoan hura senartzat hartu, eta berriro ere Iruritarra itzuli zen.

Sorterritik gertu bizi zen bikotea, baina etxeko egoera ez zen eroso. Rufina-Felipe bikoteak hiru seme-alaba zituen (Jero, Martin eta Tomas), lanik ez, Gerra Zibila piztu berria... Langile berriak behar zirela-eta, Felipe Erreteriarako Jose Antonio Lasaren aroztegian hasi zen lanean orduan. Hiru herrikiderekin heldu zen Erreteriarra, eta apopilo bizi zen, Madalen kalean.

Familia, bi urtez, Erreterria eta Baztan artean gora eta behera aritu zen, 1939. urtean behin betiko Erreterrian erroak bota zituen arte. Hain zuzen, Rufina orduan finkatu zen Erreterrian, aurreko urteetan bisita ugari egin ostean. Lehenengo, Martin Etxeberria kalean, Viteri kalean geroxeago, eta, azkenik, Segundo Izpizua kalean egonkortu zen Mikelarena-Maya familia.

Urte haietan, etxeko egoera latza zen. Tomas eta Jero Mayak –Rufinaren seme-alabek– ez dute ahazten: «Egun askotan etxean ez zegoen jatekorik, gosea pasatzen genuen... Ahal zenean, frutaren azalak jaten genituen, azokara joaten ginen sobe-rakinak jasotzera... Miseria zegoen».

Rufina prestua zen oso, eta han-hemenka ziharduen lantxo baten, diru-iturri baten bila. Erreteriarako zein Donostiako etxe askotara joaten zen lanera; garbitzaile,





beti. Etxeak, atariak... «Miseria ordaintzen zioten», oroitzen dute haren seme-alabek. «Ahaldunak, orain bezala, premia egoera horretaz baliatzen ziren. Amak lan eskerga egiten zuen, ordu pilo bat, ezer gutxiren truke; lau sos ordaintzen zizkieten. Gu, aldiz, beti haren esperoa; irrikaz itxaroten genuen».

Testuinguru horretan, 1948. urtean, Rufinak dei bat jaso zuen. Iruritako Martinaren –beraren amaginarreba– lagun bat zen. Proposamen bat egin zion, «lantxo» bat eskainiz. Rufinari eskatu zion Espainiako lurraldeetatik heldu ziren iheslariei aterpe ematea eta muga igarotzen laguntzea.

Jero eta Tomas seme-alabek «lan» berriari buruzko informazio askorik ez zuten, baina etxean «mugimendu» bereziak oroitzen dituzte: «Lehenengo, gutunak iristen ziren etxera, asko. Handik gutxira, jendea iristen hasi zen».

Rufina goizean goiz ateratzen zen etxetik. Lezo-Gaintxurizketako tren geltokira joan, eta han jasotzen zituen *bisitariak*. «Batzuetan, gizonezkoak bakarrik ziren; beste batzuetan, familia osoak». Segundo Izpizuako lehenengo zenbaki horretan, egun bat edo bi egiten zituzten. Ondoren, Rufinak Baztanera laguntzen zien, Iruritarra zihoan lurrunezko trenean. Han amaitzen zen haren lana.

Rufinaren *bisitariak* Espainiako lurraldeetakoak eta Portugalgoak ziren. Haien etorreraren arrazoa ez zuten ezagutzen etxean. Baina, Josu Txueka historialariaren esanetan, motibo horiek askotarikoak izan ohi ziren: «Normalki, sare antolatutak ziren, eta hainbat erabilera ematen zitzairen. Batzuetan, erabilera politikoa zen, frankismotik ihesi zihoazenei laguntza emateko. Baina antolamendu hori kontrabandorako ere erabiltzen zen, edota legez kanpo herrialde batean sartu nahi zutenei zerbitzua emateko».

Hala, Tomasek gogoratzen du nola Portugaletik, Salamankatik edo Zamoratik iristen ziren *bisitariak* etxera. Frankismotik ihesi zihoazenak, Frantzia edo beste herrialdeetan lan eta etorkizun hobea bilatzen zutenak. Josu Txuekak dioen moduan, «gaur egungo etorkinen kasu bera da, antolakuntza formatu xumeago batekin».

Rufinak diskrezio osoz betetzen zuen lana. Baina *bisitariak* batzuetan agerian geratzen ziren; auzoan, susmoak hasi ziren. Jerok oroitzen du: «Gu lagunekin kalean jolasten geundela, leihora edo balkoira ateratzen ziren. Jendeak galdetzen zigun gure etxean zeuden horiek nor ziren, eta gu beti ixilik».

Bi urtetan jardun zuen Rufinak lan horretan, nonbait salatua izan zen arte. «Lehenengo, udaltzaina etorri zen etxera, gutun batekin. Deklaratzera joan zen. Baina, hurrengo txandan, Guardia Zibila etorri zen, gaeuz, eta ama atxilotuta eraman zuten». Irungo polizia etxean giltzapetu zuten. Oso bortitza izan zen han bizi izan zuena. Meliton Manzanasko polizia komisarioa buru zela, tortura izugarriak jasan zituen. Kolpeak, indarkeriaz beteriko galdeketa gogorak.... Leher eginda atera zen, hiruzpalau egun geroago. Martutenen sartu zuten preso. Sei hilabete egin zituen giltzapean.

Handik irtendakoan, ama izan zen berriro. 1951. urteko irailean, Juantxo seme gazteena jaio zen. Pozak gutxi iraun zuen, ordea. Rufina gaixotu egin zen; bularrean konkorr bat atera zitzaion. Minbizia zuen. Medikuek sendagaia eman zion, eta itzultzeko esan. Baina Rufinak ez zion inoiz lan egiteari utzi. Odol isuriek ere ez zuen etenik egiten. Azkenean, gaixotasunak Rufinaren kemena gainditu zuen. 46 urte zituela hil zen. Irakurtzen eta idazten ez zekien; soilik sinadura egiten ikasi zuen, espetxean. Baina habia goxo eta sendo bat eraikitzen ederki jakin zuen. Iheslari askoren laguntzaile izan zen; Segundo Izpizua kalea haien gotorleku bihurtu zuen, eta han landatu zituen familiaren haziak. Horren fruitu izan dira gero Marixabel, Begoña, Jon, Alain, Asier, Beñat, Mairi, Xalbat, Aide...

RITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIM
ATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZRITA
EZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARATE
ARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZR
NEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARA
ZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZ
MENEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKA
AAZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMEN
EJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZ
RITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIM
ATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZRITA
EZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARATE
ARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZR
NEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARA
ZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZ
MENEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKA
AAZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMEN
EJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZ
ITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIM
ATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZRIT
EZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARATE
ARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZR
NEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARAT
KARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZR
ENEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARA
ZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZ
MENEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKA
AAZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMEN

MENEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKAR
AZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMEN
JIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZK
TAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIME
TEJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAA
RITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJI
RATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZRIT
NEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARAT
KARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZ
MENEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKAR
AZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMEN
JIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZK
TAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIME
TEJIMENEZRITAAZKARATEJIME

RITA

AZKARATE JIMENEZ

Zu zarelako gara gu

AZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMEN
JIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZK
TAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJIME
TEJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAA
RITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARATEJI
RATEJIMENEZRITAAZKARATEJIMENEZRIT
NEZRITAAZKARATEJIMENEZRITAAZKARAT

Rita Azkarate Jimenez

Egilea: Miren Azkarate Badiola

Saria: Emakumezkoen begirada onenari saria

Urtea: 2016

Tik-tak... segundoak eta orduak erlojuetan... Tik-tak, tik-tak... egunak eta hilabeteak badoaz egutegietako orrietan... Tik-tak, tik-tak, tik-tak... urteak geldiezin aurrera, ihesbiderik gabe. Ezin dugu ekidin: sortu ginen bezala desagertuko gara. Baina oinordekook dugu arduragure nagusien ahotsak ixil ez daitezen, haien memoriak kandela piztu bat izaten jarraitu dezan. Asko dago kontatzeko, ezer ez ahazteko.

Oroitzapenak gordetzen baina oroimena marra fin batean, azalpenik ez duen «hau gogoratzen dut eta hau ez». Berandu baino lehen, testigantza eman, historia errepika ez dadin.

94 urte betetzera doan emakume zoragarri bat elkarrizketatzeko plazera izan dut. Asko bizi izandako emakumea, begietara begiratuta hitzik gabe dena esaten dizuten horietakoa. Gerra Zibila bizi izan zuen, eta haren ahotsa ez da itzali.

Rita Azkarate Jimenez 1922an jaio zen, Donostian. Datu hori orain gutxi jakin zuen, herentzia kontuak direla eta, bataioko papera aurkitu baitzuten erregistroan. Berak, aldiz, lehen oroitzapenak Erreterian ditu. 3 urte zituela joan zen hara, haren ama –Micaela Jimenez Urbieto erreteriarra–, aita –Bonifacio Azkarate Orbaiz elgoibartarra– eta anaiarekin –Estanislao Azkarate Jimenez– batera. Inoiz denbora luzez banaturik egon ez zen sendia.

14 urte zituela, Durangora joan ziren, aitaren lana zela-eta batera eta bestera ibiltzen zirelako, eta bai, $1922 + 14 = 1936$. Urte asko eta belaunaldi batzuk igaro diren arren, gazteongan oraindik zirrara hotz bat eragiten duen urte madarikatua. Gerra





Zibilaren hasiera. Orain arte, Ritaren begiek poza adierazten zuten, sendiaz mintzo zen bitartean. Orain, aldiz, begirada gogortu eta momentu jakinetan tristatu zaio, malkorik isuri ez duen arren.

Durango bonbardatu zuten egunean, Ritari eta Micaelari denbora eman zien etxeko satora jaisteko. Heriotza usaindu eta ia ukitu egin zuela dio, bere etxeko egongelako zoruan *in situ* ikusiko balitu bezala hilotzak. «Nik ere farmaziako langilea ikus dezaket», dio Ritak, haren erailketa nola izan zen kontatzen didan momentu berean...

Bere anaia maitea ia ere egun hartan nola erail zuten kontatzen hasi denean, bere ahots fin baina irmoarekin, oilo-ipurdia jarri zait. Testigantza bat izanik ere, zineman egongo banintz bezala da: hitzak dira, baina irudiak dirudite. Anaia lagun batzuekin frontoian jolasten ari omen zen, eta taberna bateko billarretara joan ziren. Frontoian geratu zirenei bizia erauzi zieten.

Egun hartan bertan, herrira egunero jaisten ziren baserritarretako batekin haren baserrira joan zen Rita. Micaelak ere bide hori hartu zuen, nahiz eta bidea nekeza izan. Eta ez naiz distantziaz ari; hegazkinez ari naiz. Goizeko sarraskiarekin nahikoa ez, eta arratsaldean bizirik geratu zirenak eta ihesari eman ziotenak bidean tirokatu zituzten. Micaelari, hegazkinak pasatzean, gizon batek esaten zion lurrean geldi geratzeko, mugimenduan zegoen edozeren aurka tirokatzen zutelako. Halaxe iritsi zen alaba zegoen baserrira.

Hango jabeen alaba txikia goizero hartzen zuen Ritak, eta Anbotoren magalean zegoen baserritik goiko kobetara eramanean, han hegazkinek ez baitzuten bonbarik jaurtitzen. Leku seguru baten bila, gerran hori posible bada. Kobak ezkutaleku eta babesleku nahikoak ez iruditu, eta barruan zegoen harkaitz baten atzean igarotzen zuten eguna, egunsentitik iluntzera arte. Beldurra hain zen muturrekoa, 16 urteko nerabeak ume txikiari behin eta berriz esaten baitzion: «Ez hitzik egin, entzun egingo gaituzte eta». Egunero egiten zuten ibilaldi hura, euria egiten zuenean izan ezik; halako egunak zoriontsuak ziren, euriarekin *kazak* ez baitziren ateratzen.

Egunak joan egunak etorri, Ritaren gurasoek Bilbora joatea erabaki zuten (aita ordua arte beste etxe batean zegoen gordeta, eta anaia boluntario gisa joan zen Durangoko bonbardaketaren egunean bertan, 17 urte zituela); alaba, aldiz, baserrian geratu zen. Handik gutxira, ordea, baserriko jabeari eskatu zioten alabari Bilbora laguntzeko. Halaxe, goiz batez, Rita eta baserriko jabea tren batera igo ziren, baina, destinora iritsi aurretik, Lemoan jaitsi ziren. Faxisten hegazkin bat trenaren gainean zeramaten, eta gizona ez zen fio. Lagunak zituen han, eta apopilo hartu zituzten, harik eta herri hura ere bonbek irentsi zuten arte.

Bilbora iritsitakoan, La Merced izeneko aterpean babestu ziren hiru senideak. Baina Bilbora ere iritsi ziren faxistak, eta handik Sopuertara mugitu zituzten. Hantxe izan zen amaiera: Euskal Herria faxisten esku zegoen; erresistentziak ez zuen gehiagorik iraun. Han, heriotzaz inguraturik, arrotzen menpe eta etsaien atzaparretan jakin

zuen anaia Santoñan zutela preso. Hango portuan hartu zuten atxilo, euskal gudariz beteta alde egingo zuen barkuaren zain.

Alabaina, erreketek bati bere garaian egindako mesede baten truke (esnea eman zioten berari eta beraren sendiari), Estanislao kartzelatik atera zuten.

Ritak eta Mikaelak ez zuten amore eman. Helburu jakin bat zuten: Erreneriara itzultzea. Horretarako, ibiltzeko baimen bat behar zuten, Bilbon bakarrik esleitzen zutena. Bi emakumeek egun bateko bidaia egin zuten Sopuertatik Bilbora, oinez, deskantsurik gabe. Micaelak oinak zauriz beteta amaitu zuen bidaia, baina paperak eskuan.

Erreneriara bueltan, zortea izan zuten, etxe batean sartzeko aukera izan baitzuten, askok eta askok ez bezala. Dena konfiskatuta eta jabez aldatuta itzuli ziren gehienek ez zuten ezer aurkitu.

1940. urteaz geroztik, gaur egun bizi den etxean bizi da Rita, Galtzarabordako Villa Isabelen.

Berehala jarri zen lanean jostun moduan, amari laguntzen. Ondoren, Niessenen zegoen orratz fabrika aritu zen urte batzuetan, Pasai Antxoko Alaska puntu tailerrera joan zen arte. Handik, Donostiara, beste puntu tailer batera. Pasaiako txapel fabrika batean hartu zuen erretiroa, 65 urterekin.

Rita ez da inoiz ezkondu, ez duelako nahi.

Borrokalaria, langilea eta errebeldea. Miresmen hitzak besterik ezin ditut izan nire izeba-amonaz.

Oreretako kandelak, gainontzekoen gisara, sekula itzal ez daitezten.

ARANTXAERRIONDOERTZIBENGOAARANT
ONDOERTZIBENGOAARANTXAERRIONDOE
NGOAAARANTXAERRIONDOERTZIBENGOAA
AERRIONDOERTZIBENGOAARANTXAERRIO
TZIBENGOAARANTXAERRIONDOERTZIBEN
ANTXAERRIONDOERTZIBENGOAARANTXA
DOERTZIBENGOAARANTXAERRIONDOERT
OAAARANTXAERRIONDOERTZIBENGOAARAN
RIONDOERTZIBENGOAARANTXAERRIONDO
BENGOAARANTXAERRIONDOERTZIBENGOA
XAERRIONDOERTZIBENGOAARANTXAERRI
RTZIBENGOAARANTXAERRIONDOERTZIBE
RANTXAERRIONDOERTZIBENGOAARANTX
NDOERTZIBENGOAARANTXAERRIONDOER
GOAARANTXAERRIONDOERTZIBENGOAAR
ERRIONDOERTZIBENGOAARANTXAERRION
ZIBENGOAARANTXAERRIONDOERTZIBENG
NTXAERRIONDOERTZIBENGOAARANTXAER
OERTZIBENGOAARANTXAERRIONDOERTZI

AARANTXAERRIONDOERTZIBENGOAARAN
IONDOERTZIBENGOAARANTXAERRIONDO
ENGOAARANTXAERRIONDOERTZIBENGOA
XAERRIONDOERTZIBENGOAARANTXAERRI
RTZIBENGOAARANTXAERRIONDOERTZIBE
RANTXAERRIONDOERTZIBENGOAARANTX

NDOERTZIBENGOAARANTXAERRIONDOER
GOAARANTXAERRIONDOERTZIBENGOAAR
RRIONDOERTZIBENGOAARANTXAERRION

ARANTXA

143

ERRIONDO ERTZIBENGOA

Euskararen hauspo

Arantxa Erriondo Ertzibengoa

Egilea: Axun Ertzibengoa Aizpiolea

Saria: Emakumeen begirada onenari saria

Urtea: 2017

Emakume nekaezina zen, alaia, tertulian aritzea gustatzen zaien horietakoa. Egoera zailen aurrean ez zen kikiltzen, ez horixe! Eta, ideiak argi izan arren, bazekien desberdin pentsatzen zutenei entzuten. Umetan ezagutu zuen gerra, ondoren erbestea eta errepresioaren ondorioak, baina beti aurrera egin zuen, etsi gabe, baita zahartzaroan parkinsona diagnostikatu ziotenean ere.

1925ean jaio zen, apirilaren 12an, Aberri Egun batez, Errenteriako Santxoenea kalean. Hijos de la Cruz ikastetxean egin zituen lehen ikasketak. Familia abertzalea izaki, 1936an, Gerra Zibila hasi zenean, aita gudariekin lerratu eta gerrara joan zen, eta, ondoren, hiru urte egin zituen preso. Gauzak horrela, Arantxa, hiru anai-arrebetan zaharrena izanik, gazte hasi zen lanean etxepean zuten Txoko tabernan.

Maitasunak eraginda, 1958an, bere bizimodua erabat aldatuko zuen erabakia hartu zuen. Patxi, senargaia, erbestean zen, arrazoi politikoak tarteko. Eta Arantxa ere, etxeko epeletik aldendu, hango erosotasuna eta egonkortasuna utzi, eta mugaz beste aldera joan zen, soinean zuenarekin. 1958ko apirilaren 12an ezkondu ziren, Biriatun, beraren urteurrenean.

Ondorengo 14 urteak latzak izan ziren: Frantziatik kanporatzeko arriskua, oinarrizko beharrak asetzeko sosik eza, eskubideen urratze etengabea, eta hizkuntza erabat arrotza. Souquet herrian errefuxiatu talde batek eginiko zurezko txabola izan zuten lehenengo bizileku. Segidan: Lesperon, Morcens, Soumoulou, Espoey eta Paue. Guztira 11 etxe pasatu zituzten. Baina maitasunak harriak mugitzen omen





ditu, eta, egoera gordina izanik ere, Arantxaren etxean ez zen afalosteko kantu saiorik eta barrerik falta. Hiru seme-alaba izan zituen: Sebas, Arantza eta Josu. Seme-alabek ez dute urte gogor haien oroitzapen tristerik. Etengabe etxez eta eskolaz aldatu behar izan zuten, eta ikasketak euskara ez zen hizkuntza arrotz batean egin; baina, hala ere, Arantxak jakin zuen hurrei poza, lasaitasuna eta ilusioa kutsatzen, eta une zailak jolasak bailiran aurkezten.

Egoera hark gainezka egin zuen Josu, seme gazteena, galtzearekin. Jaio eta hiru egunez amaren ondoan izan zen, osasuntsu. Baina erizain batek, ustez, garbitzeko eraman, eta ez zuten gehiago ikusi. Gertaera ilun horren gainean emandako azalpenek ez zuten familia ase inondik ere. Bat-batean meningitisak jo eta hil omen zen haurra, eta, kutsakorra zenez, Ospitaleak lehenbailehen lurperatu omen zuen. Ospitaletik atera eta hilobian lore sorta bat jartzera joan zirenean, ordea, ez zuten Josuren hilobirik aurkitu. Hobi komun batean lurperatu zutela esan zieten. Gertaera lazgarri hark Arantxarengan ireki zuen zauria ez zen inoiz itxi. Osasunez oso larri ibili zen ondorengo hilabeteetan. Azkenean, han etorkizunik ez zutela eta, itzultzea erabaki zuten, 1972ko apirilean. Hala ere, Josu oso presente egon da beti euren etxean. Egun, Arantxaren seme-alabak ikertzen ari dira; izan ere, zantzu argiak dituzte Josurena *haur lapurtuen* kasu bat izan zela pentsatzeko.

Frantziako bizipenek betiko aldatu zuten Arantxa. Pairatutako urraketek eta gizarte arrotz hartan bertakotu ezinak arrastoa utzi zioten pentsaeran eta jokamoldean. Bere herri kuttunera itzulita, sentsibilitate berezia erakutsi zuen etorkinei harreara egiteko garaian. Seme-alabak euskaraz heztea zen haren ilusioa, baina, Orereta Ikastolan tokirik ez, eta eskola publikora bidali zituen. Garai hartan ez zegoen D eredurik ikastetxe publikoetan. Hura komeria! Erbestean frantsesez, eta herrian gaztelaniaz ikasi behar izan zuten. Kolpe latza izan zen Arantxarentzat. Baina horrek begi bistan jarri zion hezkuntza arloan euskararen irakaskuntzan zegoen hutsunea, eta egoera hura konponbidean jartzeko lanean hasi zen, buru-belarri. Zalapartarik gabe, halakoa baitzen bera, baina segi eta segi, harik eta helburua lortu arte.

1980ko hamarkadan, industrializazioak eta immigrazioak eragin zuzena izan zuten euskararen atzerakadan. Arantxa Oiarso auzo elkartearen zebilen, eta hizkuntzaren problematikari ere heldu zion. Ikastetxeekin, Udalarekin, gainontzeko auzo elkarteekin, guztiekin hitz egin zuen. Batetik, auzo elkarteetan, eskola orduetatik kanpo euskara eskolak antolatzen hasi ziren. Bestetik, ikastetxeekin bilera ugari egin zituzten, hain beharrezkoa zen D eredia jar zezaten eskatzeko. Guraso elkarteetako kideak ere ez zituen ahaztu Arantxak; ahalegin handia egin zuen ulertarazteko garrantzitsua zela haien seme-alabak euskal gizartean txertatuko baziren hizkuntzaz jabetzea. Baina, hura guztia aurrera eramateko, Udalaren inplikazioa ere beharrezkoa zen. Hala, 1982an, Euskararako Batzordea sortu zen, Udalak eta herriko hainbat eragilek (EHE, euskaltegia, auzo elkarteak...) osatua. Eta lanari ekin zion. 1984an, auzo elkarte guztietan eskaini zituzten haurrentzako euskara eskolak.

Lau edo bost urtez antolatu zituzten, ikastetxe publikoetan D eredia ezarri arte, eta, urtero, 400-500 haurrek izena ematen zuten. Eskola haiek antolatzen aritu zen Arantxa urtea joan urtea etorri, beste batzuekin batera.

Indarrak euskara arloan jarri bazituen ere, Orereta herri dinamikoa da, eta beste hainbat kontu ez ziren oharkabean pasatu Arantxarentzat. Auzotarren kezkek, aldarrikapen sozialek, politikoez, presoen giza eskubideek, guztiek zuten tokia haren agendan, eta ahal zuen neurrian egiten zuen ekarpena. 1996an diagnostikatu zioten parkinsona; hala ere, urte batzuz jarraitu zuen herri mugimenduan lanean.

Ez zuen sekula pentsatuko egindako lanagatik esker onik jasoko zuenik, baina, 2003an, Korrikak egin zion errekonozimendua. Oraindik zutik ibiltzeko gai zen, eta pozik, irribarretsu ikusi genuen lekukoa eramanez seme-alaba eta biloben babesean. Lau Haizetara Euskaltzaleon Topaguneak ere Ohorezko Bazkide izendatu zuen. 2012ko maiatzaren 25ean zendu zen, orduan ere zalapartarik gabe, eta irribarre batekin, seguru, Patxi zain zuela pentsatuz.

Aspaldi eskatu zidan barruak Arantxaren historia kontatzea, aspaldi. Eta hauxe, haren ekarpenari nik jarritako hondar alea.

KONTXIURKIJOYANDUAGAKONTXIURKIJOY
NTXIURKIJOYANDUAGAKONTXIURKIJOYA
XIURKIJOYANDUAGAKONTXIURKIJOYANI
URKIJOYANDUAGAKONTXIURKIJOYANDU
KIJOYANDUAGAKONTXIURKIJOYANDUAG
JOYANDUAGAKONTXIURKIJOYANDUAGAK
YANDUAGAKONTXIURKIJOYANDUAGAKO
NDUAGAKONTXIURKIJOYANDUAGAKONT
DUAGAKONTXIURKIJOYANDUAGAKONTX
UAGAKONTXIURKIJOYANDUAGAKONTXIU
GAKONTXIURKIJOYANDUAGAKONTXIURK
KONTXIURKIJOYANDUAGAKONTXIURKIJO
NTXIURKIJOYANDUAGAKONTXIURKIJOYA
XIURKIJOYANDUAGAKONTXIURKIJOYANI
URKIJOYANDUAGAKONTXIURKIJOYANDU
KIJOYANDUAGAKONTXIURKIJOYANDUAG
JOYANDUAGAKONTXIURKIJOYANDUAGAK
YANDUAGAKONTXIURKIJOYANDUAGAKO
NDUAGAKONTXIURKIJOYANDUAGAKONT
DUAGAKONTXIURKIJOYANDUAGAKONTX
UAGAKONTXIURKIJOYANDUAGAKONTXIU
GAKONTXIURKIJOYANDUAGAKONTXIURK
KONTXIURKIJOYANDUAGAKONTXIURKIJO
NTXIURKIJOYANDUAGAKONTXIURKIJOYA
XIURKIJOYANDUAGAKONTXIURKIJOYANI
URKIJOYANDUAGAKONTXIURKIJOYANDU
KIJOYANDUAGAKONTXIURKIJOYANDUAG

KONTXI

151

URKIJO Y ANDUAGA

Esperantzaren mezularia

Kontxi Urkijo y Anduaga

Egilea: Iñigo Legorburu Arregi


Saria: Emakumeen begirada onenari saria

Urtea: 2017

María Concepción Urquijo y Anduaga 1929ko abenduaren 10ean munduratu zen, Viteri kaleko 27. zenbakian, «Niessen etxea» izenez ezagutzen zen eraikinean, eta, Guillermo Niessen enpresari ezagunaren hitzetan, han jaio zen lehenengo haurra izan zen. Haren gurasoak Eduardo eta Francisca izan ziren, eta beste lau anaia izan zituen aurretik, bera gaztetxoena izanik. Eduardo, Juan eta Ricardo anaiak, zoritxarrez, haien bizitzetako lehenengo urteetan hil ziren, eta Jaime, berriz, 64 urterekin zendu zen, Hendaian.

Artean 4 urte bete gabeak zituela, gogoan iltzatuak gelditu zaizkio 1933ko uholdeek Viteri kalea ibai erraldoi bihurtu zuteneko irudiak. Etorkizuneko balizko beste uholde batzuk ekiditeko asmoz, haren aitak egun Kaputxinos auzoko Versailles hotelaren ondoan dagoen Toki-alai etxea eraiki zuen. Herriaren goiko aldean kokatua dago, eta 4-5 urte zituela hara bizitzera joan ziren. Egun, oraindik hantxe bizi da Kontxi, bere 87 urte osasuntsuekin, burua oso argi.

Urte zorientsuak bizi izan zituen Kontxi txikiak, etxe inguruko baratze eta zelaie-tan jolasean. Tartean, gaur egun Cristobal Gamon eraikina dagoen lurretan, artasoroak nagusi ziren, eta, behin, han jolasten zebilela, zeruan bi hegazkin ikusi zituen, bata bestearen atzetik hegan, jolasean bezala. Beraren anaiak presaz eta garrasika atera zuen handik eta etxean sartu; izan ere, gerora jakin zuen bezala, bi hegazkin haiek euren artean tiroka ari ziren, batak bestea nork botako.





6 urte eta erdi zituela, gerrak eztanda egin zuen, eta haren aita eta anaia Jaime (azken hori Kontxi baino 21 urte zaharragoa, Rosa Luxemburg batailoiko burueta-ko bat izaten amaituko zuena) Bizkaiko frontean errepublikanoen alboan borroka egitera abiatu ziren. Altamiran, erreketek tiro egiteko prest zeuden, eta, urkijotarrren joera ideologikoen berri bazutenez, Kontxi bera eta hainbat senide Iparraldera bidaltzea erabaki zuten, segurtasun apur baten bila. Donibane Lohizunen, osaba aberats bat zain zeukaten (bi txofer eta hiru zerbitzari zituen), eta haren etxean hartu zuten ostatu. Kontxi, negar-malkotan, karabinero baten besoetan pasatu zuten mugaz bestaldera, senideak atzean uzteko penaz.

Han zegoela, Kontxik bizitza baldintzatu zion zerbait egin zuen: frantsesa ikasi. Mojen eskola zorrotz batean eta traumatikoki, une oro frantsesez hitz egitera behartu zuten, nahiz eta ezertxo ere jakin ez. Gaztelaniaz egindako galderarik ez zioten sekula ere erantzuten, baina, zalantza handiak izanda eta euskaraz formulatuz gero, bai, noizbehinka erantzuten zioten.

Gerra amaituta, 1939an bueltatu ziren urkijotarrak Erreteriarra, eta berriro hutsetik hasi. Gerra ostean, aita Frantziatik itzulungurua eginda iritsi zen herrira, eta bere betiko lantokian, Luzuriagan, lana ukatu zioten... Harik eta Victorio Luzuriaga nagusiarekin kalean topo egin, eta hark pertsonalki lanpostua bueltatu zion arte. Amari, berriz, ordura arte lagun izaniko batzuek agurra bera ere ukatu zioten eliz atarian.

Kontxik gaztelania galdua zuen erabat, eta, bizirik irauteko, hizkuntza berreskuratu beharrean ikusi zuen bere burua. Urte gogorak izan ziren urkijotarrentzat, «gorri» gisara markatu zituztelako, estigmatizatu. Kontxi zelatua sentitzen zen une oro, euren beheko solairuko bizilagunetatik hasita, eta, kalean, askotan galdetzen zioten: «Zer diote zure gurasoek? Zertan dabilta?». Halakoetan, isiltasunaren bidez erantzuten ikasi zuen. Errazionamendua ere oso gogorra zen, eta gosea bihurtu zen herri xehearentzat eguneroko ogia.

12-13 urterekin, Kontxi Irungo Komandantziara joaten hasi zen, oso maiz, *pase de frontera* delakoa eskatzera, Donibane Lohizunen zegoen anaia Jaimeri jatekoak, arropak eta informazioa helarazteko asmoz. Denborarekin, aduanetako mugalari onena bihurtu zen Kontxi. Topikoak hautsiz, mendietako bideei buruz ezertxo ere jakin gabe, Irun-Hendaia gunean espezialista bihurtu zen informazioa eta pertsonak pasatzeko garaian.

Mezulari lanak egin zituen, eta informazioa takoieta, arropetan, gona azpian eta mila lekutan pasatzen zizkion Frantziako erresistentziari. Horretaz gain, jende taldeen gidari lanak egin zituen, batez ere emakumeekin, erbestean zituzten senideei ondasunak bidaltzea xede zutenekin. Dotore janzteko agindu eta «nik esaten dudana egiten baduzue, pasatuko zarete» esanda, berak hartzen zuen ardura. Eta halaxe izaten zen normalean, behin izan ezik: teniente alemaniar batek, eskuetan Kontxiren dokumentazioa zuela eta diosal nazia egin ostean, gaztelania kaxkarrean galdegin zion «¿Ustedes están vascas o españolas?». Kontxik, izuak jota, «lo que las

autoridades digan, señor» erantzun zion, eta hark arrapostu: «¡Ustedes no están españolas; ustedes están vascas! La cuarta raza aria...». Zur eta lur oraindik, Kontxi eta besteei euren bideari jarraitzen utzi zien.

Mezulari lanetan jardun zuen bitartean, ez zuen sekula mezurik irakurri; izan ere, haren esanetan, «harrapatzen bazaituzte eta ezertxo ere ez badakizu, ezer ez duzu kontatuko». Gainera, jakitun zegoen mezu haietako asko hieroglifikotan eta zifratuak zihozela. Haren mezuek lehenik Iparraldera, gero Andorrara eta ondoren Europara eta mundu guztirako bidaiak egiten zituzten.

Horretaz gain, BBCren albistegiak frantsesetik itzultzen aritu zen, espreski aitarrentzat, gero bileretan-eta horri buruz hitz egiten zezaten. Erresistentziarentzat mekanografia lanak egiten jarraitu zuen, bere merkataritza ikasketak aitzakia hartuta, non eta... hangoek ezer ez zekitela, poliziaren idazkaritza nagusiaren egoitzan!

1968-69 urteak arte aritu zen jardunean, eta, urte haietan sindikatuak sortzen eta indartzen hasi zirenez, jada jardun politikoa beste modu batera egin zitekeen, eta Iparraldearekin informazioa trukatzeko premia ez zen hain larria. Beraz, ordura artekoari jarraituz, Zumardiko akademia batean eta etxean frantsesa irakasteari gogorki ekin zion, eta indarrak hezkuntza mundura bideratu zituen. Bera dugu, besteak beste, Errenteriako institutuko gurasoen elkartearen sortzaileetako bat.

Bere burua «ezkertiar eta errepublikazale» bezala definitzen du, eta ez da inoiz alderdi politiko batean afiliatua egon, politikaren gainetik ideologian eta ekintzetan sinesten duelako. Bere konpromisoa nondik datorren galdetuta, argi mintzo da: «Etxekoek, batez ere gurasoek eta anaia zaharrenak, asko markatu ninduten hasiera hartan. Baina, gero, eguneroko bizimoduan, faxistek eta goi-karguek zerabilten moral bikoitza ikusita, nire kabuz nire ideologia erabakitzeko gai izan nintzen».

Bidean, berak aitortzen duenez, bere bizitzako «adiskide, konplize eta pertsonarik onenarekin» ezkontzeko aukera izan zuen, Juan María Arrizabalagarekin; eta lau alaba eta bi semeren ama izan da. Belaunaldi berriek ere kultura eta hizkuntzekiko atxikimendua erakutsi dute, eta beraren seme-alabetako batek zazpi hizkuntza dakizki.

Historiako guda eta gerra garrantzitsuenetan, emakumeak bigarren lerroan aritu omen dira, eta isiltasuna eta aitortza-ezak injustiziarekin lerratu izan ditugu maiz, ez garelako gai izan beharrezkoa den oihartzunik emateko.

Kontxi Urkijorena bezalako testigantzek, ordea, lerro artean irakurtzen ikasi behar dugula adierazten digute.

KONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONTX
ZROYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYO
TXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRU
YOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKO
RUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZR
ONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONTX
ROYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYO
XIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUI
OKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKON
UIZROYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZR
ONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONTX
ROYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYO
TXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRU
YOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKO
RUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZ
KONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONT
IZROYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZRO
NTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONTXI
OYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOK

IRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZ
KONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONT
IZROYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZRO
NTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONTXI
OYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOK
IRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZ

KONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONT
IZROYOKONTXIRUIZROYOKONTXIRUIZRO
NTXIRUIZROYOKONTXIRUIZROYOKONTXI

KONTXI

159

RUIZ ROYO

*La guerra vista desde los
ojos de una niña*

Kontxi Ruiz Royo

Egilea: Iñigo Legorburu Arregi

Saria: Emakumeei begirada onenari Saria

Urtea: 2018

Nos han informado que en la Residencia de Ancianos Sagrado Corazón de Gabierrota, vive una mujer que ha sufrido los avatares de la guerra y que pese a ello, conserva una gran memoria. Así pues, aunque se encuentra convaleciente de una reciente operación de mano, a ella hemos acudido en busca de recuerdos lejanos y referencias históricas, con la intención de mantener una relajada charla y obtener viejos tesoros en forma de recuerdos, que son parte de la historia del pueblo de Errenteria.

Concepción Ruiz Royo, hija de Marina Royo y Policarpo Ruiz (alavés de nacimiento) y siendo la mayor entre 4 hermanos, nació un 15 de mayo de 1932, encima de la farmacia de Cobreros de la calle Viteri. Nos relata que, con apenas cuatro años, estalló la guerra, y es aquí cuando nos sorprende por primera vez, cuando casi disculpándose nos confiesa: *«no esperéis oír tristezas o calamidades de mi boca con respecto a la guerra, porque no me sentí especialmente infeliz en los años que duró aquella tragedia»*. Y seguidamente, sumida en una memoria prodigiosa, nos relata hechos de su niñez y de su juventud donde apenas se atisban las penurias que pasó aquella generación.

Hacia los 6 años, empieza a estudiar en la *Escuela de las Canarias*, al lado del Bar Maite, regentada por dos hermanas provenientes de la isla, llamadas señorita María y señorita Cecilia. Kontxi tiene buen recuerdo de aquellos años porque *«era muy buena con las matemáticas; sumar, restar, multiplicar... se me daba muy bien. Aun*

así, recuerdo la disciplina de la señorita María que, por nada que hiciera, me pellizcaba con fuerza en el carrillo». Le otorga especial relevancia a que, aunque chicos y chicas estudiaban por separado, algunas veces juntasen las aulas para conocerse entre sí. También estudió labores o artes, que eran las asignaturas de entonces. Se le ha quedado la espina clavada de no haber podido aprender euskera, ya que «no tuve esa suerte por el entorno en que me tocó vivir, pero desde siempre he escrito mi nombre en euskera porque representa lo que he querido ser y no he podido conseguir».

Durante el contexto de la guerra y seguramente motivado por ella, jugaban a *tumbas*, que consistía en que cada niño o niña escarbaba en la tierra y guardaba dentro de ella una canica o un cristal de colores. Kontxi nos relata que «después, unos a otros nos enseñábamos los tesoros enterrados y nos hacíamos amigos». También conserva muy vivo el recuerdo de cómo armaron una cuerda con la que columpiarse desde el árbol cercano a la zapatería que regentaba su padre, hacia el río Oiartzun, «muy peligroso, pero siendo niñas, aquello era todo una aventura...».

Por cercanía, ella y otras niñas eran muy asiduas a ir a ver las bodas que se celebraban en el restaurante *Panier Fleuri*, en el que Don Timoteo según las veía las reñía por venir a cotillear, y del que tenían que salir huyendo a toda prisa. Más adelante, ya con 10 años, su afición a las bodas la llevaría a olvidarse la comida en el fuego. «Recuerdo como si fuese hoy la tremenda bronca que me echó mi madre, por el despiste de ir a ver aquella boda a la iglesia de la Asunción» nos confiesa entre risas. También iban a comprar galletas recién horneadas y rotas (porque eran más baratas) a *Galletas Olibet*, donde recuerda que alguien les dejaba teclear la vieja máquina de escribir que allí poseían.

El domingo era el día preferido de Kontxi, ya que iban con bastante asiduidad al Cine Reina Victoria. Pero lo más mágico de ese día ocurría al salir del cine, «que es cuando escuchábamos las cuatro músicas a la vez que ambientaban el pueblo: el *Txun-txun*, la banda de música, la gramola y los txistularis. Era todo una invitación al baile y a la alegría».

Desde muy pequeña, la vida de Kontxi ha estado muy ligada al comercio. Como hemos dicho, su padre Policarpo regentó una zapatería pasado el puente del *Panier*, pero sería sobre todo en la tienda de su madre donde más le tocaría trabajar a la joven Kontxi. Este establecimiento de comestibles se encontraba en Casas Nuevas, en la calle Uranzu 1; y se decidieron a apostar por ella «con el afán de conseguir unos alimentos extra para casa. Eran tiempos de racionamiento y los que peor lo pasábamos éramos los que vivíamos en el mismo pueblo. Los baserritarras del entorno contaban por lo menos con sus huertas y sus cosechas con las que abastecerse... pero nosotros, los del pueblo, no teníamos ni eso. Incluso teníamos que esperar lo que nos traían los estraperlistas para poder abastecernos mínimamente». Recuerda con especial sorna aquellas patatas que le enviaron a su aita desde un terrenito suyo de



Álava, «con la mala suerte de que se desparramó gasolina encima del saco. Durante meses tuvimos que comer aquellas patatas con aquel sabor tan horrendo».

Para los 14 años, Kontxi ya había dejado de estudiar para pasar a hacerse cargo de las labores de su casa y de la educación de sus hermanos más pequeños. Como dice ella, «una mujer hecha y derecha pese a mi juventud, con un montón de responsabilidades sobre mi espalda». Era sobre todo cuando venían los víveres del racionamiento cuando más le tocaba arrimar el hombro a Kontxi. Su madre andaba mal de los riñones y cada vez que traían sacos de harina, azúcar, aceite u otro tipo de productos, a los trabajos de casa se le sumaban los de la tienda. En aquellos tiempos de miseria económica, los Ruiz-Royo eran gente generosa y fiaban a sus clientes la compra, hasta que estos obtenían el dinero para pagarles. Kontxi recuerda especialmente la amarga ironía con la que solía hablar su madre: «Hija mía, cuando no tienen dinero vienen a nuestra tienda para que les fiemos. En cambio, cuando acumulan algo de dinero en los bolsillos, van directos a comprar a otras tiendas porque saben que allí no les van a dar nada si no es con el dinero por delante».

Y así fueron pasando los crueles años de la guerra, a veces regados por la metralla que escupían las bombas que salían proyectadas desde los barcos de Donostia, con la intención de hacer blanco en Oiartzun.

Kontxi reconoce no haber sido muy consciente de ello, «porque en nuestra casa no teníamos ni idea de política y no hablábamos sobre ello. Con subsistir en el día a día, para nosotros era suficiente. Siempre te enterabas de que Fulanito había huido o de que la gente iba y venía, pero nosotros nos manteníamos ajenos a todo eso, trabajando sin cesar».

Ya a los 18 años, Kontxi comienza a bailar con hombres en la Alameda, y es ahí donde conocerá a su futuro primer marido José López Lejarraga, un estudiante de papelería en la escuela de Zalla, que acabará recalando en la Papelera de Errenteria. Con 22 años recién cumplidos, contraerá matrimonio con él y vivirá años muy felices, de los que nacerán su hijo José (1956) y su hija Kontxi (1959), bautizados con el nombre de sus progenitores.

Pero es aquí donde la vida de Kontxi se trunca trágicamente y comienza otra guerra, pero esta vez ante la crueldad del destino. Su esposo José fallece en un trágico e inesperado accidente de tráfico en Estella, con solo 42 años (era dos años más viejo con respecto a Kontxi), y ya bastante más adelante, mueren sus dos hijos prematuramente: en el año 1990 (Kontxi, con 31 años) y en el 2012 (José, con 56 años).

No obstante, Kontxi consigue sacar fuerzas para seguir viviendo y conocerá a su segundo marido, Justo Jáuregui, navarro, del pueblo de Obanos, con el que contraerá segundas nupcias. Comprará junto a él un piso en Casas Nuevas, para más tarde trasladarse de domicilio y afincarse unos metros más allá, en el barrio de Iztietia. Kontxi recuerda que «mi segundo marido, Justo, destacó por su gran fortaleza

física, que a pesar de tener un grave accidente de bicicleta en Alicante, le ayudó a salir de aquel trance. Vivió otros ocho años más después de aquello, y el pobre, al final murió de viejo en 2010».

Durante todos estos años, la escritura ha sido una fiel acompañante de esta mujer, que siendo autodidacta, atesora una excelente cultura literaria y una caligrafía exquisita. Sobre todo, en estos últimos años es cuando más escribe, siempre de su puño y letra, sin usar tecnologías modernas. Preguntada por los temas sobre los que escribe, confiesa que *«pueden ser recuerdos o reflexiones del pasado, alguna cosa que me ha ocurrido hace poco o incluso alguna poesía rimada y que ha hecho llorar a más de una persona cuando la he recitado»*. Mención aparte merece el texto donde refleja las capacidades adivinatorias de su hija, una gran aficionada a la quiromancia, que antes de morir le vaticinó: *«ama, yo tengo la línea de la vida muy corta, mientras que la tuya es muy larga. Vas a vivir muchos años y yo moriré antes que tú»*. Y Kontxi, entre lágrimas, nos reconoce que *«desgraciadamente, acertó»*.

Nuestra conversación tiende a su fin, con un montón de detalles y anécdotas que apenas han sido comentadas y que no tendrían cabida en estas páginas porque requeriríamos de mucho espacio. Eso sí, nos cuenta la sorpresa que le tenía reservada la vida y descubierta por ella hace poco tiempo: *«una de las canciones que han marcado mi vida ha sido la del Touring de Rentería, tantas veces bailada y cantada durante mi infancia y mi juventud. Y mira por dónde, después de años sin escucharla, la vuelvo a oír con asiduidad desde el centro donde ahora estoy»*, situado a escasos metros del campo de fútbol de Fandería.

Y nos despedimos de Kontxi, con la triste sensación de que nos dejamos muchas cosas en el tintero, pero, a la vez, satisfechos de poder haber charlado con una persona alegre, cariñosa y trabajadora, que irradia alegría allí por donde va.

Como su querida canción del *«Touring de Rentería»*.

MARITXUETXABEGURENURDAMPILLET AJOS
XUETXABEGURENURDAMPILLET AJOSEBEE
ABEGURENURDAMPILLET AJOSEBEE TXABEG
RENURDAMPILLET AJOSEBEE TXABEGUREN
DAMPILLET AJOSEBEE TXABEGURENURDAM
LLET AJOSEBEE TXABEGURENURDAMPILLET
JOSEBEE TXABEGURENURDAMPILLET AMAR
EETXABEGURENURDAMPILLET AMARITXUE
BEGURENURDAMPILLET AMARITXUETXABE
ENURDAMPILLET AMARITXUETXABEGUREN
AMPILLET AMARITXUETXABEGURENURDAM
LET AMARITXUETXABEGURENURDAMPILLE
ARITXUETXABEGURENURDAMPILLET AJOS
UETXABEGURENURDAMPILLET AJOSEBEE
BEGURENURDAMPILLET AJOSEBEE TXABEGU
ENURDAMPILLET AJOSEBEE TXABEGURENU
AMPILLET AJOSEBEE TXABEGURENURDAMP
ET AJOSEBEE TXABEGURENURDAMPILLET
SEBEE TXABEGURENURDAMPILLET AMARITX
XABEGURENURDAMPILLET AMARITXUETX
URENURDAMPILLET AMARITXUETXABEGUR
RDAMPILLET AMARITXUETXABEGURENURI
PILLET AMARITXUETXABEGURENURDAMP
AMARITXUETXABEGURENURDAMPILLET AJ
TXUETXABEGURENURDAMPILLET AJOSEBEE
XABEGURENURDAMPILLET AJOSEBEE TXABI
URENURDAMPILLET AJOSEBEE TXABEGUREN
RDAMPILLET AJOSEBEE TXABEGURENURDA

SEBETXABEGURENURDAMPILLETAMARIT
TXABEGURENURDAMPILLETAMARITXUETX
GURENURDAMPILLETAMARITXUETXABEGU
URDAMPILLETAMARITXUETXABEGURENUR
PILLETAMARITXUETXABEGURENURDAMP
TAMARITXUETXABEGURENURDAMPILLET
RITXUETXABEGURENURDAMPILLET
TXABEGURENURDAMPILLET
GURENURDAMPILLET
URDAMPILLET
MPILLET
TA
E
XAB
URE
RDAMPILLET
LLET
MARI
KUETXABEGURENURDAMPILLET
BEGURENURDAMPILLET
ENURDAMPILLET
DAMPILLET
LLET
OSEBETXABEGURENURDAMPILLET
ETXABEGURENURDAMPILLET
EGURENURDAMPILLET
NURDAMPILLET
MPILLET

MARITXU ETA JOSEBE

ETXABEGUREN URDAMPILLETA

167

Oreretako alabak ihesean

Maritxu Etxabeguren Urdampilleta eta Josebe Etxabeguren Urdampilleta

Egilea: Eli Etxabeguren Aranzabal

Urtea: 2018

Pum, pum, pum» tiro hotsak ondo baino hobeto gorderik dauzka bere memorian Maritxu Etxabegurenek. Jaizkibel mendiaren magaletik entzundako eztanda hotsek bete zuten Errenteria; iritsi zen Gerra Zibila. Urte luzeak igaro badira ere, Maritxuren eta Joseberen memorietan badirudi denborak ez duela eragin handirik izan. Ez denbora, ez alzheimerra ez dira gai izan bi ahizpa hauen identitatea eta jatorria ezabatzeko. Batak buru oso argiarekin, 90 urte betetzera doan urtean, eta besteak, alzheimerrak jota zendua, zehaztasun handiarekin oroitzen dute beren herria.

Estanisen eta Joxeparen alabak dira, beste hiru anai-arrebarekin batera. Maritxu Donostian bizi da orain; han egin du bere bizitzaren azken zati luze bat, eta Josebe Txilen zendu zen, han bizi baitzen gaztetan Gerra Zibilaren ondorioz ihes egin behar izan zuenetik. Izaera handiko emakumeak biak, Errenteriako herriarekin lotura handikoak eta edonon bizi izan direnean ere sustriak beti jaioterrian ondo erroturik eduki dituztenak. Maritxuk, atzoko kontua izango balitz bezala, argitasun osoz gogoratzen du Gerra Zibila Oreretara iritsi zen lehen eguna. Zortzi urteko neskatila zen orduan, eta armaturiko militarrek Oreretara sartzeaz zirelako abisua iritsi zen herritar guztiengana. Beren gurasoek herrian gelditzea erabaki bazuten ere, seme-alabak Oiartzun inguruko mendietara bidali zituzten. Hango baserri batean egun gutxi batzuk igaro zituzten, eta, ezkutuko ihesaldi hartan, jateko plater bat eta estalpe bat izatea ez zen gauza gutxi izan. Etxera itzultzeko ordua iritsi zen, baina Oiartzungo muga igarotzea ez zen edonola egin zitekeen zerbait. Muga pasatzeko





pasahitza ere oroitzen du oraindik Maritxuk: «*Larrun!* esan behar genion muga gelditzen gintuen pertsonari; bien bitartean, zaurituta geundela antzetzu behar genuen». Horrela hasi zen Gerra Zibila Etxabeguren familiarentzat. Hortik aurrera, beste hainbat pasadizo ekarri ditu Maritxuk gaurdaino, baina badira emozio berezia duten istorioak, eta Maritxuk oraindik harridura eta emozio berezi batekin oroitzen du honako hau: «Askotan, Lezora joaten ginen alarmak jotzen zuenean edo erasoaldi berri baten berri ematen zutenean. Askotan joan behar izaten ginenez, han elkartzen ginen jende mordoxkaren artean neskato baten lagun egin nintzen. Biok elkarrekin irteten ginen kalean jolastera, baina, haietako egun batean, ez dut oroitzen zer arrazoirengatik, ezin izan nintzen adiskidearekin jolastera irten, eta bonba bat gainean erorita hil zen neskatoa».

Gogorak dira oroitzapenak, eta memoriak askotan ez ditu halakoak luzean gorde nahi, baina Maritxuri oraindik begiak umeltzen zaizkio gertakari haiek oroitzean. Oso ondo gogoratzen ditu Lezon elkartzen zirenekoak; gerraz gehien oroitzen duena guztiek beti elkarrekin egoteko zegoen beharra da: Lezoko etxean, beren etxe azpiko sotoan edota hutsik zegoen bizilagunaren etxean, baina familia bat baino gehiago elkarrekin, jendea talde handietan eta batera. Inoiz ez bakarrik.

Ihesaldiez eta ezkutuko bizitzaz gain, Maritxuk ez du gose handirik pasatu izanaren oroitzapenik: «Aitak beti ekartzen zuen irin zuria, ez dakit nondik, eta amak taloak eta ogia egiten zituen. Ez dut gosearen oroitzapenik». Hala, gaztarora iritsi zirenerako, Francoren diktadura pean garai hartako emakumeei egozten zitzaaien papera eta bizi eredu barnerratu zituen Maritxuk, hezkuntza eta kultura oso baten egituraketa zorrotz eta alienatzailearen ondorioz. Hala erantzuten du berak bere bizitza eredu eta etxeoandarearen lanen inguruan galdetzen diozunean: «Es que la vida de las mujeres era eso, eso es lo que tenían guardado para nosotras». Hala ere, badira erresistentzia eta agentzia ugari Maritxuren bizitzan, emakume indartsua eta lan handia egindakoa baita. Mojetan ikasia eta ondoren ofizinan lan egiteko prestatua, emakume bakarra izan zen familia hartan etxetik kanpo soldatapeko lana izan zuena. Ezkondu eta lana utzi bazuen ere, «emakumeon lana ez baitzen hori», azaldu digu emakume askea zela, eta jakitun dago garai hartako emakume eredutik irteteko hainbat erresistentzia praktikatzen zituela: «Ni nintzen kalerara gehien ateratzen zen etxeo emakumea. Ahizpak etxean geratzen ziren egun osoan; asteen behin soilik ateratzen ziren, eta gu, ordea, Biteri kalean aurrera eta atzera ibiltzen ginen egun osoa. «¡Mira, esas son las que abren y cierran la calle todos los días!», esaten ziguten».

Euskararen defendatzaile sutsua zen gure Maritxu. Aitarekin, berak soilik egiten zuen euskaraz etxean; gainera, etxeoandre gisa ere ez zuen batere bizitza erraza izan. Lehen bikotekidea Madrilen hil zitzaion, urtebetera, ostra txar bat jatearen ondorioz, eta beraren lehen haurra hilik jaio zen: «Nik beti esaten diot jendeari 4 seme-alaba izan nituela eta horietako bat hil egin zela». Lasaitasun osoz kontatu digu

hori. Esperientzia gogorrenetan ere, emakume honek bizitzan aurrera egiteko grina eta harrotasuna ondo gordeta aurkitu ditugu beraren oroimenean.

Jaioterrian bizitzea ez zen izan, ordea, Maritxuren ahizpa Josebek egindako hau-tua. Izan ere, Josebek Txilen egin zuen bere bizitza, Gerra Zibila iritsi eta denbora gutxira bikotekideak, arrazoi politikoen ondorioz, Txilera ihes egin behar izan baitzuen; eta, berak ederto gogoratzen duen moduan, 3 urtez elkarri gutunak idazten igaro ondoren, bikotekideak ezkontzeko proposamena egin, eta denbora gutxian Josebek Txilerako bidaia antolatzeari ekin zion, bizi osoa iraungo zuen bidaia luzea. Bidaiaren amaieran, ordea, Joseberen bizitzako muturreko bi herrialdeen arteko distantzia lausotu egin zen. Errenteriako gaileta fabrikak, Papresa eta beste hainbat fabrika ekarri ditu gogora, baita igandeetako dantzaldiak ere: «Gizonezkoek dantzatzeko eskatzen ziguten; lagunak eta biok, elkarri begiratu, eta, gustuko bagenuen, harekin dantzatzen ginen». Alzheimerrak denbora laburreko oroitzapenak ezabatzen bazizkion ere, oso irmo errepikatzen zuen beti «ni naiz euskalduna, Errenderiko alaba!».

FERMINAARREGILIZARAZUFERMINAARREGILIZ
MINAARREGILIZARAZUFERMINAARREGILIZ
AARREGILIZARAZUFERMINAARREGILIZAR
RREGILIZARAZUFERMINAARREGILIZARAZI
GILIZARAZUFERMINAARREGILIZARAZUFE
IZARAZUFERMINAARREGILIZARAZUFERMI
RAZUFERMINAARREGILIZARAZUFERMINAA
UFERMINAARREGILIZARAZUFERMINAARRE
RMINAARREGILIZARAZUFERMINAARREGII
INAARREGILIZARAZUFERMINAARREGILIZA
ARREGILIZARAZUFERMINAARREGILIZARAZ
EGILIZARAZUFERMINAARREGILIZARAZUFI
LIZARAZUFERMINAARREGILIZARAZUFERM
ARAZUFERMINAARREGILIZARAZUFERMIN
AZUFERMINAARREGILIZARAZUFERMINAA
UFERMINAARREGILIZARAZUFERMINAARRE
RMINAARREGILIZARAZUFERMINAARREGII
INAARREGILIZARAZUFERMINAARREGILIZA
ARREGILIZARAZUFERMINAARREGILIZARAZ
EGILIZARAZUFERMINAARREGILIZARAZUFI
LIZARAZUFERMINAARREGILIZARAZUFERM
ARAZUFERMINAARREGILIZARAZUFERMIN
AZUFERMINAARREGILIZARAZUFERMINAA
UFERMINAARREGILIZARAZUFERMINAARRE
RMINAARREGILIZARAZUFERMINAARREGII
INAARREGILIZARAZUFERMINAARREGILIZA
ARREGILIZARAZUFERMINAARREGILIZARAZ
EGILIZARAZUFERMINAARREGILIZARAZUFI

FERMINA

175

ARREGI LIZARAZU

*Injustiziak indartsu
bihurtu zuen emakumea*

Fermina Arregi Lizarazu

Egilea: Iñigo Legorburu Arregi

Urtea: 2018

Fermina Arregi Lizarazu 1925eko otsailaren 5 batez munduratu zen, Errenteriako Maria de Lezo kalean. Beraren aita Agustinek eta ama Soledadek garai hartarako ohikoa ez zen familia mota bat osatu zuten hasieratik: alde batetik, ama aita baino zaharragoa zelako, eta, bestetik, Ferminak soilik Prudentzio anaia izan zuelako senidetzat, zortzi edo hamar seme-alabez osatutako sendiak nagusi ziren garaian.

1930ean, Agustin hil egin zen, eta, alargundu bezain laster, bi seme-alaba txikien bizimodua aurrera ateratzeko beharrez, zer egin ez zekiela gelditu zen Soledad, harik eta haren ahizpa Luisa Gardeik (beste aita baten alaba) bere etxera bizitzera gonbidatu zituen arte. Horrela, Etxe Berrietako pisu batean hartu zuten ostatu, ahizparen seme-alabekin batera (pentsa, 11 pertsona etxe bakarrean pilatuta).

Gonbidapen horretan, baina, zerikusi handia izan zuen Luisaren senarrak, Felipe Gallegok; jatorriz Gaztelakoa zen, eta UGTko sindikalista konprometitua: langileen aldeko etengabeko borrokan aritu zen paper-fabrikari, eta, greba edo mobilizazioen bat zegoenean, beti ateratzen omen zen jipoitua edo atxilotua. Guardia Zibilaren aurrean, ordea, ez omen zen sekula ere kikiltzen, eta kontzientzia handia erakutsi zuen langile eta klase txiroenekiko.

1936. urtean, Ferminak 11 urte zituen, eta inguruan gerraurreko mugimenduak sumatzen hasi zen, harik eta egun batean adiskide miliziano gizajo eta ezjakin bat atea gogorki joz etxera etorri eta abisua pasatu zien arte: «Soilik bi edo hiru eguneko gauza izango den arren, komeni zaizue hemendik alde egitea oraintxe bertan!».

Hantxe bertan, sukaldean izara zuria lurrera bota, eta beren ondasun apurrak bildu zituzten, presaka. Ferminari oroimenean iltzatua gelditu zaio herio bizi hartan lapiko bat sutan utzita joan zirela; eta, jada etxetik irtenda eta atzerabueltarik ez zela, haur baten inozentziaz amari bota zion, triste eta lur jota: «Jaunartzea egin nuene-ko soinekoa etxean utzi dugu!».

Irungo mugara iristerako, ordea, tropa faxistek itxia zuten hura, eta, beraz, sekulako itzulingerua eginda, askoz ere mendebalderagoko Santanderrera iristeko odiseari ekin zioten Arregi eta Gallego sendiek. Bilbo-Durangon zeudela, Felipe Gallego sindikalista Intxortako frontean hil zela jakin zuten, eta, saminaren erdian oraindik, Luisak senarraren bidez jasotako jakinduria politikoarengatik ziur asko, hura luzerako zihoala ebatzi eta Ingalaterrara bidali zituen bere 7 seme-alabak, Habana itsasontzian. Libertad alabatxo jaioberriarekin gelditu zen, hura besoetan zuela.

Nola hala, Santanderrera iristea lortu zuen Ferminak, bere senide apurrekin eta 3.000 pertsona inguru zituela gainezka zegoen itsasontzian, baldintza beldurgarrietan: Ferminak beti gogoratuko du nola egin zuen bidaia beheko biltegiko ikatz artean beltz-beltz eginda. Eta, baita ere, negar artean amari nola erregutzen zion tarteka ur-poto bat eman ziezaiola, egarriak akabatuko ez bazuen.

Frantziarako bidean, ordea, Canarias nazionalen fragatarekin egin zuten topo, eta, «gureak egin du! Hiltzera goaz!» entzun, eta jendearen beldurra sumatu zuen, fragata tiro egiteko prestatzen zen bitartean. Baina hara non azaldu zen azkeneko unean beste fragata bat, britainiarra, euskaldunen ontzia babestera; hainbat argi keinu eta komunikazioren ostean, Canarias fragatak pasatzen utzi zien, britainiar ontziaren beldur.

Bretainiako Saint-Nazaire herrira iritsi, eta oso harrera ona izan zuten bertakoen aldetik, eta Ferminak gogoan du jaten ongi eman zietela. 1937an gaude, eta Frantzia erdialdera joan ziren, Cleryra. Bitartean, Luisari bere eskuetan hil zitzaion Libertad alaba txikia, gaixo, oraindik oso ume dela. Cleryn, herritarrengandik harre-
ra beroa jaso arren, agintariek ez zituzten oso gustuko etorri berriak, eta Hendaiara bidali zituzten, otsoaren ahora ia-ia. Bidean, Donibane Lohizunen, hurbileko senide batek Soledad bere bi umeekin ikusi, eta Ziburura bidali zituen, hurbileko ahai-
deak ziren familia batengana (sagarzazutarrak). Arrantzaleak ziren, eta hantxe jaso zituen Ferminak bere bizitzako lehen eskolak (12 urterekin). Luisa, bitartean, Juan Negrín idazkariaren etxean lan egiten hasi zen, eta beste bost urte gutxienez pasa-
tu zituen bere seme-alaba erbesteraturik ikusi gabe.

1940. urtean ongi sartuta jada, ustez gauzak normaltzen hasiak zirela-eta, lehenik ama bakarrik itzuli zen Erreteriarra, eta, geroago, 1941 inguruan, Fermina anaiarekin amarenera etorri, eta Maria de Lezo kalean jarri ziren bizitzen. Miseria gorria pairatu zuten, errazionamenduarekin baldintzatuta. Miseria horren adieraz-
le da legatz-buruak eskatzera arraindegira nola joaten ziren, katuarentzat zirela



aitzakia gisa jarrita, baina eurek jateko. 14 urteko Fermina nerabearentzat, ordea, ez omen zen hain bizimodu gogorra; haren hitzetan, «nahikoa zelako igandeetan Zumardiko gramola zaharra martxan hastea ni dantzan jartzeko».

1942. urtean, bizitza baldintzatu zion diagnosis egin zioten: tuberkulosia zeukan. Familiaren laguntzaz eta herentzian jasotako diru apur baten bidez, tratamendua jaso zuen. 1949an, Hilario Gracia etxera itzuli zen, Espainiako makiekin borroka egin ostean, eta, 1951. urtean, berarekin ezkondu zen. Fermina ama izan zen: Alejandro («Alito» ezizenez, 1952), Agustin (1953) eta Iñaki (1955) segidan etorri ziren. Bizimodu gogorra izan zuten gracia-arregitarrek, *gorri* eta *errepublikazale* estigmak gainean zeramatzatelako. Fermina, gaixotasunagatik, ahul eta hauskor sentitzen zen, eta aita, berriz, inguruko enpresa handietan lana ukatzen ziotenez, obratik obrara lan egin beharrean izaten zen.

1960ko hamarkadaren hasieran, etxe sozial bat egokitu zitzairen Alabergan, eta, 1963an, haien azken semea jaio zen, Jon. Amaren abertzaletasun eta kristautasun balioen eta aitaren ideologia komunista-errepublikazalearen artean hazi ziren haien semeak. Alito 1973an atxilotu zuten, eta Carabanchelen eta Pontevedran kartzelatu; Iñaki, berriz, erbestera joan zen 1974an, frankismotik ihesi.

Artean ere bere bi semeen egoerak baldintzatu, 45 kiloko osasun ahuleko emakume hura benetan erraldoi bihurtu zen. Hilario senarra etxeko sostengu ekonomikoa izaki eta horrekin nahikoa zuela iritzita, Fermina hazi egin zen errepresoaren aurrean, eta maiz izan zituen liskarrak Guardia Zibilarekin, behin eta berriz etxean errepikatu ziren miaketetan. Bestalde, sensibilitate politiko aurrerakoiak zituzten pertsonen bilgune bihurtu zuen beren etxea, tartean Alitoren eta Iñakiren kideena. Hilariok obretan ezagututako etorkin aljeriar batzuek ere, adibidez, etxe hartan hartu zuten ostatu. Etengabeko aktibitate politikoaren ondorioz, etxea *erreta* zegoen, eta Guerrilleros de Cristo Rey talde paramilitar ultraeskuindarraren erasoak jasan zuten. «*Próximo sangre*» mehatxua agertu zitzairen paretan idatzita, eta lehergailu baten suzko eztanda pairatu zuten, etxeko sarreran.

Alito 1975eko abenduan askatu zuten, eta, Iñaki semearekin, 1985-86 urtera arte harremana mantentzea lortu zuen Ferminak, erbesteko bisita bakanei esker. Geroago, osasuna eta erreprezio neurriak direla medio, 15 urte pasatu zituen Ferminak Iñaki semea ikusi gabe, harik eta 2000. urtean atxilotu eta 2001eko urtarri-lean Pariseko presondegian ikusi zuen arte. Elurte bat dela medio autoz iristea ezinezkoa zela ikusita, azkeneko kilometroa Jon semearen bizkar gainean eginda iritsi zen Fermina, ia 76 urterekin. Aurrerago, bederen, hainbeste sufrikarioren ostean, bere seme Iñaki libre ikusteko zortea izan zuen gutxienez. 2015eko abenduaren 18an hil zen, oxigenoa behar bezala hartzeko arazoak pilatu eta azkenekoa izango zuen bronkitisa ezin gaindituta. 90 urteak ongi beteak zituen ordurako.

Hori guztia eta gehiago izan zen Fermina: bizitza politikoa egitera bideratu agian ez, baina politika bere bizitzara ekarri zuen emakume txiki eta erraldoia. Politikaz

arazorik gabe edonorekin hitz egiteko arazorik ez zuen emakume klasea, ekintzen bidezko politika zer den irakatsi diguna.

ESKERTZA: Mila esker, bihotzez, Gracia-Arregi sendiari, emandako erraztasun guztiengatik. Eta batez ere zuri, Jon, izan duzun adeitasun eta pazientziagatik.

PILARFRAILESARASOLAPILARFRAILESARAS
ARASOLAPILARFRAILESARASOLAPILARFRA
RFRAILESARASOLAPILARFRAILESARASOLA
OLAPILARFRAILESARASOLAPILARFRAILES
LESARASOLAPILARFRAILESARASOLAPILAR
ILARFRAILESARASOLAPILARFRAILESARASO
RASOLAPILARFRAILESARASOLAPILARFRAI
RAILESARASOLAPILARFRAILESARASOLAPI
APILARFRAILESARASOLAPILARFRAILESARA
SARASOLAPILARFRAILESARASOLAPILARFR
RFRAILESARASOLAPILARFRAILESARASOLA
OLAPILARFRAILESARASOLAPILARFRAILES
ILESARASOLAPILARFRAILESARASOLAPILA
PILARFRAILESARASOLAPILARFRAILESARAS
ARASOLAPILARFRAILESARASOLAPILARFR
RFRAILESARASOLAPILARFRAILESARASOLA
OLAPILARFRAILESARASOLAPILARFRAILES
ILESARASOLAPILARFRAILESARASOLAPILA
PILARFRAILESARASOLAPILARFRAILESARAS

ARASOLAPILARFRAILESARASOLAPILARFR
RFRAILESARASOLAPILARFRAILESARASOLA
OLAPILARFRAILESARASOLAPILARFRAILES
ILESARASOLAPILARFRAILESARASOLAPILA
PILARFRAILESARASOLAPILARFRAILESARAS
ARASOLAPILARFRAILESARASOLAPILARFR
RFRAILESARASOLAPILARFRAILESARASOLA
OLAPILARFRAILESARASOLAPILARFRAILES
ILESARASOLAPILARFRAILESARASOLAPILA

PILAR

183

FRAILE SARASOLA

Leihotik erbesteari begira

Pilar Fraile Sarasola

Egilea: Idoia Fraile Ugalde

Saria. Emakumeen begirada onenari saria

Urtea: 2018

Gabierrotako zahar egoitzan leihotik begira zaitugu, Pilar, Oiartzun ibaiaren ur-emariari so. Une batez otu zaizu ez zenuela urak zure oroitzapenak eramaterik nahi, eta pentsatu duzu, ihesean doan ur horrek berak tarteka ibai bazterrean enborrak, adarrak eta hondar-aleak pausatzen dituen bezala, zuk ere, 90 urte betetzear ditzunean, bizi osoan isilean eraman duzun mina eta estutasuna zure ondorengoei ur ertzean uztea, haiek gero jaso dezaten.

—Udan, hemen, aurreko arbola hauek hostoz beteta egoten dira, eta ez da ibaia ikusi ere egiten —esan diguzu.

Beharbada, orain, ibaia ageriko delako, kristalezko leiho biribilduan eskuaz lanbroa kendu, eta hasi zara inori sekula esan gabeko kontuak azkenean ibai-hegian pilatzen.

LEHEN URTEAK

Azken Portun jaio zinen, Pilar, 1928ko urrian. Orduan, itsasoa ia Pontikaraino helitzen zen, eta hondar-lurraren amaieran zenuten zuen etxea: zaharra eta txikia. Osaba Ambrosio hondargilea zenuen. Hala, lehen zortzi urteetan irakurtzen jakinki ez, eta erbestetik itzultzean ohartu zinen *Ambrosionea* idatzia zela zuen etxeko horman.





ETXEA UTZI

—Halako batean, gauean ihesi bezala egin genuen —adierazi diguzu, pentsakor—. Gauza gutxi hartu, eta isilik joan ginen.

Orduan, Pilar, zuk zortzi urte besterik ez, artean neskato, azken aldiz so egin zenuen sortetxeari. Pasaian txalupa bat hartu zenuten, eta handik Bilbora jo.

—Barku zahar hura jendez lepo zegoen; gure familiaz gain, amianotarrak ere han ziren. Bidaia txarra egin genuen: botaka aritu ginen. Amianotarrek amona bat zuten, eta, haize-pirrintak olatua eragitean, gaixoa lurrean barrena ibili zen pirrilaka.

Gauza horiek hemen sartuak daude-eta —adierazi diguzu, amultsuki, eskuaz bu-rua ukitzen zenuela.

Bilbon, bermejotarren etxean egon zineten. Izan ere, zuen amona, orduan, haien neskame zen Donostian eta, nazionalistak zirenez, etxea utzi zizueten.

—Koldo, anaietan txikiena, han jaio zen: 1937ko epailean; Pontikako beste hiru gizon ere gure etxean ziren, tartean Tejeria.

GERRA

—Ni gogoratzen naiz —ttikia izango nintzen— bonbak Bilbon hasi zirenean. Etxean bakarrik nintzen: ama erosketak egitera joana zen; aita Basaurin kartzelazaina zen; anaiak, berriz, kalean ziren. Soinua entzun nuenean, sukaldean nintzen, aulki gainean zutik jarri eta leihotik begira. Bonbak ondoko biltegia jo zuen; teilatua zulatu, eta barrura sartu zen. Orduan, negarrak eta garrasiak entzun nituen: ai, ai, ai! —eta, hori esatean, begiak oharkabeen hetsi zaizkizu—. Hainbeste denboran ez genuen ekarri gogora, hau, ezta? Baina hasten zara, eta gogoratzen zara! Dena ez, noski, baina asko bai —gaineratu diguzu, atsekabetuta.

Une hartan, Tejeria etxera igo, eta, zu leihotik begira ikustean, zera esan zizun:

—«Zer ari zara, neska! Ez arrimatu!» Gezurra dirudi; orain, txorakeria bat iruditzen zaigu, baina orduan pasatu genuen.

Sirenak egunean hiru-lautan jotzen zuen. Orduan, banku batera joaten zineten korrika, *refugiara*: lurpean zegoen. Han, jendetza biltzen zineten. Atarian gazte bo-
luntario bat egon ohi zen beti zuen amaren aiduru; hala, tutuak jotzean, Koldo be-
soetan hartu, eta, azkar, gordelekura eramaten zuen. Ordutik ez duzue gaztearen
berririk: ez nor zen, ez nola bukatu zuen. Gerora, zuen amak beti izan zuen gizon
hura ezagutzeko gogoia.

Gero, Bilbo hartu zutenean, Santanderrera jo zenuten, eta, handik, Frantziara.

ERBESTERA

—Hiru anai-arrebak, ama Koldorekin lurrean utzita, La Habana baporean sartu ginen. Ez genekien nora gindoazen, ez etorkizuna zein izango genuen ere. Haur pila bat geunden, gehienak Santanderkoak eta Asturiaskoak.

Gogoan duzu, Pilar, orduko mina. Ziurrenik, une hartan, baporeko leihoari lurruna kenduko zenion, eta, gero, adio egingo zenion eskuaz amari; Kattalinek, agian, zapi bat izango zuen eskuetan: zapi zuri bat. Zuk, urrundu ahala, ozta-ozta ikusiko zenuen zapiaren zuria; eta amak malkoak harekin xukatuko zituen, hiru seme-alabak zeruertzean desagertzen zitzaizkion bitartean.

Gainerakoan, esan bidean ongi zaindu zintuztela. Eta zortea izan zenuela; zortea, zure anaiek ez bezala, baporeko zerbitzari baten iloba lagun egin zenuelako. Eta, noski, hark beti eskupekoren bat ematen.

Habanak Pas de Calaiseraingo eraman zintuzten: handik batzuk Ingalaterrara, eta besteak, inguruko ospitale zaharrera.

Han egin zenituzten bi urte pasatxo. Ongi zaindu zintuztetan; Doña Ines eta Doña Faustinarekin irakurtzen eta idazten ikasi zenuen; tarteka, anaiekin hondartzan bustitzen zinen; bi urtez, Errege egunez, zuk eskatu bezala, panpina oparitu zizuten; baina gogoan duzu hiru bizitzako ohatzean gauero ohera sartu orduko nola negar egiten zenuen: aita-amak falta, jakina, eta hori «dena» zen zuretzat!

Hala, noizbait, etxerako bidea hartu, eta Irunera heldu zineten, trennez. Geltokian, aita zain zeneukaten; ez zenuen ezagutu. Orduan, besoak zabaldu, eta gizon hari tinkaldi estu bat eman zenion. Alabaina, trenean zurekin ekarritako panpinen poltsa karelean utzi zenuen, ahazturik. Gero, etxean, amaren mantalarekin malkoak lehortuko zenituen, eta Koldo anaia inguratuko zitzaizuen, nor zineten galdezka. Orduan, sehaskan beste norbait ere bazela ohartuko zinen: Andres zen, hura ere zuen anaia omen. 1939ko uda bukaera izango zen, ezagutu berriak hamar bat hila-bete zuen-eta. Zuk, aldiz, hamar urte: zuk diozun bezala, «ttikia, oso ttikia hau dena bizitzeko».

Orain, Gabierrotako zure etxean, atzera Oiartzun ibaiari begiratu diozu: urak beheiti jarraiki; tarteka, adar, sastraka eta harea-aleak ertzean ditu metatzen. Gera-turiko hondar-ale horiek dira, alabaina, zure oroitzapenak, behinola osaba Anbro-siok jasotzen zituen gisakoak. Eta, zure bizipenen aitortza honi esker, sedimentu bilakatuko dira, zure ondorengoek hitzok memorian gordeko dituztelako.

Panpinak ere oraindik gogoan dituzu: Errege-egunean oparitu eta Irungo geltokian ahazturik utzitako biak. Zureak, haiek ere. AMA!



2

010. urtean sortu zen Errenteriako Berdintasunerako Kontseilua. Urte horretan Mariasun Landa Sariak martxan jarri genituen, eta horri esker zortzi edizio hauetan asko izan dira ezagutu ditugun errenteriar emakumeak. Sari hauek sortzean bete nahi genuen helburuari erantzun diogu eta, horrela, emakumeek egindako ekarpena ikustarazi eta herri-kronika osatu dugu.

Urte hauetan jasotako idatziak altxor txikiak izan dira guretzako eta horiek ezagutzera emateko unea dela erabaki dugu. Ondorengo orrietan aurkituko duzunarekin ikasi, disfrutatu, gozatu... Euren bidea egiteko bai-menik eskatu ez zuten emakumeak dira guztiak.



Errenteriako Udala



Errenteriako
Berdintasunerako Kontseilua
Consejo de Igualdad
de Errenteria

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

ISBN: 978-84-09-06-312-3



9 788409 106312 3